

# psikopataren joko

JOSEBA KOLDO ORTEGA



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSEBA KOLDO ORTEGA

# psikopataren jokia

# Psikopataren egunerokoan

Lanean ari naiz, edo bestela lanean arituko banitz bezala itxurak egiten ari naiz. Mahaiaren gainean ez daukat ezer berezirik, smartphona eta ordenagailua izan ezik. Azken hau piztuta dago eta begiratu egiten ditut interneteko gustuko orriak. Bat-batean puzkerra bota dut. Nire idazkariak barre egin dit. Kaiku halakoa! Berak uste du puzkerra botatzeak berarekiko konfiantza señaile bat dela. Jakingo balu zenbat mespretxatzen dudana! Zeren eta horixe izan baita puzkerraren benetako asmoa: mespretxatzea. Edonola ere nagusia naiz. Zerbitzu honetako eta arloko zuzendari orokorra naiz. Gure familiak eta nik neronek inbertsio-enpresa kontrolatzen dugu.

Betidanik egin dut nahi izan dudana. Hori bai, jendea distantziaz tratatzea gizalegea da, negozioetan edo formalitatea behar denean; lan harremanetan zuka erabiltzen dut besteekin, itxura batean errespetua erakutsiz. Edozein modutan, nik ez dut inor errespetatzen, ezta aita-amak, senideak, emaztea edo seme-alabak ere, neure burua izan ezik. Haiek eta bazkideak ez ditut gaizki tratatzen, baina komeni zaidalako.

Badakit beste pertsonak zer pentsatzen duten, eta niri zer komeni zaidan esatea edo egitea. Bestela ere, bost axola niri zer sentitzen duten edota nirearekin ateratzeagatik jendea eta ondorioak ere. Ez dut inor maite, neure burua izan ezik.

Ez, ez dut etikarik. Betidanik, txikitatik bertatik, konturatu naiz jendea ergela dela. Manipulatzen dut eta nahi dudana egiten dut. Gai izan naiz nire ezegitekoak beste batzuei leporatzen eta nire biktimek nahi izan dudana egin dute. Sekula ez naiz errudun agertu, ez behintzat ageri-agerian.

Ez naiz soziopata bat; ni psikopata beldurgarri bat naiz, jendearekin jolastea maite duena. Badakit atsegina izaten, baina nekatzen naizenean krudel eta sentimendurik gabe torturatu eta hala suertatu eta erabakiz gero akabatu arte aritzen naiz. Hala ere, ez naiz inola ere “soziopata” bat. Sozietate edo jendarteari ez diot fobiarik ezta maitasunik ere. Zeren eta bi trastorno mota desberdinak baitira soziopatia eta psikopatia. Biek badute berdintzen dituzten zenbait gauza: ez dute erruduntasunik ezagutzen, bortizkeria eta krudelkeria gozatzeaz aparte, erruki sentimendurik gabe praktikatzen ahal dugulako. Biok badakigu oso atseginak izaten: manipulatzailerik eta gezurtiak gara. Dena den, diferentziak ere badira: soziopatak ez dira egonkorrak; oldarkorragoak eta inkontrolatuagoak dira eta sozietatea gorrotatzen dute. Edonola ere, diferentziarik handiena da psikopatok ez dugula batere emoziorik sentitzen, ezta haserrea ere, eta ondorioz, besteen ahuleziak gehiago aprobetxatzen ditugu. Bestelakoak dira nartzisistak: ez dute beren buruaren kontra ezer onartzen eta beren burua gorestea besterik ez dute buruan. Nik, aldiz, askotan antzetzen dut damua! Dena den, onartu behar dut agian nartzisismo piska bat izango dudala: nire akats bakarra da ez dudala porrota onartzen. Ez naiz geratzen nire helburua erdietsi arte, harrapakina atxiki arte.

Kasuak kasu, definizioz, psikopatak gaizkile hotzagoak izan gaitzke: ezegitekoak xehetasunez prestatu eta harrapatuak ez izateko neurriak hartzen ditugu. Ez gara hain bortitzak izaten, nahi duguna jendea manipulatuaz lortzen dugulako. Psikopata integratuak garenok ez dugu arrastorik uzten eta momentuko gogoez gidatzen ez garenez soziopatek baino akats gutxiago egiten dugu.

Honela idatzi zuen psikopata batek behin harrapatu zutenean:

“Itxuraz, gizon bat naiz: ile, larruazal, gihar, hezur, erraiak eta besteak beste burumuina eta bihotz bat dauzkat. Sozietatean bizi naiz, jendarte batean eta nire lekua aurkitu dut. Hala ere, ideiek, sozietateak eta pertsonek bost axola didate. Ez dut ezer sentitzen jendearekin; ez dut inor ezer errespetatzen. Inporta zaizkidan bakarrak, luxua, plazera eta dirua dira eta ez dut emoziorik sentitzen. Pertsonak aurrean ditudanean, nik, maneiatu, haiekin jolastu; min egin, torturatu, odolustu, ito eta hil egin nahi ditut”. Ni ere halakoxea naiz.

Nire zaletasunak anitzak dira, gehienak nire klase sozialekoak izaten direnak: tenisa gustatzen zait, baita eskia eta diving-a. Itsasuntziz ibiltzea gustuko dut eta festak, golfa eta zaldi lasterketak maite ditut, baita jokoa eta apostua ere. Edozein modutan, nire zaletasunik handiena ehiza da. Ehiza mota asko dago, animalia nagusi edo txikiak. Hala ere, ehizarik gustukoena gizaki-ehiza da: norbait zelatatu, hautatu, jarraitu, harrapatu, harekin jolastu eta menperatu.

Ez naiz perbertitu bat; ni naizena, nire izaera jarraitu baino ez dut egiten. Gainera, zer dira eta zertarako daude gixajoak eta gaixo guztiak? Badakit sozialistek eta filosofia liberalekoek zer aldarrikatzen duten: denok berdina eta askeak garela. Hori ergelkeria! Errealitatea bestelakoa da. Gehienak hor daude ausartzen garenon esanetara. Ni ere liberala naiz. Askatasuna da balorererik handiena: bai, nire askatasuna; nik nahi dudana egiteko ahalmena ematen didana.

Bitzita joko bat da: nire jokoa. Joko zelaia jendarte da. Arauak nik nahi ditudanak. Saria atsegina erdiestea. Hala ere, ba al dago areriorik? Gizakiak piezak besterik ez dira-eta.

Duela aste bat emakume gazte eder eta erakargarria ezagutu nuen eta hari jarraiki haren anaia ere bai. Horiek izango dira nire jostailuak.

# 1 - Gau giroan

Iluntzen ari zuen. Ostirala zen eta Iruñeko Alde Zaharrea taberna barneak erdizka beterik zeuden, nahiz eta baimendutako kopurua gehienez herena izan. Estafeta eta San Nikolasen ia ezin zen pasatu taberna kanpoko taburete eta kupelen inguruan. Ematen zuen kale haietan ezin zela jende gehiagorik ibili. Debekuengatik jendeak azken momentura arte aprobe txatu nahi zuen. Adin aunitzetakoak ziren alde zaharrea tabernetan ibiltzen zirenak. Festa giro horretan, gizon batek gaztetxoak bilatzen zituen. Adinez nagusiak ez ziren neska edo mutil errebeldeak interesatzen zitzaizkion, ahal bazen bakarrik zeudenak. Harrapariak ez zuen orduko gustuko inor ikusi, ibiltari gehienak norbaitekin zebiltzalako eta eserita edaten ari zirenek ere bazuten norekin hitz egin. Itzulia egiten ari zela, ez zuen zelatatze leku aproposik topatu. Hurrengo eguna festa zen, 2021eko maiatzaren lehena eta inork ez zuen gogorik etxeratze. Kera deia gaueko hamaiketan hasiko zen, baina astebururako festa gogoa oso handia zen. Gazte batzuk, gehienak, etxeratuko ziren; beste batzuk, ordea, bilatuko zuten lekuren bat ordu txikietan dibertitzeko. Etxabeetan elkartzea debekatuta zegoen, baina beti izango ziren toki batzuk, etxe eta pisu partikularrez gainera.

Sarasate pasealekuan topatuko zuen harrapakina begiztatzeko leku egoki bat. Gizon harraparia prestatuta zegoen: ezkutuko poltsiko batean, behar izanez gero arin eta disimuluan, erraz hartzeko moduan, estasi pilulak gorde zituen, baita GHB botetxoa ere. Gizona gaztea zen, edo hala ematen zuen, zeren eta zituen hogeita hamar urte luzeak disimulatze gazteago bat bezala jantzi zuen bere burua: ilea aldeetatik motz, txano txiki bat gainean, bizarra eta betaurreko bintage batzuk. Jantzeko, pitillo prakek, alkandora koadrodunak, jakak, eta zapatilek osatzen zuten hamasei-hemezortzi urteko gazteak erakartzeko bere karakterizaziorik onenetarikoa.

Terraza batean txoko libre eta apropos bat topatu zuen. Barran freskagarri bat eskatu zuen eta ertz batean eseri zen inguruari begira. Hamarrak pasa, ordu eskasean itxiko zituzten terrazak eta kera deiaren arabera ez zen jenderik geratuko azkeneko berantiarrak izan ezik. Terrazako mahai eta aulki gehienetan gazte talde txikiak begiztatu zituen. Bere ehizaki edo harrapakina bilatu zuen. Batzuk ez ziren bere interesekoak, ez zioten ezer adierazten, landa zabal batean belarjale arruntak izan balira bezala. Beste batzuk, berriz, adin txikiagokoak edo jarreragatik erakargarriagoak zirelako, espiatzen zituen tarteka, ez nabaritzeko moduan. Sarrerara begira norbaiten zain izan balitz bezala jokatzeko zuen berak. Mahai batean bi neska gazte, hamazazpi urte izango ez zituztenak, barrezka ari ziren ahoz elkarri kontu txikiak kontatzen zizkieten bitartean. Beste mahai batean beste hiru lagunekin zegoen mutil bat deigarria egin zitzaion. Hemezortzi bat urteko beste lagunak hizketan ziren ozenki eztabaidatzen, elkarri hitza kentzen, zein zen Europako futbol talderik onena. Modako musika ia ez zen entzuten, han elkartutako bezeroek gustura ari baitziren solas arinetan. Laugarren mutilak asperdura aurpegia erakutsi zuen. Berak ez zien lagunei kasu egiten, bere munduan zegoen. Bezero haiek eta beste helduagoek horrela pasa zuten denbora bertako zerbitzari batek bost minutuan barra itxiko zutela esan zien arte. Orduan batzuek azkeneko kontsumizioa eskatu zuten, haien artean bi neskek. Pixkana, ordu laurdenean joan ziren bezero gehienak, baita mutil bakartia eta bere kuadrillakoak. Bi neskek bi edo hiru aldiz begiratu zioten berari, irribarrez eta pinpirin. Ez ziren gehiago egitera ausartuko, baina haien gustukoa zela nabaritu zuen gizonak. Kalimotxoa edo kola bukatu zutenean eskutik heldu, berari azkeneko begiratu xamurra bota zioten eta kanpora atera ziren.

Neskek zabalgunera zuzendu zituzten urratsak. Gizonak harrapakinak jarraitu zituen haiengandik berrogei metrora. Harrapakinak ez omen ziren konturatu inork jarraitzen zituenik. Poliki zihoazen eskutik helduta. Hamaikak ziren eta bazirudien beraien etxera zihoazela; hori bai, gogo eta presarik gabe. Etorbidearen ondoko parke txikian banku batean eseri ziren banandu baino lehen. Gizona, kale kantoian baten ondoan faroletik urrutiratu zen zuhaitz baten atzera, ilunetik zelatatze. Haietako zein jarraituko zuen erabaki behar zuen nor bere etxera mugitu baino lehen. Laguntxo bat luzexka eta mehea zen eta bestea mardulagoa. Berau erakargarriagoa egin zitzaion. Ile kizkurrean

aurpegi borobilak alaitasuna adierazten zuen, sudur txikia laguntzeko begi handi eta aho gorri irribarretsuen bidez. Neskek xuxurlatzen zuten buruak hurbilduta.

–Ikusten al dun oraindik “galant” hori? –galdetu zuen gazte beltzaran luzeak.

–Bai. Guri begira zagon zuhaitz baten atzetik. Iluntasuna bilatu din guri begiratzeko. Uste dinat une batetik bertzera gure gainera eginen duela jauzi –erantzun zion neska potxoloak lagunari.

–Ez dun izango! Ausarta behar din! Ausarta eta sinistua! Itxura ona izateagatik ez zakinat zer espero duen gixajo horrek! Barrezka, gauzak umorez komentatzeagatik tuntunak garela uste al din horrek? –galdetu zion neska luzeak besteari.

–Ziur pentsatu din gurekin ligatuko duela eta gurekin nahi duena egin dezakeela. Hobe dinagu hemendik alde egitea –gehitu zuen pottoloak.

–Bai. Hire gorputz bete eta aurpegi zerutiarrekin lelotzen ditun guztiak. Ez zakinat zer dudan denek nerabe txorotzat hartzeko, Viky!

–Ez zakinat, baina bat, bi, hirura hanka egin behar dinagu. Erabili hire hanka luzeak, neska! –ez bat, ez bi eta hiru, ahopez kontatzean ziztu bizian alde egin zuten nor bere aldetik harraparia esku-hutsik utziz.

## 2 - Alarma egoera bertan behera. Gaueko basapizti beldurgarria

Udaberria. Sei hilabetez ezarri ondoren, maiatzaren 8an bukatu ziren alarma egoera eta probintzia eta komunitateetan itxiera perimetralak ere bai. Azken aldian, alarma egoera edo larrialdia amaitu zenetik, “normaltasun” garai berria hasi zen. Etxeratze-agindu deialdia 23:00etan kendu zenetik, gaueko bizitza berriro berpiztu zen leku guztietan. Gazteak festetan ibiltzen ziren inolako arauri kasurik egin gabe, botila-festak ere antolatuz. Espainiako gobernuko presidentek pandemia gailendu zela adierazi zuen. Gainera, ekainaren 26tik musukoa eramatea ez zen derrigorrezkoa izanen, aire librean distantziak mantenduz gero.

2021eko maiatzaren 10a, astelehena.

Aurreko eguneko gauerditik jende gaztea gaupasan ibili zen. Etxeratze agindurik gabe, bortizkeria eta delitu batzuk izan ziren. Ordura arte denbora luzez Foruzaingoan eta Udaltzaingoan ez zuten arazo berezi larririk izan. Dena den, jendea gauez mugitzen hasi zenetik nabaritu zen aldaketa, baita delituetan ere. Handik aurrera ikusiko zutenez, bat-batean bortizkeria eta LGTBI+ fobia kasu batzuk eman ziren azken asteetan.

Lara Lasa, Lala ezagunentzat, lanean ari zen bulegoan. Detektibe pribatuak lan gutxi baina egin beharrekoak zituen. Nolanahi ere, argitutako kasuaren txostenak osatu, frogak bildu eta diru-kontuak egin behar zituen. Bestalde, lankide-bikotekideari laguntzen zion online lanetan. Jaker beti bezala aritu zen internet bidezko delitu batzuk ikertzen. Interneten egindako iruzur gehienak errudunak zigortu gabe geratzen zirenez, oso zailak ziren ikertzeko, jatorri eta molde anitzetakoak izateagatik. Gainera, diru kopuru mugatukoak, gehienetan legeak ez zituen delitu larritzat hartzen. Enpresetan, ordea, iruzur handixkoagoak izateaz gain, bertze mota bateko delituak ematen ziren, espioitza komertziala eta sabotajeak kasu. Jakerrek gehienetan egiten zuena sistema telematikoak eta informatikoak garbitu eta babestea zen; bestela gutxitan izaten zuen aukera delituen egileak topatzeko. Lalak ere, bertzelako lanik falta zutenean, laguntzen zion estrategia eta ideiekin, enpresekin harreman administratiboa burutzeaz gainera.

Bat-batean, Lalak Ainara udaltzaingoko inspektoreordearen telefono-dei bat izan zuen. Laguna zenez, elkar agurtu ondoren, Ainarak azken berria eman zion.

–Lala, zerbait larria gertatu da! –ikerlariak ez zuen horrelako adierazpenik espero eta txantxetan hartu zuen.

–Bai, gazteak berriro ibiltzen dira parrandan. Zer egin dute oraingoan?

–Ez hartu txantxetan. Ez, ez da hori. Gaur goizaldean emakume gazte bat topatu dugu kalean egoera larrian. Koman zegoen eta ospitalean artatu badute ere, ez du konortea berreskuratzen –ikertzaile senak eskatu zion Lalari berriaz eta emakumeaz gehiago galdetzea.

–Larria dela diozu. Ez da koma etiliko arrunta izan, orduan!? –ez zuen galdera moduan egin.

–Ez. Kolpatu eta zauritu egin dute. Torturatu dute! Ez dirudi koma edateagatik denik. Mairak 22 urte ditu. Lagun batekin atera zen gurasoek diotenez eta horrek kontatu digu bera goizeko hiruretan etxeratu zela eta Maira ezagun batzuekin geratu zela parrandan jarraitzeko. Yamaguchi Parkean botilo bat antolatu zuten Franzisko Jabierren monumentuaren inguruan. Hala ere, neska goizaldean “La Vaguada”-n topatu dute bizilagun batzuek.

–Zerbait gehiago jakin duzue?

–Ez. Konortea berreskuratzean eginen diogu galdeketa –Lalak pixka bat pentsatu ondoren galdera baino zerbait gehiago egin zion lagunari.

–Ainara..., dirudienek zuk arazoak susmatzen dituzu... –ez zuen adierazi nahi etorkizuna asmatzen zuela edo ahalmen bereziak zituela, zantzu batzuegatik gauza batzuk aurreikusten zituela baizik–. Zuk zerbait larria espero duzu!

–Bai. Ez da normala jende torturatua topatzea. Espero dut horretan geratzea!

–Baita nik ere –izan zen Lalaren erantzun etsia.

### 3 - Udaberriko gau arriskutsuak

2021eko maiatzaren 14a, ortziralea.

Lau egun pasa ziren emakume gaztea konorterik gabe topatu zutenetik. Egun haietan egoera larrian hiltzeko zorian izan ondoren, pixkana arriskutik atera eta ospitalean mota guztietako probak egin zizkiotenez ondorioztatu egin zuten droga gogorak eman zizkiotela, agian hiltzeko asmoz. Fisikoki ez omen zuen arazorik, baina burua nahasita zuen eta ez zuen jarraian ezertan pentsatzen edo aritzen ahal. Pentsamenduen haria galtzen zuen eta mutu geratzen zen sendagileek bere egoeraz galdetzen ziotenean.

Konortea berreskuratu eta hurrengo egunean, burua nahasita izanda ere, foruzainek galdetu zioten. Mairak ez zuen gertaeraz ezer gogoratzen. Lagunak utzi zuenean berak ezagun batzuegana jo zuen denbora labur batez festan jarraitzeko. Bertzerik ez. Ez zuen gogoratzen norekin egon eta praktikatu zuen sexua. Ez zegoen ezer gehiago jakiteko modurik, GHB, Koka eta meta-anfetamina hartuta gaindosia izan zuela bertzerik. Handik gutxira, gehiago jakin zuten: Udaltzaingoko Larrialdi zerbitzuko Ainara inspektoreordeak Lalari kontatu zion arratsaldean. Drogak erabili ondoren labana batekin zitzadak eta ebaki pila eginez min egin, torturatu zuten; bortxatu ere egin zuten emakumea. Gaizkileez informaziorik ez.

Iluntzean, Emilio ehiza egitera atera zen. Poltsan makillaje eta mozorrotzeko poltsa txikiagoak gorde zituen. Motxila moduan eroso eramaten zuen ezker sorbaldan zintzilik. Taberna batean sartu zenean gazte itxura zuen gizonak: lentillak, bizarra eta bibotea jarri zituen eta txano "Driver" batekin hogeita bost bat urteko irlandar despistatu baten itxura hartu zuen. Erabat itxuraldatuta, ezagunek ez zuten ezagutuko. Diskoak eta pubak itxita zeudenez Iruñeko terrazetara hurbildu zen norbaiten bila. Sarasate paseoko taberna batean kaña bat eskatu zuen. Telefonoa piztu eta Twitter eta Facebook-en begiratuak egin zituen. Ondoren, whatsapp-ez mezuak bidaltzen aritu zen, inguruan disimuluan bakartiak zelatatzen zituen bitartean. Neska gazte bat eta bertze bat zaharragoa begiztatu zituen, baina berehala agertu ziren beraien lagunak. Hogeita bat urteko mutil bat norbaiten zain zegoen barran, baina bere begirada bihurriak eta edertasunak erakarri zuten. Intuizioz jokatzeko zuten eta telefonoa gordez hurbildu zitzaion. Hustutako edalontzia utzi, bertze bat eskatu eta ordaindu bitartean mintzatu zitzaion gazteari.

–Kaixo, zure lagunak berandutzen ari dira, ezta? –gazteak baietz egin zuen eta isilik geratuko zela ematen zuenean zerbait erantzun zuen.

–Bai. Lagunak berehala datorrela dio mezu batean, baina...

–Ni utzi naute. Orain jaso dut desenkusa. Ezuste bat izan du nire lagunak... bere amak larrialdi bat izan omen du –bat-bateko burutazio bat izan balu bezala jarraitu zuen–. Nahi al duzu kaña bat?

–Zergatik ez?! –erantzun zuen atsegin–. Gutxienez hogeita minutu kostako zaio Xabiri. Asier Otano naiz eta ADE-Data zientziak ikasten ari naiz –kasualitatea izan zen Emilioren ofiziolakoa izatea. Dena den, ez zion bere bizitzaz gehiegi kontatu behar. Bertze bi kaina atera zizkietenean beren osasunagatik topatu zuten.

–Ni German naiz, ekonomista banku batean. Zer moduz ikasketak? –gazteak muturra okertu zuen.

–Egia esanda, gaizki. Hiru aste hauetan ikasturtea jokatu dugu eta urduritzen ari naiz. –Emiliok imaginazioa erabiliz adiskidetsu mintzatu zitzaion gazteari.

–Urte batzuk pasa dira, baina baziren pilula batzuk, lasaitasuna emateko eta ikasteko oso onak zirenak... – gazteak ez zuen lehenean irentsi. Ez zen erraz engainatzeko horietakoa.

–Pilulak arriskutsuak izan daitezke. Nik ez dut besterik gabe pilularik hartzen.

–Arrazoi duzu. Ez ohitzea da kontua. Gogoratzen dudanez, ikasten genuen aldian pilula bakarra hartzen genuen eta ez zuten ondoriorik. Lagun farmazeutiko batek pasa zizkigun merke eta azterketa gogorretan zentratzeko hartuta ez genuen inolako ondorio txarrik izan... Nik uste lasaigarri hutsak zirela. Orduak pasata, normal aritzen ginen hurrengo eguneko azterketetan. Nahi baduzu lortzen ahal ditut.

–Ez dakit... –Asier gustura zegoen, baina ez edozein modutan edozer onartuko.

–Laguna askotan ikusten dut eta merke lortuko ditut... Emadazu zure telefono zenbakia eta bihar esango dizut lortu ditudan.

–Begira..., emadazu zuk zeure zenbakia eta pentsatuko dut.

–Ongi da. Ekarri telefonoa, nire zenbakia sartzeko. –Horrela, ezagutu zuten elkar Asierrek eta Emiliok. Asierren laguna agertu zenean berehala joan ziren, ezagutu berria agurtu ondoren.

Handik ordu erdira, Emiliok, GG ezizenez ere deitua, beste mutil erakargarri bat topatu zuen terraza batean. Bertze batzuekin egon arren, inork ikusi ez zuenean pilula lasaigarri pare bat bota zion edarian eta harremanetan hasi zen. Lagunek bertze nonbaitera mugitu nahi izan zutenean, arte-batxilergo bukatu zuen Mikel izeneko gaztea ustez telebista eta antzerki produktorea zen lagun berriarekin geratu zen hizketan. Gizonak gordelekura eraman zuen mutila. Beranduago, Emilio bere etxera itzuli zen. Ez zen erabat zoriontsua, nahi zuena egiterik izan ez zuelako. Hala ere, lasaiago zegoen. Asierren telefonoa klonatuta, bazuen haren bizitza jarraitzeko modua, baita edozein momentutan entzuteko aukera ere. Arazoa zen zelatatzeak baterian gastu handia sortzen zuela eta Emiliok erabilera mugatu behar zuen Asier ez konturatzeko.

2021eko maiatzaren 15a, larunbata.

Tarteka, GG-k entzuten zituen Asierren solasak. Goiz hartan haren etxe aurrera hurbildu zen. Burlatako parke batean jauregiaren ondoko bankutik begiratu zuen Asierren etxebizitza eta balkoi aldera. Zortea izan zuen eta emakume gazte erakargarri bat ikusi zuen. Asierren arreba zen. Ez zuen zalantzarik izan. Ikusi orduko beretzat nahi zuela erabaki zuen. Asier edota emakume hura gozatu nahi zituen. Behar zituen bizirik eta onik sentitzeko.

Larunbat arratsaldean, Udaltzaingoko Koordinazio eta Delitu Larrietarako bulegoan Ainara Tartas inspektoreordea eguneko parte osatzen ari zen telefono deia jaso zuenean. Ramon Zudaire Foruzain inspektoreak desagertze kasu baten berri eman zion.

–Arratsalde on, Ainara. Gazte baten bila ari gara. Dirudienez arrisku larrian egon daiteke.

–Aupa, Ramon. Parte osatzen ari nintzen. Noiztik desagertu da? Zergatik dago arriskuan?

–Sentitzen dut zure lana luzatzea. Mikel Sadaba, bart gauean desagertu zen. Hemezortzi urte ditu, baina lagunek kontatu dutena arraro samarra da.

–Ongi da! Pasa ezazu informazioa. Bilaketa eta erreskate agindua igorriko dugu eta kalekoei informazioa pasako diegu. Zer da arraro samarra?

–Haren lagunak terraza batetik abiatu zirenean Mikelek erran zien han geratuko zela ezagutu berri zuen lagun batekin, aktoreen ordezkari, zuzendari edo enpresari... –Ainarak ez zuen ulertzen.

–Eta kuadrillako horiek ez al zuten ezer egin? –Zudaire inspektoreak ulertu zituen ia lankidea zenaren zalantzak.

–Bai. Ados nago zurekin. Lagun bat horrela uztea ere! Baina, entzun: gero, laguna “joanda” edo drogatuta zegoela komentatu zuten eta itzuli zirenerako ez zegoen han. Kezkatuta, orduantxe deitu ziguten. Dena den, ez diegu galdeketa egin orain arte. Uste dut arrazoiz kezkatu direla.

Mikel Sadabaren datuak eta txostena pasa zizkieten Udaltzaingoko Larrialdikoei. Ainarak bere lanaldiaren azken ordu erdian parte bete zuen. Garbiñe eta Nikori bilaketa eta erreskate deiak zabaltzeko eta kaleko taldeetarako bilaketa agindua prestatu zuen haren datu eta argazkiarekin.

Gaueko hamarrak baino lehen Ainara Tartasek Manu Elkano taldeko inspektore eta nagusiari deitu zion informazioa pasatzeko. Manuk, bilaketa hasteko protokoloaren arabera, dena behar bezala zihoala ziurtatu zuen eta gaueko txandan haiek ere bila atera zitezela agindu zuen. Larrialdi taldean txanda gertatu zenean Ainarak dena kontatu zion Josema Zunzunegi inspektoreordeari, bere lankideari. Zunzunegik Patxi Sanzoli agindu zion bulegoan guardian geratzeko. Inspektoreordea eta Sara Fernandez atera ziren errondan desagertua bilatzeko. Bazekiten foruzainek zabaldu zutela bertze polizia eta guardia zibilen artean bilaketa-agindua. Azken batean polizia talde anitzek inguru eta eremu desberdin batzuk lantzen baitzituzten, udalerrri desberdinetako udaltzainak kasu. Zibilek ere, nekazal inguruan eta baso-mendietan zuten helburu nagusia. Edonola ere, mutila Iruñean izateko aukera handia zegoen.

Manuk agindu bezala, udaltzaingoko talde gehienek nahikoa lana izanen zuten covid-a zela-eta gazte kuadrillak kontrolatzen eta egoera zailak zirenean erantzuten. Bide batez bilatuko zuten desagertua. Beraiek patruilei gogoratu behar zieten kasua eta aldizka galdetuko zieten. Edonola ere, Mikelen lagunek adierazitakoaren arabera mutilak multzo zaratatsuak baino, bakarka eta jende gutxiko giroak atsegin zituen. Hain zuzen ere, horixe egin zuten beraiek ere: jende multzo lasaiengana hurbildu eta galdetu. Nekagarri suertatu zitzairen aparte ibiltzen zirenei beha egon eta zenbaitetan galdetu. Ezin zituzten bikote guztiak molestatu. Uste baino bikote gehiago harrapatu zuten ekintzan edo zirri egiten eta hirukoteren bat ere bai. Gaua oso luzea iruditu zitzairen. Bilaketa lasai eta adi egitea erabaki zuten eta noizbehinka irratiz udaltzain bikoteekin mintzatzen ziren. Hala eta guztiz ere, ikaragarria izan zen, hainbat botila festa eta neurririk gabeko bilkura izanda, polizia patruilek ezin zuten bilaketa berezia ongi burutu. Goizaldean gautxori gutxiago zebilenean bulegora itzuli ziren, mutilaren arrastorik aurkitu gabe.

Larrialdietarako goizeko txanda Fatima Oloki inspektoreordeak eta Jago Martin-ek egiten zuten. Manu Elcano inspektorea zortzietan agertzen zen eta txandaren bukaeran Ainararekin geratzen zen koordinazioa hobetzeko. Nagusia heldu zenean txostenak begiratuta solasa izan zuen Fatimarekin. Fatima eta Jago udaltzainak atera ziren gauekoek egin zuten bezala. Zaintzan bakarrik geratu zenean inspektoreak Jabier Lopez Astiz Foruzaingoko komisarioari deitu zion. Hark ez zion erantzun eta Foruzaingoko zentralita bidez egin nahi izan zuenean inspektoreorde batek erran zion komisarioak bilera bat zuela eta bukatzean deituko ziola eta halaxe izan zen. Kasuaz eta bertze antzekoez mintzatu ziren agurrak gurutzatu ondoren.

–Jabier, zuk eta Foruzaingoak hainbat zerbitzu, arazo eta ikerketa dituzue. Hala ere, guk azken aldian gazteen desagertze kasu batzuen berri izan dugu, oraingo kasu honetan bezala. Garbi ez dakidana da zergatik eman diozue lehenetsuna Mikel Sadabaren auziari –telefonoaren bestaldean entzun zen zaratagatik ezagun zen Jabierrek pentsatu bitartean hazka egiten ari zela. Minutua edo pasa zen erantzun zuen artean.

–Manu, zuk zeuk ez al duzu zerbait berezia nabaritu?

–Egia erran bai, baina pentsatzen dudana zuk baieztatzea nahi nuke.

–Zer da ba..., pentsatzen duzuna...? Aipatu behingoan! –Manuk zalantza izan zuen, baina uste zuena behintzat erranen zion.

–Ea..., Mikelen lagunek aipatu zuten bezala, gazteak drogatuta zirudien eta harekin itxura oneko gizon bat zegoen... Arraro samarra da justu antzerkiarekin zerikusia zuen enpresari batekin topatzea. Bertze desagertze gehienak arrazoi desberdinengatik izanda ere, ihesak izaten dira. Baina Mikel pozik aritzen zen bere ikasketekin eta gustura zegoen etxean eta lagunekin. Baina gizon dotore hori! –baiezko imintzioa egin zuen komisarioak.

–Horixe da! Lagunek berandu, baina konturatu ziren Mikelek egin zuen “laguna” susmagarria zela, ziurrenez hark drogatu zuela –azkenean Jabierrek berak ezin izan zuen ondorioa gorde–. Barkatu, nire jarreragatik. Zerbait duzu gaineratzeko?

–Bai. Bertze bahiketa saiatze batean itxura desberdinekoa baina gizon “dotore” bat aipatu izan zutela lekukoek. Aurreko astean bahitutako neska koman zen droga gogorrek hartzeagatik, tortura gogorra jasan ondoren. Hasi azare horrelako gaizkilerik bilatzen? Morroi makurra izan behar du gazte horiek bahitzeko edo...

–Bai. Hasi gara hemen eta inguruko polizia zerbitzuetan horrelako gaizkilea bilatzen. “Erretratua” egin diogu, baina ez dakit. Zaila izanen da eta neurri eta modu guztiak landu behar ditugu.

–Hala uste dut nik ere. Gurasoekin mintzatzeko asmoa dut eta ez dut gezurretan ibili nahi. Zerbait egin ahal duten galdetuko didatela ez dut dudarik. Zer iruditzen zaizu... –berriro moztu zion komisarioak.

–Ikertzaile pribatu on batzuei laguntza eskatzea. Ez da hala?

–Berriro asmatu duzu nire pentsamendua. Halaxe da. Ofizialki ezin diegu aholkatu baina beraiek eskatuz gero...

–Ados nago zurekin. Lalak, Jakerrek eta enparauek handitu dezakete Mikel topatzeko posibilitatea. Haiek ibil daitezke guk ezinezko dugun lekuetan. Lala ikertzaile aparta da, Jaker mundu birtualean onena eta beren laguntzaileak oso onak. Bai, nik ere gauza bera eginen nuke.

Gauzak horrela, profil psikotikoa zuten erasotzaile edo bahitzaileak bilatzen hasi ziren. Manu, Mikel Sadabaren gurasoekin mintzatu zen. Haiek baieztatu zuten Mikelez zuten ideia. Mutila EvAU prestatzen ari zen jo eta ke lagunekin eta zoratzen zegoen arte ikasketak eta interpretazioa egiteko. Ez zen gaiztoa, izatekotan onegia, pertsonei gehiegi sinesteko joera baitzuen. Manuk eta Jabierrek aurreikusi zuten bezala gertatu zen. Manuk beraiek eta udaltzainek ahal zutena eginen zutela aipatu zien. Hala ere, beraien legearen mugak, ezintasunak eta zailtasunak azpimarratu zituzten. Gurasoek, zerbait gehiago egitekotan aholku eskaera egin ziotenez, Manu Elkano inspektoreak estraofizialki aholkatu zien gurasoei Lala eta Jaker ikertzaile pribatuei laguntza eskatzea, haiek bilaketetan espezialitatea zutelako, Interneten alegaltasunean mugitzen zirelako eta legediarekin askatasun gehiagoz jokatu ahal zutelako.

Handik ordu erdira Lalak deitu zion Manuri. Informazio guztia erreparatu ondoren, Manuk osatutako txostenak bidali zizkien korreoz. Orduantxe lan-aferaz aritutakoan galdetu zioten elkarri beren bizitzaz. Biak lankideak izan ziren. Manu Elkano eszedentzia luze batean detektibe pribatua izan zen. Jaker lankidearekin lanean zelarik hark sartu zuen Lala lanbide hartan, kriminologia bukatu berrian. Nolanahi ere, beraiekin zuen tratu berezia ez zen fabore arrazoia. konfiantza eta laguntza praktikoko eskea baizik.

–Manu, zer moduz zaudete guztiak? Aspaldian ez gara elkarrekin izan.

–Ongi daude. Miren eta biok ongi gaude, Junek ere EvAU egin behar du eta Mikel adin txarrean dagoela erakusten ari da.

–Sentitzen dut. Ea hurrengo asteetan elkarrekin lasai egoteko aukera dugun!

–Bai. Aspaldian ez gara elkartu, pandemia dela-eta. Zer moduz dago Jaker? –solasa berriro bideratu zuten ikerketaren ildoetara.

–Ongi. Mikelen gurasoekin informazioa erreparatzen ari da. Sare sozialetan Mikelen eta bahitzailearen peskizan hasi nahi du lehenbailehen.

–Lala, kezkarria da hortik bahitzaile zoro bat ibiltzea. Gaztetxoen arazoak gutxi izanen ez balira, orain haiei min egiteko burutik egindako gaixo gaizto bat ibili behar! Ea laster topatzen dugun!

–Bai. Ea egoera onean topatzen dugun! Zerbait aholkatzen ahal didazu bilaketa egiteko? –Manuk uste zuen polizia talde anitzek oinarrizkoa egiten arituko zirela, baina ezer ez zen aski izanen. Pixka bat pentsatu ondoren erantzun zion.

–Zuk badakizu poliziok noraino heltzen ahal garen! Zuek egizue bilaketa bertze modu eta lekuetan. Ziur norbaitek zerbait ikusi duela. Jendearen testigantzarik izanen balitz, pistak izanen genituzke. Bertzela ere, interneten eta sare sozialetan hashtag edo etiketa bat zabaldu egin beharko genuke: “#erasotzaileakiruñean” edo halako zerbait ireki beharko genuke –biek egoera hartan barre urduria egin zuten.

–Txantxa dirudi horrek, baina mila esker, Manu. Horixe egingen dugu... –gizonak bazuen zerbait gehiago aholkatzeko.

–Ez ahaztu bilatzaileak onenak dituzuela. Jakerrez gain, Lontxo, Gorka eta Maite, baita zu zeu ere, kale-ikertzaileak finenak zarete. Tira! Bilatu ezohiko lekuetan!

–Mila esker berriro. Goraintziak Ainarari eta ongi ibili.

–Ez horregatik. Galdetu didazulako, bertzela zeuek gauza bera egingen zenukete eta ziur bertze bide gehiago aurkitu egingen duzuela. Goraintziak Jakerri. Ongi ibili zuek ere.

Bitartean, nabe batean Mikel erdi esna zegoen, koltxoi batean etzanda. Eskuburdinez lotuta zegoela, kateak ez zion uzten hormatik metro eta erdi batera urruntzen. Pixontzi bat eta botila bat ur zeuzkan eskura. Orduko, ia bi egun pasa zituen eta nola! Mozorrotutako gizon batek, tarteka, jateko eman, hitz egin eta, okerrena, fisiko eta psikologikoki zirikatatu egiten zuen. Beti ere, drogatuta egiten zuen. Mutilak ez zekien droga uraren bidez ez ote zion ematen.

## 4 - Mikelen bilaketa

Azken aldian, maiatzaren 10etik aurrera, pandemiaren kontrako neurriak arinagoak izanda ere, nabariagoak ziren horrekin lotutako nerabeen atsekabeak: hainbat kasutan, mozkorren ondorioz larrialdietan artatze gehiago. Beste batzuetan, beren buruaren kontrako erasoak eta buru-hilketa saiakerak handitu ziren. Psikologo eta psikiatren azalpenek mereziko zuten dudarik gabe. Hala ere, polizia, detektibeentzat eta protagonistentzat larriena erasotzaile arriskutsu hura libre jarraitzea zen.

Halaxe, Lala eta Jaker Mikel Sadabaren bilaketan hasi ziren. Lala sailtu zen Manuk iradokitakoa gauzatzen. Nolanahi ere, Jakerrekin hizketan pentsamenduaren logika jarraituz antzeko lan-ildoak aurreikusi zituzten. Arratsaldeko lehen orduan geratu ziren laguntzaileekin.

Bitartean, goizaren bukaeran Asier ikasten zentratzeko, lagun berriak agindu zizkion pilulen bila joan zen aurreko egunean topatu ziren toki berera. Asierrek ez zuen erabateko konfiantza, baina pilulen laguntzarik gabe ziur asko nota kaxkarrak izanen zituen eta Xabirekin hitz eginda biek kontu handiz probatzea erabaki zuten. Germanek pentsatu zuen hobe zela lasai uztea: ez zuen mutila estutuko, are gutxiago bere lagunarekin agertu zenean. German, gizon gazte eta interesgarri baten rola hartuta agertu zen hitzordura. Lasaitasuna, atsegintasuna eta konfiantza sortzen bazekien eta pilulak kontuz hartzeko aholkatu ondoren, alde egin behar zuela adierazita joan zen, mutilak liluratuta utziz. Xabi ere sorginduta geratu zen, gizon harekin laguntasun-harremanak egiteko gogoz.

Ainarak Manurekin hitz egin ondoren antolatu zuen txandako bilaketa-lana. Aurreko txandan Manu Elkano inspektoreak egin zuen bezala, bera ere Delitu Larrietarako bulegoan zaintzan geratu zen momentuko lanak koordinatzeko eta Garbiñe eta Jago bidali zituen hirian zehar bilatzera eta galdetzera. Aurreko txandetan Arga ondoko beheko auzoetan ibili zirenez, Mendebalde, Iturrama eta Azpilagainara abiatu ziren Larrialdi Zerbitzuko udaltzainak. Bitartean, zerbitzu orokorreko bertze poliziaekin koordinatu zuen informazioa. Dena den, zerbitzu hartan antzeko lanak egin zituzten aurretik. Ainarak azken aldiko antzeko kasuen txostenak aztertu zituen.

Kasu batean, bi aste lehenago, Maia izeneko hamasei urteko nerabea lagunak utzi ondoren etxera bidean zelatatuta sentitu zen. Larunbat batean gizon dotore batek bahitu nahi izan zuen eta kasualitatez libratu zen. Plazako banku batean lagunekin freskagarriak edaten ari zirela, ezustean gizon bat agertu eta botilatzarra hartuta, hura usaindu eta alkohola arriskutsua zela erran ondoren, hasi zitzaien aholku merkeak ematen. Handik gutxira gehien edan zuen Maia gaixorik sentitu zen eta gizon erakargarriak ospitalera eraman nahi izan zuen. Eskerrak lagunek ez zuten onartu. Sarkina uxatuta eta ambulanzia deituta artatzea lortu zuten. Ospitalean analisi bat egindakoa GHB eman ziotela ondorioztatu zuten. Poliziek gizon haren peskizan, itxura ederra eta dotoreaz aparte ez zuten inongo pista garbirik, txanoa, musukoa eta betaurreko beltzak zituelako. Txostenean psikologo batek adierazi zuen gaixoa beldurrak jota zegoela eta artatzen jarraitu behar zutela. Bertze kasu batzuetan ere antzeko erasotzaile bat agertu zen, bakarrik ekiten zuena.

Detektibe pribatuek bilera antolatu zuten beren laguntzaileekin. Bulegoko gela nagusian Lala eta Jaker lan-mahaiaren atzean eseri ziren, ez nagusi bezala agertzeko, interneten eta ordenagailuetan informazioa eta txostenak errazago begiztatu ahal zituztelako. Gorka eta Lorentxo lehenago agertu ziren eta Maitek bere lagun Lurdes eraman zuen, hau bilaketa kasu batzuetan beraiekin lan egin zuelako. Edalontziak, frutu lehorrak, kafea, esnea, ura eta garagardoak atera zituzten erdiko mahai handira eta nork bere edaria hartuta sofa eta aulkietan eseri ziren.

Lalak, Mikel Sadabaren kasua aurkeztu zien, ordenagailutik pantaila handi batean txostena eta argazkiak erakutsiz. Bazekiten poliziek bilaketari lehentasuna eman ziotela eta errutinazko ohiko lanez gain ahal zutena egiten zutela. Denek iritzia eman zuten eta erabaki zuten Jakerrek eta Lalak internet eta sare sozialetan lan egiten zutela, koordinazioa gauzatzeaz gainera. Bestalde, poliziek bilatuko ez zuten lekuetara binaka joanen ziren. Gorka eta Lorentxo batetik eta Lurdes eta Maite bertzetik ibiltzen ziren askotan eta ongi moldatzen ziren jende artean bilatzeko. Lalak, azken aholkuak eman zizkien bi bikoteei.

–Lontxo, ekarri al dituzue motorrak? –honek momentuz ez zuen ulertu zergatik galdetzen zion hura, normalean horrelako bilaketetan berak eta Gorkak motor bana eramaten baitzuten.

–Bai. Zergatik diozu?

–Arin mugitu ahal izateko. Horrela, errazago egiten ahal duzue bilaketa. –Gorkak ere ez zuen ongi ulertu galdera.

–Lala, badakizu normalean eta are gehiago bilaketarako motorrak ekartzen ditugula. Zerbait berezia al dago bilaketa honetan?

–Horixe da kontua. Ez galdetu zergatik, baina kasu honetan bahitzailea, argia, aldakorra, arriskutsua eta ustekabeak ematen ahal dizkiguna dela uste dut. Nik proposatu behar dizuet bikoteka tokietaraino bertaraino, lokaletaraino, motorrekin heldu eta prest izan behar duzue ihes egiteko edo arin atzetik abiatzeko.

–Ultergarria da bai. Nondik hasiko gara? –galdetu zuen Lurdesek.

–Manurekin adostu genuen etxe eta tailer abandonatuetan begiratzeko. Pantailako hiriko planoan seinatu ditugu inguru bereziak. Zuek aukeratu nondik hasiko zareten elkarrengandik urrundu gabe –denak ados ziren, baina Maitek zalantza bat zuen.

–Nor norekin ibiliko gara? –Lalak oso argi adierazi zuen.

–Ez da ezergatik, baina bilaketa honetan neska-mutilak bikoteka arituko zarete. Uste dut gizonok trebeagoak zaretela motorrekin eta bikote tipikoak osatuz arinago eta disimulu gehiagoz arituko zaretela. Lontxo, zu Maiterekin ibiliko zara eta Gorka, zurekin Lurdes. Horrelako emakume-gizon bikoteak errazago ibiliko zarete. Ados al zaudete? –denak konforme, lanaldi luze eta aspergarri baterako prestatu ziren.

Iparraldetik hasi zuten bilaketa. Udaltzainak ez bezala haiek Iruñetik atera ziren eta N-240A Añezkartik, Berrioplano eta Berriozar arteko Industria poligonoetan begiratzeko ibili ziren. Ezer berezirik ez ikustean, Ezkaba magaleko leku abandonatu edota urrunetan jarraitu zuten bilaketa eta azkenean Burlata, Atarrabia, Arre eta Uhartera mugitu ziren. Okupatzaile edo botiloi batzuk topatu zituzten, baina modu onez lagun baten bila zebiltzala esan ondoren eta argazkia erakutsiz ez zuten pistarik topatu.

Motorrez arin mugitzen baziren ere, hiru ordu emanda atseden egin zuten mokadu eta garagardo bana hartzeko eta Argaren ingurutik berriro egin zuten ekialdetik mendebaldera. Trenbidearen ondoan aspaldiko etxe asko bota zituzten eta orduan ez zen etxe abandonaturik. Sanduzelain Gridilla etxeak bota zituzten bi aste lehenago eta han ez zen obra-kontainer batzuk baizik. Haietan begiratuta, Orkoien eta Landabengo gunetan begiratu zuten. Iluntzen ari zuen eta berriro geratu ziren.

Hurrengo arratsaldean, Gaztelu plazako bulegoan elkartu ziren Lala eta Jakerrekin. Miaketetan hartu izan zituzten argazkiak pasa zituzten egindakoa badaezpada erreparatzeko. Lalak aipatu zuenez bertze poliziek, bilaketa horretan lanean ari zirenak behintzat ez zuten arrastorik topatu. Foruzainek eta udaltzainek ere bertzelako lanak egiteaz aparte ibiliak ziren Mikelen bila. Jakerrek ez zuen pistarik aurkitu sare sozialetan: bertze hacker batzuek ere bilatu egiten zuten. Sare sozialetan zerbait aipatzen zuten bahitzaileari buruz eta Jakerren lana, horri buruzko informazioak kontrastatzea eta profil bat osatzea izan zen. Orduko, aipatzen ahal zutena zen adin ertaineko gizona zela, ordura arte dotore janzten zuela, mozorrotzen zela eta jendea manipulatzeko zekiela. Bi kasutan neska eta mutil gazteak drogatuta zituen eta bat torturatu ondoren koman utzi zuen. Psikologo eta psikiatrekin kontsulta bat egin behar izanen zuten.

Taldeko guztiek, bilaketa jarraitu baino lehen pizza batzuk eskatu zituzten eta afari goiztiarra egin ondoren deskantsatzen egon ziren une batez beraien laguntasuna berretsiz. Denek hogeita hamahiru urte ingurukoak eta edozeren gaintik lagunak ziren. Kafea hartutakoan bi bikoteek hiriaren hegoaldera atera behar zuten, Lalak eta Jakerrek beren lana bulegotik operatiboa koordinatzen zuten bitartean.

Etxabakoitz hegoaldean Argal lantegia eraitsi zuten tren-geltoki berriko eremu zabala prestatzeko. Dena den, inguru hartan itxitako industria-nabeak, etxe zaharrak, biltegiak eta hornitegiak han gelditu ziren. Eremu hartan etxegabeentzako toki bat baino gehiago topatu zuten eta galdetu ere egin zieten hango biztanle bati baino gehiagori. Hala ere, leku isolatu askotan ibili ziren gordeleku posibleen bila.

Gorkak eta Lurdesek, neke-neke eginda bilaketa uztekoan zirenean, aspaldian itxitako tailer batean, norbaitek giltzarrapo berri bat jarri zuela nabaritu zuten. Gorkak han ezkutukorik izan zitekeela pentsatuz Maiteri deitu zion denok elkartzeko eta babes gehiago izateko. Lurdes trebea zen eskalatzen eta bertzeen laguntzaz goiko leihatiletatik begiratu zuen. Han zerbait arraroa nabaritu zuenez, Lontxok zizaila baten bidez giltzarrapoa apurtuta, denak barnera sartu ziren kontu handiz.

Esku-argiak erabili zituzten han topatu zituzten makina zaharrak, tramankulu eta gauza pilen artean miatzeko. Lurdesek eskatu zion besteei atzealdean kutxa batzuen atzean begiratzeko eta halaxe Mikel gaztea topatu zuten koltxoi baten gainean lotuta eta drogatuta. Esmatzeko egin zutenean mutilak erdi esna laguntza eskatu zion. Ez zuen zauri handirik baina ez zegoen ongi. Mozkor handia balu bezala ia ez zitzaion ulertzen ahoskatzen ari zena: mesedez askatzeko eta handik joateko eskatu zion behin eta berriro. Motorrez eramateko zailtasuna zela-eta, badaezpada anbulantziari eta Udaltzaingoko Larrialdi Zerbitzuari deitu zieten. Lala eta Jakerri ere abisua pasa zieten. Minutu gutxitan sorosleak, poliziak eta detektibeak agertu ziren. Mikel tailerretik kanpora eramanda artatzen zuten bitartean, Ainara Tartas inspektoreordeak eta Lalak miatu zuten lekua. Ainarak froga fisikoak poltsetan gordetzen zituen bitartean Lala mintzatu zitzaizen bertzei:

–Mosedez, ez hurbildu koltxoi horretara eta kontuz ibili pistak ez ezabatzeko. Argitasuna behar dugu eta... isiltasuna –han zirenek kasu egin zioten detektibeari. Udaltzain taldeko burua zen Ainara Tartas inspektoreordeak ere eskertu zion laguntza.

–Lala, mila esker. Berriro ere zuen lanari esker lortu dugu bilatzen ari ginena topatzea. Lagin batzuk hartu ditut, baina uste dut gaizkileak neurriak hartu dituela. Lala, zer ondorio atera duzu Mikelen bahiketaz?

–Hasteko, uste dut Mikelek drogatuta pasa duela denbora guztia. Lotuta ere saiatzen ahal zen bere burua askatzen eta ez du egin. Bahitzailea behin baino gehiagotan etorri da jan-edaria ematera eta garbiketak egin dizkio. Komuna txiki eramangarria utzi du koltxoiaeren ondoan... Ez dakit oso ongi zer egin dion bisitaldietan... –Ainarak ere zerbait komentatu zuen.

–Bat nator zurekin. Mikeli galdetuko diogu ea zerbait kontatzen ahal digun, baina ez diot zauri handirik nabaritu. Bahitzaileak erdi biluzik eta manta batekin uzteak erran nahi du batetik garbi mantendu nahi zuela eta bertzetik kontaktu fisikoa bilatu duela, sexualki erabiltzeko edota minik egiteko. Ez dakit.

–Konturatzean al zara esku-burdinez eta kate batez lotu duela hormara? Zer ondorioztatu daiteke? –galdetu zion Lalak.

–Horrek erran nahi du lotuta, baina mugimenduak egiteko libre utzi nahi izan duela... –udaltzainak etena egin zuen. Zalantzan zegoen eta Lalak jarraitu zuen ondorioak ateratzen.

–Gizon dotoreak ez du zikinkeria maite, nahiz eta leku hau hautsez beteta egon –erran zuen, bertzelako ondorioak adierazi baino lehen–. Bestalde, gizona odol-hotza da. Badaki bere burua kontrolatzen, baita drogak neurrian ematen.

–Uste dut oraingoz ezin dugula ezer gehiago egin. Buka dezagun lana, bihar jarraitu eta lasaiago hitz eginen dugu –adierazi zuen Ainarak nekatuta. Dena den, Lalak zerbait garrantzitsu aipatu zuen.

–Imajinatu egiten dut orain polizia buruek erabakiko dutela Mikeli gertatua isildu edo publikoki zer adieraziko duten. Nolanahi ere, nik izanen den bilerara joan nahi nuke. Ainara, luzatuko al zenieke nire eskaera inspektoreari eta foruzain-komisarioari?

–Lala, badakizu Manuri ez diola axola zu han egoteak, baina ezin dizut ezer aurreratu komisarioak onartuko ote duen... –Lalak moztu zion.

–Ainara, badut arrazoi bat jakinaren gainean izateko: bahiketa eta erasoen kontu hau ez da bukatu. Psikopata horrek oraindik lana emanen digu eta nik, poliziokin ados, jakin behar dut nola jokatu.

–Hain garbi ikusten duzu psikopata batek ezegitekoak egiten jarraitu behar duela? Gure inguruan psikopata beldurgarri bat dabilela diozu? –galdetu zuen Ainarak.

–Bai eta bai. Ez izan dudarik!

Momentu hartan berean Saioa gazte burlatarrak utzi zituen lagunak, etxera joan balitz bezala. Tabernak itxi behar zituzten eta itzuli txiki bat egin ondoren bere amorantearekin elkartzeko zen. Emakumeak ez zekien nola sortu zen harreman hura. Bat-batean sorginduta eta borondaterik gabe sentitu zen gizon harekin, plazerrik handiena sumatzearen ondorioz. Dudarik gabe, harrarazi zizkion drogek zerikusia zuten horretan. Axolagabetasun eta atseginik handienak sentitu zituen aurrekoan eta berriro behar zuen plazer hura. Jakin, bazekien menpekotasunean edo, gutxienez, sorginduta zegoela. Gizona erakargarria eta ederra zen, baina ez zen hori: atseginarekin batera haren izaera beldurgarriak kentzen zizkion berari borondatea eta lasaitasuna. Hark ez zuen amaiera onik izanen eta guztiz kontziente izanda ere, ezin zuen ezer egin. Gaurik miresgarriena eta beldurgarriena pasa behar zuen.

## 5 - Gazte batzuen ametsak eta errealitate gordina

2021eko maiatzaren 16a, igandea.

Egun hartan adin ertaineko Patxi goiz mugitu zen. Gizon argal eta gihartsua zen. Paseo luzea egitera atera zen gosalduta gabe, hasieran egunaren ederraz konturatu gabe. Burlatetik Magdalenako zubiraino kilometro batzuk eginda lasaiago, landa eta landarediaren bizitasunak eta zeruaren argi-edertasunak naturara eta mundura irekitzera bultzatu zuten gizona. Freskotasuna dastatu eta arnastu zuen sakonki. Iruñeko atari ederrera heldu eta une batean arnasa eta ongizatea berreskuratu zituen. Erreka ondoko iturritik edan ondoren itzuli zen etxera eta mundura. Etxera heldu baino lehen ogia, egunkaria eta kruasanak erosi zituen berak eta seme-alabek gosari ederra egin ahal izateko. Arantza lanean zegoen eta ez zen eguerdira arte agertuko.

Saioa buruko minez esnatu zen. Aurreko gaua gogoratu zuen. Ez zuen horretan pentsatu nahi. Lo gutxi eginda ere, arin altxatu zen. Komuna txikitik pasa ondoren sukaldean sartu zen gosaltzera. Kafea prestatuta eta bero zegoen. Aita, festa egunetan ohitura zuen bezala, itzulia eginda, ogia, egunkaria eta kruasanak erositak, dutxatzen ari zen. Gazteak aurreko eguneko ogia txigortzen utzi zuen eta kafeari esne tanta pare bat bota zion katiluari. Plater batean ogi txigortua utzi eta marmelada hartu zuen. Aita agertu zenean elkar agurtu eta gustura gosalduta zuten irratia entzuten zuten bitartean.

Igandero bezala osasun eta pandemiari buruzko azken berriak entzun zituzten, haietako batzuk baikorrak. Amerikako Estatu Batuetan musukoa kentzea baimentzen ari ziren, leku itxi eta garraio publikoetan izan ezik; Bizkaiko adineko egoiliarak kalera ateratzen ari ziren eta bisitak izan ahal zituzten. Pandemiaren datuak azken egunetan baikorragoak ziren, positibo gutxiagorekin. Ospitaleetan, osterak, ez ziren gaixoak gutxitzen. Donostia Ospitaleko Larrialdietako zerbitzu-buruak, guardia bukatutakoan, labur azaldu zuen astean zehar osasun-langileek bizi izan zutena: gaua lasai joan zen, baina astea oso gogorra izan omen zen. Egunero hildakoren bat izatea gogorra egin zitzaion. Larrialdietako buruak adierazi zuen pena izan zela larrialdi-egoera bertan behera utzita, jende elkarketak neurririk hartu gabe egin izana. Bereziki leku itxietan kontuz ibiltzea aholkatu zuen.

Saioak bukatu zuen gosaria kruasan erdi bat eta esne gehiagorekin. Dutzatu baino lehen, loaren lorratzak kendu baino lehen, balkoira atera zen paisaiari begiratzera. Erripak, Beloso eta Argaren inguruak ikusi zituen udaberri eder hartan. Goian Iruñea ez zen sumatzen. Arnasa sakon hartu zuen lasaitu beharrean. Buruko mina arinduta barnera sartu zen. Etxean ez zen mugimendurik nabari. Ama lanean zegoen, aita gelan eta Asier lotan izanzen ziren. Aita bazkaria prestatzen hasi bitartean lasai egonen zenez, ariketa fisiko batzuk egin eta dutxatutakoan lan batzuk aurreratzea pentsatu zuen Saioak. Dena den, lasaiago egin ahal izateko Mireni deitu behar ziola pentsatu zuen.

Dutxatu eta eramangarria prest, egongelako bere txokoa antolatu zuenean deitu behar zion Mireni, bere lagun minari. Dena den, zalantza zuen zer kontatu.

–Kaixo, Miren. Egun on. Esnatu al zara?

–Egun on, bai. Justu-justuan. Zergatik deitu didazu hain goiz? Atzo berandu agurtu genuen elkar eta ez zeunden oso pozik. Zer gertatu zitzaizun?

–Begira, Miren: lanean hasi baino lehen, atzo gertatu zitzaidan gauza bat zuri kontatzeko beharra daukat –eten egin zuen hizketa. Zer erran ahal zuen? Mirenek galdetu egin zion.

–Saioa, badakit Andonirekin mintzatzen aritu zinela. Zer gertatu zen? –Saioak nola kontatu pentsatu zuen. Ez zuen argi zer kontatzen ahal zion. Bertze hura ez.

–Ez duzu sinistuko, baina berarekin Abu Dhabi-ra joatera gonbidatu ninduen.

–Zer? Elkarrekin bizitzeko? Zuek ez duzue oso harreman finkoa! Nola planteatu dizu?

–Nik ez dakit oso ongi. Uste dut berak ere ez dakiela zer nahi duen. Momentuz, berak pentsatzeko erran dit. Irailean joanen da Arabiar Emirerri Batuetara eta han gutxienez urte batez bere enpresako arkitekto arituko da –lagunak ez zuen horrelakorik espero.

–Eta zu prest al zaude abentura horretarako? Zuk zer egingen duzu?

–Ez dakit oposizioekin zer gertatuko den. Han ingeleseko irakasle bezala dirutza irabazten ahal dut. Dena den, musulman ertsiko jendarte batean bizitzeko proposamena ez zait oso erakargarria egiten, baina hemen ez dakit etorkizun garbia dudan. Urte pare baterako abentura bat litzateke. Makurrena da Andoni laguna eskubideekin baino ez dudala ikusten. Iraila baino lehen erantzun behar diot. Momentuz oposizioak eta oporrak ditut aurretik eta irailerako jakinen dut zein den nire lan egoera –Saioak zalantza izan zuen gehiago kontatu ala ez. Isilik nabaritzean, Mirenek, laguna nekatuta zegoela pentsatuta, solasa eten eta agurtu egin zuen.

–Saioa..., nahi baduzu gauean jarraituko dugu kontu honekin. Bestela, bihar geratzen ahal gara arratsaldean zerbait hartzeko.

–Primeran. Deskantsatu eta bihar arratsaldeko zazpiak aldera geratuko gara. Ados?

–Bai, ongi. Bihar arte.

–Aio, Miren.

Ezin izan zion lagunari bertze arazoa kontatu. Berak ere ia ezin zuen sinetsi zer nolako aferatan sartu zen. Nolanahi ere, egun gutxitan erabaki behar zuen. Gauean ezkutuan topatu zuen bere “laguna” urduri zegoen eta larrua jo ondoren jokaera arraroa nabaritu zionez harengandik libratzeko aitzakia bat asmatu zuen bertan uzteko.

Egun hartan Saioak institutuko lana prestatu behar zuen eta denbora izanez gero oposizioetako gaietan aurreratu. Gero eta hurbilago zegoen programazioak aurkezteko eguna: maiatzaren 29a. Lan hura egin bazuen ere, azken berrikusketa egin behar zuen, bi aste eskas geratzen baitziren. Eguerdian aitak ia prest zuen bazkariko bigarren platera: solomua patata eta barazkiekin labean egin berria zuen. Saioak entsalada anitz goxoa prestatu zuen. Berari gustatzen zitzaion bezala, ongi txikitutako letxu, azenario, atun eta tipulari maionesa arin batekin ongi nahasita. Gaietan, pikillo piper puskak, zainzuriak eta aitari egosten jartzeko eskatu zizkion arrautza egosi erdiak ongi kokatu zituen. Hura zen Saioaren entsalada; etxeko bertzeek beren gustuko gauzak jartzen baitzituzten. Horrela denek zuten entsalada egiteko gogo. Etxeko marka zen norberaren gustuko entsaladengatik lehiatzea. Bazkaltzen hastean, Asierrek galdetu zion arrebari:

–Zer egin zenuten atzo? Guk lagun baten etxean egin genuen festa bat. Txintxoak izan ginen, baina berandu egin zitzaidan eta gaur ezin izan naiz altxatu... –Saioak anaiari publikoki bertzeon bizitzan ez sartzen erakutsi behar ziola pentsatu zuen.

–Zure antzera ibili ginen. Hala ere, ez dut kontatzekorik. Bilatu bertze solasgai bat interesgarriagoa, mesedez. –Lanetik agertu berritan, amak giroa ikusita, erran beharrekoak erran zituen.

–Ez kontatu nahi ez baduzue, baina atzo gauean alkohol eta pilulekin intoxikatu batzuk sartu ziren larrialdietan. Kontrolik gabeko festa batean ibilitakoak ziren gehienak. Kontuz ibili. Zuek biok eta zu Patxi ez baitzaudete txertatuta –eten egin zuen erretolika une batean. Isilik jarraitu zuten bazkaltzen–. Lasai. Ez dut gehiago aipatuko.

–Bai, hobe ez jarraitzea... –Patxi ez zegoen umorez edo bai, baina bazekien betiko gaiari buruz mintzatzeak denen aldartea ozpinduko zuela. Minutu pare bat pasa zuten isilik sardexka eta aiztoen soinua baino entzuten ez zutela.

–Orduan, betiko gaiaz eta gure bizitzaz mintzatzen ez bagara zertaz hitz egingen dugu? –burugorria mutila. Bertzeek pentsatu zuten hobe zeudela ahoa itxita. Mutilak, ordea, gogoan zuten mintzatzeko.

–Entzun dut judutarrek eta palestinarrak borrokan ari direla –Saioak ezin izan zion eutsi errandakoaz zerbait komentatzeari.

–Nabari da “Enpresariales” ikasten ari zarela, zientziakoa zarela. “Judutar” izena edo adjektiboa kultura eta erlijio kontzeptua da. Israel aipatu behar duzu estatuaz mintzatzeko, edo israeldarrak populazioa –luzatu zion Saioak.

–Aizu, ni Data Zientziak eta ADE “Administración y Dirección de Empresas” ikasten ari naiz eta ez “Enpresariales” –Saioa gustura sartzen zen anaiarekin.

–Eta uste al duzu “director” izango zarela? Faborez!

–Enpresa batean zuzendaritzan izanen naiz, behinik behin –Patxi tartekatu zen moztu nahian.

–Niri, oso larria iruditzen zait Israelek Gaza bonbardatzea. 126 pertsona hil dituzte Gazan, gehienak zibilak eta asko haurrak. Bitartean, Hamas-ek 9 hil ditu Tel Aviv-en bonbak jaurtiz.

–Palestinarrak eskubidea dute defendatzeko! –izan zen Asierren nolabaiteko justifikazioa. Arantzak, haserre, erantzun zion.

–Iruditzen al zaizu normala dela bonbardaketak bonbardaketekin erantzutea? Palestinarrak bonbardaketak, hildakoak izan eta beren agintari burugorriak jasan behar dituzte.

–Israeldarrak hasi ziren eta palestinarrak erantzun egin dute –mutil gazteak ez zuten iritzirik bat ere aldatuko. Isiltasuna egin zen bigarren platera banatzen hasi ziren arte. Momentu batean aldatu zuten gaia. Arantzak bere gurasoen berri eman zien.

–Amatxik deitu dit ea hurrengo asteburuan haiengana joanen garen galdetzeko. Eskatu dit larunbat goizean agertzeko. Aspaldian ez ditugu bisitatzen eta aitaxi Pelloren urtebetetzea da larunbatean berean –Patxik baieztatu zuten asmoa.

–Haiek eta zu, Arantza, txertoarekin babestuta zaudete eta garbitasun neurriak mantenduta denok pasa dezakegu asteburu polita. Zer iruditzen zaizue? –Asierrek eta Saioak ez zuten hura espero eta segundo batzuk behar izan zituzten erantzuteko. Mutila izan zen erantzuten lehena.

–Nik sentitzen dut, baina azken azterketak prestatu eta lan bat aurkeztu behar dut astelehenerako. Sentitzen dut. Aitona Pelloarekin eta amatxirekin egoteko gogo handia dut, baina ekaina arte ezin izanen naiz inora joan –Saioa antzera mintzatu zen.

–Nik ere lana dut, ostiralean behintzat. Gero, asteburuan zehar oposizio-gaiak ikasi behar ditut... –  
Arantzak gehiago zehaztu zuen egonaldia.

–Nik ortzirale gaueko txanda izanen dut eta nire asmoa da larunbat goizean herrian agertzea eta igandean bazkalostean hona itzultzea. Patxi eta biok joanen gara. Zuk, Saioa, pentsatu ongi. Aitatxi-amatxik ikusi nahi zaituztete. Saioa, nahi baduzu gonbida dezakezu Miren. Jantokiko mahai handian distantziak mantentzen ahal ditugu eta giroa aireztatzen ahal dugu –Saioak erantzun zion.

–Nigatik joanen nintzake. Mireni komentatuko diot eta bihar erantzunen dizuet ziur.

Eguerdian, Ainarak Lalari deitu zion, aurretik geratu ziren bezala, Mikel Sadabaren egoeraz eta ikerketaren bilakaeraz mintzatzeko. Lehenengo informazioa izan zen Etxabakoitz hegoaldeko lantegian bertze inor ez zela agertu. ADN laginak hartuta ere denbora luzez ez zuten emaitzarik jasoko. Bertzelako aztarnetan ez zuten hatz-marka berezirik topatu mutilarena ez bazen. Bertzetik, ordu asko pasata, esnatuta izanda ere, mutilak burua nahasirik zuen eta ez zuen zentzuzko gauza handirik erran: behin eta berriz errepikatzen zuen gizon maskaraduna gaiztoa zela, etorriko zela eta gordeleku bat bilatu behar zutela. Gizon hari zerbait ikusi ote zion galdetuta, pista izan zitekeen gauza bakarra tatuaje bat zuela izan zen. Momentuz ez zekiten tatuajea nolakoa zen, mutila buklean baitzen. Ondorioztatu zuten mutila bortxatu zutela eta zauririk ia izan gabe, tratu txarrak eta kolpeak jasan zituela. Bi lagunak kezkatuta zeuden. Nolanahi ere, Lalak jakin-min handia zuen polizien planei buruz.

–Ainara..., zerbait aipatu dute polizia-buruek? Zer plan eraman nahi dute aurrera? –Ainara gaixoa errudun sentitu zen, Lalaren galdera hain zen... ulergarria!

–Sentitzen dut Lala, bihar eguerdian elkartuko dira. –Lalak ulertu zuen lagunak ezin ziola gehiagorik kontatu.

–Barkatu. Zuk ez duzu errurik... Dena den, esaiezu mesedez psikopata horren bilaketan guk parte hartu nahi dugula..., ezer kobratu gabe –Ainarak egingo zuela baieztatu zion lagunari.

Saioak arratsaldean oposizioko gai batzuk begiratu zituen gainetik. Paulekin gaiak behar bezala osatzen ari zen eta hilabete oso batean lan ikaragarria zuen. Gaiak aparte, maila batean eta ikasle tipologia batekin berak sortutako programazio zehatz bat eta unitateak ongi borobildu behar zituen oposizioen aurretik, data batean aurkezteko eta azkeneko ahozko proban unitateak nola landuko zituen defendatzeko. Gai pare batean aztertuta zuzenketa batzuk idatzi ondoren aurrera egin ezinik geratu zen. Urduri eta gaizki sentitzen zen. Gustura kontatuko zion Mireni GG-rekin izandakoa. Saioa haserre zegoen bere buruarekin. Gizonak zer pentsa eta zer egin nahiko zuen jakin izan balu, berak errazago erabakiko zuen. Dena den, ez zuen sinetsi nahi gertatu zena eta are gutxiago berak egin zuena. Ongi pentsatu behar zuen aurrerantzean zer egingen zuen, baina ez zen gauza sentitzen ezer erabakitzeko. Egun batzuk zituen aurrera ongi pentsatzeko. Baztertu behar zuen gaia, ez obsesionatzeko, gurpil zoroan ez erortzeko. Ia arratsaldeko 9ak ziren. Gurasoak kanpoan ziren: ziur zerbait hartzera atera zirela. Hozkailuan begiratu zuen. Ez zuen gustukorik ezer aurkitu eta gazta puska ederrak ebakita, ogi-artean hartu zuen ardo pixka batekin. Ondoren, sagar bat hartuta afari-merienda burutu zuen. Dena jaso zuenean Asier agertu zen agurtu gabe, gauzak pasabidearen erdian utziz. Ondoren hozkailutik jakiak mahaira atera zituen. Denetarik jan zuen nahasian, eskuz, eseri gabe eta jandakoan goxotasunezko murmurioak eginez. Arrebak lasai jateko eta gero dena jasotzeko eskatu zion sukaldea hankaz gora utziko zuen beldurrez. Saioa, baso bat ur hartuta egongelara joan zen poesia liburu bat eskuetan. Patxadan denbora eman nahi zuen gurasoak agertu eta agurtu ondoren logelara joateko.

2021eko maiatzaren 17a, astelehena.

Saioa oso goiz esnatu zen. Emakumeak garaiz heldu nahi zuen ikastetxera ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Leioa ireki zuenean udaberriko egun argitsua sentitzean mendira joateko gogoia piztu zitzaion. Hala ere, lanean ekin beharrak aginduta lanerako prestatu zen. Autobusean ohi baino jende gutxiago zebilen eta gustura begiratu zituen Belosoko paisaia eta etorbideetako jendearen joan-etorriak. Hiriko erdialdetik beste billabesa hartu beharrean Takonera eta Larraina parkeak oinez zeharkatuz hurbilduko zen lantokira, Biurdana institutura. Udaberriko giro epela eta zuhaitz-lorategien koloreak usaimenetik nabaritzen zituela iruditu zitzaion. Berdearen freskuraz eta loreen urrinez bete zituen birikak. Takonerako begiratokian gelditu zen une batez Arga errekarari eta Trinitariosi begira. Jarraitu zuen paseoan eta konturatu gabe Larrain aldapa gurutzatu eta Anaitasunaren atzetik jaitsi zen lantokira.

Ikastetxean hutsik zegoen mintegia. Klaseak orduan hasita, ia ordu osoa izan zuen erabiliko zuen materiala prest izateko. Memoria Flax-ean dena ongi antolatuta, kafe bat hartu zuen makinatik. Bizkor edan zuen pixalarrria sentitu zuen-eta. Komunetan Nerea euskara-irakaslearekin topatu zen. Bien gaia, azken aldian behintzat, oposizioa zen eta elkarri animoak eman ondoren nor bere eginkizunetara mugitu zen.

Saioari klaseak gogorragoak egiten zitzaizkion astelehenetan, ikasleei gogorrek zitzaizkien bezala. Egun hartan “reading” batekin loturiko ariketa eta guztion arteko solasa prestatu zituen eta klasea bukatzeko “Tintinen abentura” atal bat marrazki bizidunetan ikusi eta jarraitu zuten. Eskerrak DBHko taldeetan maila berdintsua izaki ariketak errepikatzen ahal zituen! Arratsaldean Paulekin aritu behar izanen zuen oposizioko gaietako apunteak antolatzen eta norberak bertzeari programazio zehatza erakutsiko zion antolamendua aztertzeko eta hutsuneak osatzeko. Egun hartan klaseak berandu bukatzen zituenez mintegian bertan bazkaldu zuen entsalada-ogitarteko bat, berari gustatzen zitzaion entsaladaren antzekoa.

Gurasoak bazkaltzen ari ziren bakarrik. Biek laneguna bukatuta lasaiago aritu ziren anana-entsalada eta aurreko eguneko solomoaren soberakinak jaten. Eguneko gora-beherak komentatu ondoren irratiko berri lazgarria entzun zuten: gatazka berriro berpiztu zenetik bonbardaketek zaurituz gain berrehun bat hildako utzi zituen palestinarren artean eta hamar bat Israelen. Nazio Batuen Erakundean bakerako deiek ez zuten inolako oihartzunik Israelgo ordezkariengan. Netanyahu zioen erasoak erantzun eta hildako guztiak mendekatuko zituztela. Hamas-ek ere bere indar guztiez defendatuko zirela adierazi zuen.

Biak triste jarri ziren. Beraien bizitzako ezusteak ez ziren ezer bertze batzuen trajediarekin konparatuz. Isilune baten ondoren barne sentimenduak eta pentsamenduak konpartitu zituzten.

–Arantza, ezin dut imajinatu zer izanen den bonbardaketak inguruan lehertzen ari direla bizitzea. Alegia, zer bizitza mota izan daitekeen. Nolako amets gaiztoa! –Arantzak baietz egin zuen. Imajinatzen zuen.

–Imajinatu egiten dut zer den bonbardaketen beldur bizitzea eta gainera... gabeziak, gaixotasunak eta emakumeen kasuan gizonen eta erlijioaren zapalkuntza jasatea. Ur hornikuntza faltagatik hasita, erradazu nola bizi diren erlategi haietan... eta emakumeek eta neskek jasaten dituzten gaineko baldintza txarrak –Patxik orduan tristura handiagoa sentitu zuen.

–Arrazoi duzu. Gerra eta heriotzaz gainera munduko ezbehar guztiak jasan behar dituzte emakumezkoek. Gizonak eta mutilak kalera ateratzen dira lan bila edo zerbait “inportante” egitera. Beraien emakumeak, ordea, askotan etxeko betebeharrak eta beteezinak dituzte haurren eta ezinduen zaintzarekin. Ikusi izan dut erreportaje bat Gazako egoeraz gerra ez denean eta ikaragarria da, baina zer egin dezakegu?

–Lagundu, mobilizazio eta larrialdiko laguntzekin. Bertzela, dirua herrialde arabiar aberatsek ematen diete politikariei eta miliziei, gehienetan bonbak erosi ahal izateko.

Une batean, bikotekideek isilik bukatu zuten bazkaria indarrak bildu eta eguneroko gauzei ekiteko esperantzarekin. Dena den, Arantzak bazuen bertzelako kezka bat eta adierazi zuen.

–Saioa oso arraro jokutzen ari da. Zuri zerbait kontatu al dizu? –Patxik ezetz egin zuen buruaz. Gogoratu zituen harekin izandako solasak.

–Ez dakit zer erran. Orain arte ongi ikusi dut. Azken egunetan, bai, isilik eta triste ikusi dut. Pentsatu dut lanez gainezka dabilela. Betiko lana eta oposizioekin ez duela atsedeen handirik... Animatu behar genuke –Arantzak ez zuen berdin ikusten.

–Nik zerbait gehiago sumatzen dut. Espero dezagun dena hobetzea!

Etxera heldutakoan, denbora batez Saioa aurreko asteko idazlanak zuzentzen aritu zen, lagunarekin gustuko tabernan elkartu baino lehen. Gauerako, afaldu aurretik eta ondoren ordu pare batez ikasi behar zuen. Mirenekin elkartu zen taberna baten terrazan. Kaña bana eskatu ondoren lagunak gaizki ikusi zuen Saioa.

–Saioa..., urduri nabari zaitut. Zer gertatu zaizu? –galdetu zion kezkatuta.

–Begira, Miren, dena pilatu zait. Ikasturtearen bukaerako lanak, oposizioak eta orain Andoni presionatzen ari da... Ez al zaizu nahikoa iruditzen?

–Bai eta ez. Zuk zerbait gehiago duzu. Zerbait larria gertatu zaizu –emakumea harrapatuta sentitu zen, baina ez zegoen prest kontatzeko.

–Eskertzen dizut lagundu nahi izatea, baina mesedez utz iezadazu pixka batean ea burua argitzen dudan. Zuk ondoan egonda nahikoa laguntzen nauzu.

–Ez gorde barnean denbora luzez.

–Ez. Mila esker. Ez dakit nola egiten duzun hain lagunkoi eta ona izateko.

–Nik ere ez dakit. Lan nahikoa estresagarria dut ikastolan eta Keparekin bigarren ezkontza.

–Asteburuan ikusiko al duzu senargai hori?

–Ez. Berak aprobetxatuko du itxiera altxatu dela amatxi bisitatzeko. Familiaren landetxean geratuko dira asteburu osoan... –orduantxe Saioak zerbait gogoratu zuen.

–Miren, zer iruditzen... zu eta biok gure gurasoekin Sunbillara joaten bagara?

–Ziur asmatu duzula nola eskapatu afera misteriotsu horretatik –bota zuen Mirenek txantxetan—. Ongi iruditzen zait. Noiz joango ginateke?

–Nik ostiral arratsaldean oposizioko lana burutu behar dut eta gauean bueltatxo bat egiten ahal dugu guk biok. Larunbat goizean goiz joanen ginateke eta igande arratsaldean itzuli. Han, mendira joan gaitzke bueltatxo bat egitera eta larunbat gauean herriko lagunekin ibiltzen ahal gara. Nola ikusten duzu?

–Ongi. Nik ere badut lana eta saiatuko naiz ostiralean burutzen. Hitz egingen dugu. Bitartean bihar edo etzi geratuko al gara?

–Bai, primeran.

Bi lagunek jarraitu zuten betiko kontuetan, bizitza arrunta egiten.



## Y - Emilioren aurkezpena

Emilio Gomez-Puente 35 urteko gizon altu eta ederra zen, dotorea eta itxura aldatzea gustatzen zitzaiona. Batzuetan, denbora laburrerako ilea tindatu eta aldatzen zuen. Bizarra ere modu desberdinetan moldatu edo kentzen zuen. Ezkonduta zegoen eta bi seme-alaba zituen. Familia onekoa izanda, aberatsa zen eta familiaren inbertsio-enpresako zuzendaritzan zegoen. ADE eta Zuzenbidean gradu bikoitzean oso nota onak lortuta, berehala erdietsi zuen eremu berdineko beste enpresa handi batean postu on eta autonomo bat. Enpresen arteko harremanetarako zuzendaria zen. Lan autonomoa eta ordutegi flexiblea zen berea, gehienetan bulegoetatik kanpo eginez. Alexandra Santoña Del Moral izeneko emazteak ere kanpoko lana zuen, bere jantzi dendak kudeatzen. Pisu ederra zuten Gaztelu Gibelean eta etxeko lana egiten zieten Palomak eta Jeremy Hernandezek, Puerto Rico-ko estatubatuar zerbitzari elebidunek. Zerbitzariak nagusien bost urteko alaba, Andrea eta hiru urteko Fabio semea ongi zaintzea zuten helburu nagusi, etxea eramateaz gainera. Gomez-Puente-Santoña familiakoek, Iruñeko elite ekonomiko eta sozialean ongi kokatuta, bizitza sozial handia izaten zuten.

EGP amorante ezin hobea omen zen. Amorante izena aipatzean, definizioz ezkutuan eta ezezagunekin lotu behar da. Izan ere, azken aldian Emiliok bizitza ezkurturako bertze izen-abizen batzuk erabiltzen zituen. Batzuetan, emakumezkoekin Gabriel Gomez hartzen zuen izena eta bertze batzuetan gizonekin German. Hirugarren aukera ere hartu zuen hitz larriz GG, "Yiyi" ingelesez ahoskatuz, edo gaztelerazko moduan barrez aritu balitz bezala. Aipatu bezala, gazte-gaztetandik arrakasta handia izan zuen jendea liluratzeko. Andregai batzuk izan zituen jende aurrean, baina baita ezkutuko amoranteak ere, haietako batzuk mutilak. Urteetan ehunka amorante izan zituen. Gehienetan egun edo gau bakarrekoak, bertze batzuk denbora laburrekoak.

Hain intelijentea izanik eta inolako muga etikorik gabekoa, Emilio Gomezek nahi zuena egiten edo lortzen zuen. Mozorrotzea zen bere trebetasun berezia: aktore bat bezalakoa zen, nahi zuen pertsonaia antzez zezakeen, baina baita itxuraz erabat aldatu. Gai zen ezagun batekin egon, hitz egin eta bertze pertsona horrek ez asmatzea nor zen. Illeordeak, bizar-biboteak eta lentilla batzuekin aski zuen. Baina gainera, janzkeraz aparte, ahots, ahoskera eta adierazteko modu desberdinak menperatzen zituen. Bazekien jendea manipulatzeko. Denen ahuleziak eta portaerak kontrolatzen zituen eta gainera..., drogak eta hipnosia erabiltzen ere ikasi zuen.

Nolanahi ere, Emilio Gomez-Puentek aspaldian ikasi zuen nahi zuena egiten. Emiliok haurtzarotik nabaritu zuen desberdina zela. Beste haurrak, baita bere familiakoak ere, tuntun samarrak iruditzen zitzaizkion. Negartiak ziren eta helduei eskatzen zieten nahi zutena. Berak ez. Zerbait nahi zuenean hartu egiten zuen, behar bazen aitzakiak emanez edo engainatuz. Ez zitzaion inporta min egitea, borrokatzea edo istorioak asmatzea, azkenean nahi zuena egiteko. Gurasoak ere konbentzitzen zituen. Amak ez zion ezer ukatuko eta aita behartzen ikasi zuen. Gerora, pertsonalitateaz gainera, bere estatus soziala eta baliabideak gaineratu zituen.

Etxean, anaia-arrebekin ikasi zuen manipulatzeko, berak nahi zuena beraien hobe beharrez edo "denen" komenentziaz eginarazteko. Ez zitzaion inporta zer egin behar zuen bere helburua lortzeko. Eskolan mutikoen liderra izan zen eta haurtzaro osoan denen agintari, nagusi edota zapaltzailea izan zen. Betidanik bere atsegina bilatu zuen eta ez zitzaion inporta min egitea helburuak lortzeko. Esperimentatzea gustukoa zuen eta komeni zitzaionean bertzeak behartzen zituen gauzak egiten. Dena den, kontrolatzen zuen bere burua eta bazekien noiz eta nola egin gauzak ongi geratzeko.

Emilio ikaslerik onenetakoa zen: ahalegi gabe eta gauza askotan interesatuta mila gauza ikasi eta egiten zuen. Hala ere, gaiztakeriatzat hartzen ziren gauzak ere egiten zituen eta esperimintatzea zen bere gogokoena. Bere ezkutuko zaletasuna animaliak torturatzea eta bertzeak manipulatzeko zen. Modu batean edo bertzean, lortzen zuen jendeak berak nahi zuena egin zezala, gehienetan beren borondatez, bertzela behartuta. Dena den, harrigarriena eta deigarriena zen mundu guztiak, ona, miresgarria eta lagunkoia zela uste izatea. Gazte ederra zenez, neskekin arrakasta handia zuen eta beti izan zituen neskalagunak bata bertzearen atzetik. Harremanak eten ondoren neska gazteek gustura hartzen zuten lagun-ohiaren rola. Zientzietan ikasle ona zen eta letrak, gai sozialak eta arteak interesa zitzaizkion. Jakinduria guztiak eta inteligentzia emozionala edo haren itxura erabiltzen zituen jendea manipulatzeko. Hemezortzi urte bete zituenean ADE eta zuzenbideko gradu bikoitza ikasten hasi zen. Boston ondoko Cambridge Massachusetts-eko HLS-n, Harvard Law School-en ikasi zituen zuzenbidea hiru urtez eta ekonomia Pennsylvaniako Filadelfiako Benjamin Franklin Business Unibertsitatean beste zenbait urtez. Madrileko UAM-n graduondoko batzuk egin zituen.

Hogeita hamabost urterekin, familia, lan eta bizitza normal eta aberatsak erdietsi omen zituen eta ez zen gustura geratzen apeta eta aje arruntekin. Dirua zeukan eta lanpostu ona ere bai. Kontzienteki, kostata hasieran, psikopata integratua izatea erdietsi zuen, auto-kontrolatua eta errealtatean ongi moldatzen zena. Emaztea ere kontrolatzen zuen, nahi zuena nahi zuenean egin behar zuelako, batzuetan maitasunarekin manipulatu. Dena ongi zihoakion. Hala ere, azken urteetan ez zela nahikoa iruditzen zitzaion. Hasieran, plazer berezia sentitzen zuen pertsona batzuk ezagutzetik abiatuta menpekoak bihurtuz. Bestela, pertsonak manipulatu, sorgindu eta nahikoa ez zela sentitzen zuenean, behartu egiten zituen, erabat ezustean harrapatuta.

Bestalde, bazirudien pertsona batzuek galbidea bilatzen zutela. Une haietan sentitzen zuen ez zela nahikoa pertsona bat ikuskatu eta berehala menperatzea. Pertsona ezezagunak bizkor menperatzea gero eta zailagoa egiten zitzaion. Batzuetan biktimek losintxa nahi zuten edo bestela bere nahiaren kontra ere zapalduak izatea eskatzen zioten. Masokista jende mota hura mesprezagarria iruditzen zitzaion.

## 6 - Psikopata baten bila

Polizien bilera ez zen apartekoa izan. Alde batetik Foruzaingoko Ramon Zudaire inspektorea eta Jabier Lopez komisarioa eta bertetik Udaltzaingoko Larrialdi eta Koordinazio taldeko Ainara Tartas inspektoreordea eta Manuel Elcano inspektorea elkartu ziren. Ez zen harrigarria bilera xumea izatea, soilik Mikel Sadabaren kasuarekin zer egingen zuten erabakitzeke baitzen. Bilera ofiziala izaki, gaztelaniaz egin behar izan zuten, grabatzeko eta edozeinek ulertu ahal izateko. Baina bitxierna izan zen behin bilera hasi zenean lehenengo erabakia, Lala, Lara Lasa detektibe pribatuari bilerara gonbidatzea izan zen eta, hara kasualitatea!, Lala kanpoan zen. Sartarazi zutenean komisarioak tonu ofizialean azaldu zion emakumeari gonbidapenaren arrazoia eta hartu beharreko jokaera:

–Eguerdi on, Lara Lasa detektibe pribatua. Bilera honetan zure iradokizunak interesgarriak izanen direlakoan gonbidatu zaitugu. Ezin duzu nahi duzunean hitz egin, galdetzen dizugun momentuan baino ezin izanen duzu hitz egin; bertzela eska ezazu galdetzeko baimena. Ulertu eta onartuko duzu baldintza, andrea? –Lalak prozedura bihurri hura gauzarik arruntena izanen balitz bezala erantzun zuen.

–Eguerdi on! Bai, onartuko dut prozedura.

Handik aurrera normalago hitz egin zuten. Zudaire inspektoreak irakurri zuen kasuaz txostenen laburpena eta komisarioak gaizkilearen bilaketarekin jarraituko zutela erran zuen. Denek epero zuten adierazpen hura eta erronda egin zuten hitz egiteko eta beraien iritzia emateko. Zudairek komentatu zuen bi foruzainek ikerketa hura jarraituko zutela. Manu Elkanok adierazi zuen beraien zerbitzuan gutxi egin ahal zutela, txanda bakoitzean errondako udaltzain bikoteei psikopata haren bilaketa gogoratzea, besterik ez. Ainarak ere, ikerketetan ezin zutela gauza handirik egin adierazi zuen. Orduan denek begiratu zioten Lalari. Honek, keinuz, hitz egiteko beraien galdera behar zuela adierazi zien. Manuk egin zion galdera:

–Lala, mesedez, erranen diguzu zure ustez zerbait gehiago egin daitekeen? –ikertzaile pribatuak irribarrez erantzun zuen.

–Ez da erraza zer egin daitekeen esatea. Nik espero nuen arazo gehiago bilaketa “prebentiborako” eta pozten naiz hori egin ahal izateaz... –Lopez komisarioak azaldu zion formalitatea erabat gaindituz.

–Lala, Manuk eta Ainarak psikopata arriskutsu baten agerpenaz konbentzitu gaituzte, zure eraginez, dudarik gabe. Mila esker. Zerbait gehiago egin daiteke?

–Zuek alarma mantentzen baduzue, prest izanen gara. Ni ziur naiz psikopatak ezegitekoak egiten jarraituko duela. Kontuz jokatu behar dute foruzainek pistarik ez ezabatzeko... Bestalde, Jaker ari da telematikoki Iruñean edo inguruan mugitzen den psikopata horren bilaketan. Kontuz eta elkarrekin lan egin behar dugu. Izan ere, ezin dugu denbora alferrik galdu. Gaueko giroetan gazteen artean bilatzen jarraitu behar dugu. Horixe proposatzen dut: elkarrekin ikertzea eta gazteen artean bilatzea, baina horretarako psikiatra batek egin behar du profila eta hori bereziki gazteen artean zabaldu –Zudairek zerbait aipatu zuen orduan.

–Mikel artatzen ari diren psikologoei horretan aritzeko eskatuko diegu.

Modu horretan, amaitu egin zuten bilera elkarrekin lan egiteko engaiamenduarekin. Ateratzean Manu eta Jabier geratu ziren hizketan eta Lala eta Ainara kafe bat hartzera mugitu ziren. Ainara lasai geratu zen, baina Lala urduri zegoen.

–Lala, ez dut ikusten zer gehiago egin daitekeen. Zergatik zaude horrela? –detektibea saiatu zen adierazten.

–Begira Ainara, uste dut saiatzen ari garela, baina ez da nahikoa. Ez dakit zer gehiago egin daitekeen, baina psikopata hori hiltzeko gauza dela uste dut.

–Lasai, Lala. Momentuz ezin dugu deus gehiago egin. Zorionez Mikel askatu genuen eta madarikatuak ezin izan zion nahi zuena egin. Beldur naiz orain zer egingen ote duen psikiapata horrek! –Lalak barre egin zuen.

–Psi... zer? Psikiatrak ala psikopatak? Ainara, ni kezkatuta egonen naiz, baina zuk ere atsedean hartu behar duzu.

–Psiko... patak, noski. Ez dakit dislexia ahoskerara zabaldu ote zaidan! Hala ere, psikiatren lana tartekatu zait buruan. Espero dezagun sendagile horiek pistaren bat ematea.

–Bai. Espero dezagun!

Asierrek, bere gelan bakarrik zegoela, probatu egin zituen ikasteko pilulak. Inork ez zuen etengo ikasteko saiakera. Bere arazorik handiena hasieran behar bezala konzentratzea zen: apunteak aztertzea eta ulertuta, lasaitasunez bere erara laburpenak, eskemak, diagramak eta formulak berriro egitea eta asimilatzea. Musika edo bertze distraziorik gabe, gaiaren apunteak, liburuak eta ordenagailua eskura, pilula bakar bat hartu zuen eta lanean hasi zen. Hasi eta jarraitu. Momentu batean konturatu zen apunteak eta liburuak begiratu eta azpimarratuta, ordenagailuz nozioak berrantolatu zituela. Denbora, zitzu bizian pasa zitzaion eta lanerako aurreikusitako zituen hiru orduak eman eta bertze batez aritu zen jo eta su. Azkenean, gai hura eta bertze hiru, azterketarako gelditzen zitzaizkion ia erdiak ongi landu eta ikasi zituen. Horrela, bertze bi egunetan eginez gero, ongi helduko zen azterketarik garrantzitsu eta zailenera. Pozik zegoen, buruz ongi, eta zerbait ahoratu ondoren pilulak hartzearen ondorioak aztertuko zituen.

Psikopata haserre zegoen. Harrapakina lapurtu egin zioten. Nolanahi ere, bere benetako jolasa, bere benetako helburua edo nahia behintzat, Asier edo Saioarekin esperimintatzea zen. Berak ez zekien zergatik aukeratu zituen anaia-arreba haiek, bakoitzak berez erakartzen zuen-eta. Kasualitatea edota antzagatik izanzen zen. Emilioren ustez berari iruditzen zitzaion begiradarik adierazkorrena eta erakargarriena zutela. Biek begi arre handiak zituzten aurpegi eder eta ile-adats ederretan.

Emilio, German bihurtzen edo sentitzen zenean mutil erdi-galduak eta sentiberak gustatzen zitzaizkion. Dena den, Asierrek, itxuraz aparte, ez zuen inoren presioa eta manipulaziorik onartzen. Horrek, gainera, praktikan gehiago erakartzen zuen. Saioa, aldiz, oso ederra eta erakargarria izanda ere, lehenengo momentuan uzkur eta lotsati samar iruditu zitzaion eta horrek ezkutitzen zuen bere edertasuna. Hala ere, konfiantza pixka bat hartuta, lehen momentua pasa ondoren eraldatzen zen, begiradak bizitasuna hartuz eta gorputz osoak ziurtasuna adieraziz. Horrek sortzen zion G-ri menperatzeko gogoia. Saioarekin ezinezkoa zen eta emakume gaztea berarekin maitemintzea edo

gutxienez bere desioak onartzea lortu behar zuen. Hala ere, berak bazekien Saioak ere ez zuela inoren zapalketa onartuko.

Gauzak horrela, maitemina antzeko zerbait sentitzen zuen, hori posible izan balitz. Behin baino gehiagotan erran zioten sentimendurik ez zuela eta egia zen. Emilio bezala urruntasunez onartzen zuen jendearekin ez zuela emozionalki ezer sentitzen. Alexandra eta Andrearekin, emazte eta bost urteko alabarekin, sentimenduak baino erosotasuna sentitzen zuen, lasaitasuna eta ezagutza onartzen zituen-eta. Fabio, hiru urteko semetxoa jostailu berria zuen eta gustatzen zitzaion izaki bizidun batekin esperimentatzea. Negu aldean astegunetan arratsaldez Emilio etxean geratzen zen etxeko senar eta aitaren papera egiteko. Edozein modutan asteburura arte ez ziren gazteak aterako. Astegun haietan mutila edo neskarekin elkartzeko amesten egoten zen. Dena den, eutsi behar zuen eta ez etsi. Pazientzia behar zuen. Benetan desio zituen haien ordeko beste gazte bat topatzea zaila baitzen eta oso arriskutsua.

2021eko maiatzaren 18a, asteartea.

Hodeitsu ageri zen zerua, baina tenperatura ona nabari zen. Saioa balkoira atera zen esnatu berritan eguna agurtzeko. Pisuaren alturatik, erripak, Belosoko aldapa eta erreka inguruak begiztatu ikusi zituen. Nolanahi ere, presa zuen. Arin dutxatuta, frutak puskatan eztiarekin eta kafe pixka bat gosaldu zituen. Ziztuan jantzi, autobus geltokiraino korri eta Iruñera helduta, hartu beharreko bertze autobusa berandutzen ari zenez arriskatu zen euri arriskua zela-eta oinez ikastetxeraino joaten. Udaberria sentitu nahi zuen lanerako bidean, paseo eta inguruari begiratzuz.

Saioak denbora izan zuen klaseak antolatzeko. Egun haietan bertako azterketak prestatzeaz gain, ikasle askok Hizkuntz Eskolako B1ekoak izanen zituzten berehala eta berak lagundu egin nahi zien ikasleei azterketetan buruz eta lasai jokatzeko. Ikasle gehienek interes handia jartzen zuten proben gora-beheretan. Ez zen ikastetxeko irakasleen berezko lana bertze ikastetxe baterako proba batzuk prestatzen laguntzea, baina ulermen eta idaz-mintza ariketak eginez ere ingelesean aurreratzen zuten ikasleek. Harrigarria zen zenbat ikasle aurkeztu zituzten Hizkuntz Eskolan.

Azken momentuan Txarli agertu zen. Falta zena! Nahikoa arazoak ez balitu bezala, mandeuli hura agertu behar.

–Egun on, Saioa. Zer moduz oposizioen prestaketan? –gizonak lagundu nahi zion, baina oso astuna zen. Bertze batekin lelotuko ahal zen!

–Ongi ari naiz. Urte osoan jo eta ke ibili ondoren nekatuta, baina ongi.

–Saioa..., badakizu... Nahi izanez gero lagunduko dizut –berak aurreko oposizioetan atera zuen ingeles lanpostua.

–Mila esker. Behar izanen bazintugu, deituko genizuke. Paul eta biok ostiraletan elkartzen gara ikasteko. Ez dut uste laguntza behar dugunik. Hala ere, estimatuta dago... Orain klasea dut. Aio.

Goiz osoan lanean aritu ondoren hurrengo eguneko materiala prestatuta etxera bazkaltzera mugitu zen. Arratsaldean ikasleen idazlanen zuzenketak eta oposizioko gaiak izanen zituen esperoan.

Asierrek ikasten pasa zuen goiza. Ez zuen ondorio txarrik nabaritu aurreko arratsaldean dopatuta ikasteagatik eta goizean pilula erdi bat hartuta jarraitu zuen gaiekin. Bi orduz lan handia egin ondoren atsedean txiki bat egin zuen. Primeran zegoen, oso ongi eta ez zuen deus berezirik sentitu. Bazuen denbora eta hainbat etxeko lan egin zuen. Bere gelako nahasmendutan orden pixka bat sartuta, erosketak egitera atera zen. Zerrenda eta gurditxoa hartuta atera zen. Bazkaria prestatzea ere berari egokitu zitzaion. Barazkiak eta esneaz gain, fruta, arraina eta haragia erosi behar zituen. Amuarrain onak erosteko esan zioten, baina berak oilasko izterrak aukeratu zituen gustatzen zitzaizkiolako. Aurrekoez gainera, saltxitxak, gazta eta ogia erosi ondoren, gurdia beterik etxeratu zen entsalada eta izterrak prestatzeko. Berak hiruretan bazkalduko zuen amarekin, saioa eta aita beranduxeago helduko baitziren. Hiru eta erdietan ikastera joateko autobusa hartu behar zuen. Amari musu eman zion, agertu berritan aita-arrebak agurtu zituen eta ziztu bizian abiatu zen NUPera. Iruñeko erdira helduta bertze autobusa hartu zuen eta eserlekuan eroso, tripa beteta erdi lotan geratu zen konturatu gabe. Eskerrak unibertsitatean bidaiariak jaistean esnatu zen. Xabirekin geratua zen mintzatzeko eta ikasgelara joan aurretik kafe bat hartzeko.

–Kaixo, Xabi.

–Kaixo. Asier, merkatu-ikerketako lana burutu behar dugu eta oraindik ez dugu gure lana kontrastatu –laguna urduri egotea normala zen, baina hura ez zen arazoa.

–Lasai, ortzegun goiz osoa horretan eman ahal dugu. Pasako dizut nik egindakoa eta Doc komunean berrantolatuko dugu. Dena den, Data eta Estatistikako probek kezkatzen naute eta aste bat falta da ikasturtea bukatzeko. Eskerrak pilulak ditugun! Ez dakizu nola ikasten den horiekin. Bakarren bat hartuta ez dugu ondorio txarrik izanen.

–Beno, zuk diozun bezala, ortzegunean Merkatu-etako lana burutuko dugu eta ortziralearan konpartituko ditugu lortutako apunteak. Larunbatean ikasi behar dugu... Nolanahi ere, larunbat gauerako festa dabilkit buruan eta...

–Lasai, Xabi. Ortziralearan edariak erosiko ditut. Larunbat goiz osoan ikasten aritu ondoren, arratsaldean nire etxean elkartu gaitezke, gurasoak eta arreba herrira joanen direlako. Ni ere joanen nintzateke, baina arrazoi duzu: asko ikasi behar dugu. Ez kezkatu! Bi edo hiru saiotan ikasiko dugu azterketarako. Nolanahi ere, larunbat gauean etxean festatxo on bat ospatuko dugu jende gutxirekin.

Lagunak ikasgeletara joan ziren. Azkeneko klaseak ziren eta espero zuten azterketarako informazio praktikoa lortzea.

Mirenek Saioarekin hitz egin nahi zuen. Kezkatzen zuen laguna, baina deitu baino lehen lagunaren mezua ikusi eta irakurri zuen. Saioa ez zegoen ezertarako eta eskatu zion Mireni hurrengo egunean arratsaldeko zazpietan elkartzeko. Gauzak horrela, Saioak egun batez atzeratu zuen lagunarekin bere arazoaz eta obsesioaz hitz egiteko epea. Saioa beldur zen lagunari bezala bere buruari inoizko okerrik handiena aitortzeko.

Saioak bazuen zer egin eta kezka hartaz ahazteko beharra. Telefonoa isilean utzi zuen. Idazlanak zuzendu behar zituen eta lan hura bukatuta, oposizioetako programazioarekin lotutako unitateak deskribatu behar zituen. Bazituen batzuk eginak, baina lan hartan borobiltzeko asko falta zitzaionez larritasuna sentitu zuen. Lanean nekatu zenean korrika egitera atera zen. Ordu batean Arga bidean ibili ondoren dutxatu zen eta afari-merienda ederra antolatu zuen, denbora ez galtzeko fruta eta otorduetako soberakin goxo batzuk ahoratuz. Harrigarriki, ongi eta

deskantsatuta zegoela aprobeztatuz, unitateekin jarraitu zuen ordu batez. Konturatu orduko, etxeoak afaltzen ari ziren eta bera haiekin elkartu zen gustura. Goserik ez zuen, baina maitasuna eta senitartekoekin hurbiltasuna behar zituen. Jogurt goxoa eztiarekin hartu bitartean solasean aritu ziren. Gelara, oheratzeko asmoz joan zenean dei batzuk zituela ikusi zuen. GG-k hiruzpalau aldiz deitu zion telefonoz azkeneko orduetan. Erabaki zuen ez erantzutea. Hala ere, mezuetan lagunen taldekoez gain Gabrielen ere bazen eta irakurri zuen.

–“Saioa, zer moduz zaude? Zurekin egon behar dut. Noiz elkartuko gara? Erantzun mezua, mesedez! Behar zaitut. (Hiru bihotz ageri ziren)” –zerbait egin behar zuen eta erantzun egin zion.

–“GG, utzi bakean. Ongi nago, baina lanez gainezka. Ez dut zurekin egoteko betarik. Ez idatzi, nik deituko dizut. Aio” –Dena den, bertze mezu bat jaso zuen.

–“Barkatu, Saioa, baina ezin naiz zu gabe bizi. Uneoro oroitzen ditut gure elkarketak. Prestatu dut gure txokoa biak gustura egoteko, xanpaina eta guzti –gustura horrek erran nahi zuen pilula ziragarriak zituela–. Musu eta besarkada handi bat. Zurekin ez banaiz ez dakit zer egingo dudan!!”

Emakumea dena uzteko zorian egon zen. Duda egin zuen. Ongi etorriko zitzaion atsedeen pixka bat, mundutik ordu batzuetan ateratzea eta... gozatzea. Saioa konturatu zen bere borondatea gutxitzen ari zela. Nolanahi ere, ezin zuen onartu ahuldade momentu batengatik bizitza osoa pikutara botatzea. Arnasa hartu zuen sakonki, denbora luzez bota gabe. Ezeztatu zuen ideia. Gizonaren gaizkia gogoratu zuen. Bere buruaren jabe, indarrak bildu zituen Gabrielen sorginkeria baztertzeke.

2021eko maiatzaren 19a, asteazkena.

Saioa berandu samar ibili zen lanera lehenengo orduan heltzeko eta amari eskatu zizkion autoko giltzak. Gaueko euriak kale bustiak utzi zituen eta zero hodeitsuak ez zuen naturaren distira behar bezala erakusten. Hala ere, argitasun berezi batek magikoa eta ia urazpikoa bihurtzen zuen Argaren eta Iruñeko harresi ingurua.

Biurdana institutura helduta, berehala sartu zen ikasgelara. Ikasleak urduri zebiltzan eta denbora galdu zuten ikasturteko azken azterketa eta emaitzei buruzko zalantza eta galderekin. Hilabete eskasean bukatuko zuten ikasturtea eta nabari zen. Dena den, ikasgelan denbora arin pasa zuten hainbat ariketa egin bitartean. Txarrena zen ezin zituztela hurbiltasunaren arriskuengatik talde-lanak behar bezala burutu. Jende pilaketa ekiditeko gehienez binaka egiten zituzten mintza ariketak.

Klase-saioen artean Saioa ordu batez ibili zen Ingeles mintegian hurrengo eguneko lanak antolatzen. Idazlan gehienak zuzenduta zituen eta espero zuen astebururako burututa izatea. Azkeneko klasera joan baino lehen telefonoa piztu zuen sare sozialetako berrietan gainbegirada bat botatzeko eta whatsapp berri baten eskaera ikusi zuen. Igorlearen izena berezia zen: Leopard. Lagun jostalaria nor zen jakin-minez onartu egin zuen harreman berria. Mezu zirrargarri bat irakurri zuen:

–“Kaixo, Saioa. Elkar ikusi behar dugu berriro. Ezin zaitut ahaztu. Uste dut maite zaitudala. GG”.

Txundituta zegoen. Horrelako jokaldia egitea ere! Ez ote zuen gizon hark bera bakean bizitzen utziko? Ez zuen espero bizitzan egindako irristaldirik handiena hain bizkor ordaindu eta erantzun behar izatea. Ez zekien nola ez zuen susmatu nor izanen zen igorlea. Lehoinabarra zen hartu zuen ezizena. Izen aproposa harrapari harentzat. Ez zuen erantzun nahi, baina hain asaldaturik zegoen, ezen ia ahaztu zitzaion klasera joan behar zuela. Klasea despistatuta eman zuen, ikasleen harridurarako. Azkenean, lana bukatutakoan, berehala etxera mugitu nahi zuen bazkaltzera joateko. Hala ere, mintegian materialak antolatzen ari zela, Begoña Oskariz mintegi-burua zenak harrapatu zuen eta ikasturteko oroit-idatzirako taldekoen ebaluazio-prozeduraz aritu zitzaion. Ostiralean bilera izanen zuten eta Saioak presa zuela adierazi zion. Begoñak, harrituta, galdera berezia egin zion:

–Saioa, barkatu baina azken aldiak iheska zabilzala iruditzen zait. Zerbait gertatzen al zaizu? Ongi al zaude? –bera ere harrituta zegoen eta agian zakar samar erantzun zion.

–Ez. Ez zait ezer gertatzen. Barkatu, baina gaur presa dut. Hitz eginen dugu ostiralean, ados? –Begoña harritu zen pixka batean, baina kezkatuta berriro galdetu egin zion.

–Saioa, lanean edo arazorik izanez gero, eskatu laguntza. Badakit oposizioekin larri zabilzatezela... –Saioak ez zuen uste horrenbertzekoa zenik. Saiatu zen desenkusatzeko eta kontu hura moztetik. Gaizki eta nekatuta zegoen.

–Eskerrik asko Begoña. Hori da! Oposizioen prestaketekin astirik gabe nabil. Hala ere, oroit-idatzi horretarako nire taldeen ebaluaziorako prozedurari buruzkoa erdi egina dut. Azken ebaluazioaren erdian gaude... Dena den, Begoña, orain joan behar dut. Hitz eginen dugu bihar nahi baduzu... –Begoñak ulertu zuen Saioa momentu hartan, auskalo zergatik, ez zegoela ongi eta ez egoela lan kontuez mintzatzeko moduan.

–Barkatu, Saioa. Bai, hitz eginen dugu... eta eskatu laguntza behar baduzu.

–Eskerrik asko –motxila hartuta, gaztea presaka joan zen.

Arantza etxean zegoen eta bazkaria prestatuta zuen. Alaba heldu zenean Asier eta Patxi agertu gabe zeudenez amak aprobetxatu zuen hitz egiteko, oso zuzen egin ere, ohitura zuen bezala.

–Saioa, oso arraro ikusten haut. Azken astean ez hago osotara hemen. Egiten dunana automatikoki egiten dun bertze gauza batzuetan pentsatzen ibiliko bahintz bezala –gazteak pentsatu zuen ez zekiela disimulatzen. Mundu guztiak galdetzen zion gauza bera. Ez zen erantzuteko gauza sentitu eta nahi gabe ere betiko aitzakia eman zion.

–Sentitzen dut ama. Gauza asko dut buruan: lana, oposizioak eta nahasmendu pertsonala ere bai. Lasai. Ez da ezer garrantzitsurik. Egun batean kontatuko dizut –Arantzak kezka begiratu zion alabari.

–Ez zekinat ba! Saioa, hik uste baino makurrago hago. Jokaera hau ez dun lan pilaketagatik. Hori garbi zagon. Burua izan, alaba! Laguntza behar badun, edozein dela ere, eskatu ezan..., faborez. –Saioak espero izatekoa zela pentsatu zuen. Amari ezin zion ziria sartu.

–Ez dakit zer erran. Ama..., mesedez..., orain bakean utz nazazula behar dut. –Duda egin zuen andreak.

–Bai, utziko haut bakean, baina hire onera bueltatu mesedez!

–Bai, ama. Berehalaxe bideratu... onbideratuko dut neure bizitza. Hori argi izan!

–Hala espero dinat. Badakin nire alaba maiteena haizela –Hura ama-alabaren arteko ohiko broma bat zen.

Patxi agertu zenean Asierren mezu bat jaso zuten berandutuko zela adieraziz: bazkaltzen hasteko eskatu zien. Amak orduan Asier ere arraro samar zebilela aipatu zuen. Komentarioa amak alabari ahopeztatu egin zion eta aurpegia aldatu zuten Patxi mahaian eseri zenean. Lasai bazkaldu egin zuten, beraien eguneroko kontuak aipatuz. Beranduago Mirenek deitu zion Saioari errateko ahal izanez gero zortziak aldera elkartzeko. Arantza lanean zen. Patxi bilera bat zuen eta Asierrek klaseak zituen berandu arte. Saioak afaria prestatu behar zuen, aurretik erosketak eginda. Boteetako kardua eta gallineta arrain xerrak erosi zituen. Jogurtak ere ez zituen ahaztu. Bederatzi eta erdietan afalduz gero, bazuen aurretik ordu bat lagunarekin egoteko eta ez zekien zer kontatuko zion. Ez jakiteagatik ez zekien Gabrieli buruz zer erabaki hartuko zuen. Edonola ere, lotsak eta beldurrak jota, ez zuen sinetsi zer egin zuen eta ez zekien garbi nola egin aurrera, hain zen handia sentitzen zuen aztoramena. Lotsa, beldurra... Emozioz gainezka sentitzen zuen bere burua.

Terrazako mahai batean topatu zuen laguna. Orduantxe zerbitzaria hurbildu zen eskaera jasotzera eta biek kaña eta hango patata-tortilla pintxo goxo bana eskatu zuten. Agurrak gurutzatuta, ia ez zuten ezertaz hitz egin, pintxo goxoa jaten zuten bitartean. Noizbait Saioa hasi zen zerbait erran nahian, zuketan haien artean ohitura zuten bezala.

–Miren, barkatu. Ez dakizu zein nahasirik nabilen! Aurreko larunbatean zerbait larria, oraindik aitortu ezin dizudana gertatu zitzaidan eta ordutik ez naiz bizi. Badakit erabat baztertu beharko nukeela eta betiko ahaztu..., baina ezin dut. Nire barneko run-run batek ez nau bakean uzten. Egin nuena..., ez nukeela eginen erranen nizun, oraintsu arte. Egin izan dut, ordea, eta zerbait ez dit baztertzen uzten. –Miren harrিতa zegoen.

–Inoiz ez zaitut hain misteriotsu ikusi. Norekin izan zinen eta zer egin zenuen? –Saioa negarrez hasi zen. Ezin zion ezta bere buruari aitortu. Hala ere, lagunari zerbait kontatzen saiatu zen.

–Hara! Miren, badakizu ez zaidala pilularik hartzea gustatzen. Ba... Zu desagertu zinenean, gizon eder bat agertu zen. Garagardo bat edatera gonbidatu ninduen. Ez dakit nola, brometan onartu nuen estasi bat eta inoiz eginen ez nuena egin nuen... –eten egin zuen azalpena. Mirenek eskutik hartu zion eta lagundu nahian galdetu zion.

–Saioa..., ez da horrenbertzerako izanen. Ulertu egiten dut pilularengatik bolatuta zeundela eta zerbait egin zenuela. Tira, ez da munduaren amaiera...

–Baina, bai! Inoiz izan dudan esperientziarik zoragarriena eta beldurgarriena izan nuen eta aitortu ezin badut, pentsaezina izanda ere, berriz eginen nukeelako da, ondorioei begiratu gabe.

–Saioa, ezin dizut sinetsi. Ez da hain larria izanen! Kontatzen hasiz gero erran ezazu zer pasatu zen –Saioa arnasarik hartu gabe geratu zen. Nahi zuen, baina ezin zuen, uste baitzuen kontatzeak gertatua errealago egingo zuela.

–Uste nuen dena ahaztuko nuela, baina whatsapp batzuk jaso ditut eta egindakoaren ondorioak jasaten ari naiz. Egun batean, espero dut berehala, kontaktu eginen dizut. Hala ere, sorginkeriatik libratzen ez naizen bitartean ez naiz libre izango. Nire bizitza kolokan dago eta ez dakit nola jarraituko dudan! Miren, orain zure laguntza eta isiltasuna behar ditut. Eskertuko nizuke galdetuko ez bazenit. Ahal dudanean kontaktuko dizut-eta. –Miren harrituta zegoen bere lagunarekin. Saioaren begiradan ez zuen ikusi, larritasuna eta beldurra bertzerik.

–Ongi da, baina kontaktu behar didazu nik laguntzea nahi baduzu.

Asteburuan eginen zutena komentatu zuten etxera mugitu artean. Saioak arin prestatu zituen kardua urdaiazpikoarekin eta arraina. Afarian gurasoak eta alaba elkartu ziren eta lanaren aitzakian bere gelara erretiratu zen gaztea. Lasaiago zegoen eta lan dezente egin zuen nekatuta lotara oheratu arte.

Asier momentu hartan lagun berriarekin zegoen terraza batean. Harekin gelditu zen enkargua eskuratzeko. Bi garagardo eskatu ondoren eseri ziren.

–German, eskertzen dizkizut ikasteko pilulak. Oso onak ziren. Bertze hainbertze behar ditut nire lagunarekin konpartitzeko.

–Ez horregatik. Ekarri dizkizut bertze batzuk. Hauek opariak dira dohainik lortu ditudalako.

–Ez dakizu nolako mesedea egin diguzun pilula horiekin! –gizon dotoreak aurpegian ezer berezirik adierazi gabe, irribarrea egin zuen. Bi garagardoak ekarri zizkieten eta Germanek ordaindu zituen.

–Lagun, ondoriorik gabeak dira..., ohitu egiten ez bazara!

–Halere, ez dut uste debalde eskuratuko dituzunik. Zenbat eman behar dizut?

–Ikus dezagun... zenbat edo zer eskatuko dizudan!? –begirada maltzurak ez zuen gehiegi adierazten. Gazteak aurpegi serioa erakutsi zuen.

–Egon, laguna! Zer eskatu nahi didazu? Ez nago prest edozer egiteko! –G-k barre egin zuen.

–Lasai! Zure laguntasuna baino ez dut nahi. Dirua badut, baina gustatzen zait zu bezalako gazteak laguntzea...  
–Asierrek susmatu zuen harreman sexualez ari zela.

–German..., benetan diotsut ez dudala inolako ezarpenik edo agindurik onartuko. Estutu gabe, egun batean lagun bezala kalean ibiltzea ez zait inporta, baina gehiagorik ez. Bertzela, hartu zure pilulak eta ongi ibili.

–Geldi...! Ez kezkatu. Nik zurekin laguntasuna besterik ez dut bilatzen.

–Ba... Ikusiko dugu noiz egonen garen. Ez dut zorretan egon nahi. Zenbat nahi duzu, 40, 50 euro?

–Esan dizut. Dirua badut eta zu ezagutzea beste asmorik ez dut. Geratuko al gara asteburuan?

–Ez. Sentitzen dut. Azterketetarako ikasi behar dut eta izanen dudan atsedean bakarrean lagunekin geratu naiz  
–ez zirudien gizonari gustatu zitzaionik.

–Eta... gonbidatzen banauzu? Primeran pasako dugu.

–Ez. Ez da jende askorik izanen. Betiko lagunak izanen gara. Bertze batean egonen gara... –gizon dotoreak irribarre txikia egin zuen.

–Ongi da. Hurrengo astean deituko dizut –garagardoa bukatu zuen eta altxatu zen–. Mesfidatia zara gero!

–Mesfidatia ez. Askea naiz. Aio!

## 7 - Guztien ibilerak eta gogoak

2021eko maiatzaren 20a, ortzeguna.

Egunaren argiak bidea egin zuen pertsianaren zirrikituetatik. Aspaldiko partez lasai zegoen Saioa. Bere “arazoa” bazter uztea lortu zuen. Gustura mugitu zen eguzkia eta natura agurtzera. Minutu batzuk pasata, komunera sartu zen garbitzera eta prestatzera. Berrituta sentitu zen dutxatu eta jantzi ondoren. Gosaldu eta egun osorako gauzak hartuta lanera abiatu zen.

Lan handia egin zuen goiz osoan eta eguerdian eraman zuen janaria bazkaldu zuen mintegian bertan. Bere asmoa, ortziraletan eta asteleheneko ingeleseko lan gehienak egitea zen, horrela ortziral arratsaldean oposizioan zentratu eta asteburuan atsedean hartu ahal izanzen baitzuen. Horregatik egun haietarako programazioa begiratu, materialak prestatu eta ia seiak arte geratu zen idazlanen zuzenketak burutzen. Kuadrillakoei mezu bat igorri zien asteburuan herrira joanen zela erranez. Beranduaago Mirenekin geratu zen korrika egiteko eta ondoren garagardo bat hartzeko.

Bi lagunak elkartu eta korrika egitera atera ziren Arga paseotik gora Uharte aldera eta itzuli. Mirenek paseoa egiteko Sultan etxeko zakurra eraman zuenez, kirol egitea konplikatuagoa zen, gehien bat hirurak bertze jende multzo batekin gurutzatzen zirenean. Edonola ere, lasterraren ondorioz erlaxatu ziren eta itzultzean gustura joan ziren terraza batean kaña pare bat hartzera. Edariak eskatu eta ekarri zizkietenean saioak bere lagunari aferari buruz ahal zuena kontatzeko asmoa zuen. Presio psikologikoa gelditu gabe jasan zuenez, zerbait gehiago kontatu zion lagunari, baina ez dena. Ezin zuen.

–Miren, badakit lagundu nahi nauzula. Eskertzen dizut egiten duzuna, baina oraingoz ezin dizut dena kontatu. Aurreratzen ahal dizudan gauza bakarra da gizon batekin oso harreman gatazkatsua dudala. Berak aztoratzen nau eta momentuz lasaitasuna behar dut.

–Ongi da. Kontatu nahi duzunean eta kito. Ez dizut txapa sartuko.

–Mila esker –handik aurrera bertzelako gaiak izan zituzten mintzagai.

Arratsalde hartan bere bulegoan Lalak bueltak eman zizkien gaizkile haren ezaugarriei. detektibeak argi zuen –kriminologia ikasketengatik– psikopata integratua, auto-kontrolatua eta oso argi bat bilatu behar zutela. Jakerrek ikertu egin zuen buruko nahasmen larriak zituzten gaixoentzako instituzio eta zerbitzuetan. Hain zuzen ere, jarrera psikotiko arriskutsua zuten kasu eta gaixoen txostenetan sartu ahal izan zen. Maniako eta bipolar deituriko kasuak baztertu zituen, gaixotasun horietan gaixoak nabarmentzen direlako eta ez dute beren buruan kontrol gehiegirik. Gizon dotorearen kasuan, gaizkilea atzean geratzen zen eta bere menpekotasunen esklabo izan beharrean, lasaitasun osoz kontrolatzen zuen ingurua eta manipulaten zuen jendea. Gainera, ez zen soziopata bat izan, horiek emozionalki jokatzeko zutelako eta kasu hartan pertsona odol-hotz bat bilatu behar zuten. Lalak arrazoi zuen. Izanen zen kriminologia ikasketetan portaera arriskutsuak eta gaixotasun mentalak ikasteagatik, zeren eta berehala gaizkile hark psikopata izan behar zuela susmatu zuen. Jakerrek gaixo horien definizioa bilatu, osatu eta idatzi zuen txostenean.

“Psikopata integratua dena, jendartean bizi da eta bertzeek, gehien-gehienek behintzat, ez dakite horrelakoa dela. Psikopatak bertze pertsonak gauzak balira bezala ikusten ditu. Ez du enpatia emozionalik sentitzen, baina ezagutza kognitiboak erakusten dio bertzeen emozioak ulertzen, bertzeen lekuan jartzen. Ulermen hori erabiltzen du jendea manipulatzeko eta menperatzeko. Biktimek eta ingurukoek uste dute jokaera eta portaera hori batzuetan egoismoa dela, obsesio, mania, gaiztakeria batzuetan, baina ez dakite psikopata moztarrotu bat dela”...

“Psikopata gezurti bat da. Psikopatak moztarrotzeko kapazitatea erabiltzen du. Manipulatu nahi dituen pertsonen nahiak jakinda, ongi geratzeko, beraiek nahi duten bezalakoa da eta itxuraz bertzeek nahi duten bezala jokatzeko, guztion hobe beharrez ekiten duela konbentzitzeko. Bitartean, errealitatean, besteak bere nahiaren arabera jokatzera behartzen ditu. Bere ahuldade bakarra bere “ego”-a edo autoestimua da. Normalean ez du oztoporik onartzen. Ez du galtzea edo baztertea erraz onartzen”...

Lalak ikertutakoaren ondorioak konpartitu zituen udaltzain eta foruzainekin. Manurekin aritu zen kasuaz hizketan, baina ordu haietan Koordinazio taldean Ainara Tartas bera ere jakinaren gainean zen eta lagunarekin mintzatu zen Lala.

–Ainara, egonen gaitun lasai hitz egiteko. Dena den, onartu behar dinat gaizkile horrek gazteei egiten ahal dien erasoekin beldurtuta nagoela. Alferrik kezkatzen naizela erranen ninake, baina ezin dinat burutik baztertu.

–Ulertu egiten haut. Niri ere malapartatu horrek, edo egin zezakenak, hotzikara sortzen zidan. Dena den, lasaiago hartu behar dinagu. Gehiago ezin dinagu egin: polizia bikoteek badinate adi egoteko agindua eta bertze bilaketa aktiboak egiten ditinagu gure zerbitzukoak –Ainarak eten bat egin zuen hizketan jarraitu baino lehen–. Ba al dakin zer diotsudan? –erran zuen txantxetan.

–Zer diostazu? –erantzun zion tonu berean, lagunaren aldatzarekin kutsatuta.

–Lala, gero elkartu behar dinagu terraza batean zerbait hartzeko.

–Primeran! Ordu bat barru prest izanen naun. Erradan non.

–Nik ere lanean kontu bat dinat egiteko eta ziur naizenean igorriko ditinat lekua eta ordua, hamabortz minututan geratzeko moduan, ados?

–Ados.

Aurreko egun osoan eta goiz hartan Emilio laneko kontuak kudeatzen ibili zen. Publizitate eta Promozio Saileko zuzendaria zen eta batzuetan, egunak pasatzen zituen lanetik ia agertu gabe. Nolanahi ere, gizonaren ezaugarria lan autonomo eta ibiltaria izatea zen eta horregatik noizean behin bulegoan lana jarraian egin behar zuen, ondorenean kanpoan ibili ahal izateko.

Arlo horretan bere ezaugarri pertsonala bertzeak lan eginaraztea zen. Lanaren elementu guztiak kontrolatzen zituen: batzordeetako martxa eta proiektuen berri izan, balorazioak eta ebaluazioak behar bezala egin; ideia txarrak baztertu, onak onartu, eman edo bideratu. Bere lana, “pilota” batzuk momentu batean airean mugitzea zen eta behin “jokoa” kontrolatuta, gai zen telefono bidez bideratzeko eta beste “denbora-pasetan” aritzeko: gehienetan beste enpresetako zuzendariekin harremanak landuz, haiekin kirola eginez edo hainbat ekintzetan dibertituz.

Aipatu bezala, Emiliok bazekien lana antolatzen, ematen eta aprobetxatzen. Laneko bere menpeko teknikariekin, enpresako zuzendaritza komertzialean lerketa, marketina eta publizitatea bideratzen zituen, ondoren alor bakoitzean asteko bilera baten bidez departamentuko martxa antolatuz. Hala eta guztiz ere, zuzendari honek bazuen lanean ezkutu eta bozeramale ezin hobea. Emilioren idazkari pertsonala, amorante eta konplizea Carmen Rives zen. Ez zen gaizkidea, ez baitzen lagun eta nagusiaren bizitza osoaz jakitun. Nolanahi ere, harreman berezia zuten. Gizonak arreta piska bat ematen zion eta emakumeak denetarik egiten zion dudarik egin gabe eta bizkarrak zainduz, zeren eta Carmen maiteminduta baitzegoen Emiliorekin.

–Carmen, gaurko bilera orokorraren ondoren joango naiz eta bihar ez naiz agertuko gaixotuko naizelako. – Emakumeak horrelakoetan ohitura zuenez galdetu zion zehazteko.

–Zer aipatuko diet? Haginetako ala barne-belarriko minez egongo al zara?

–Nahi duzuna. Ez naiz inorentzat egongo. Larrialdiren bat gertatuz gero, utzi mezua... –hurbildu egin zitzaion emakumeari– Carmen, goazen komunera azkar bat egiteko. Badugu ordu erdi bat bilera bitartean.

–Ongi da. Esan behar diot zuzendaritzako idazkariari nire postuan egoteko eta bakean uzteko.

–Ibili arin...!

Emiliok bazuen funtsa-enpresa bateko zuzendaritzako partaideekin bilera bat. Bi enpresen elkarlana gauzatzeko. Berak, gizonetako zuzendari batekin eta adin ertaineko bertze emakumetako batekin, hura ere zuzendaritzakoa, negozio-bazkaria izanen zuen jabetxe ospetsu batean. Hiriko bistarik onenak erakusten zituen jantoki pribatua dotorea zen eta dastatze-menu berezia eskaini zieten. Ekialde Urruneko eta bertako fusio-sukaldaritza dastatu zuten, sushi plater batzuk bertako produktu batzuekin nahasian. Nagusiena izokin Bizkaiko saltsan eta Idiazabal gaztarekin zen.

Mateo eta Mercedes irribarretsu egin zioten harrera Emiliori. Elkarrekin produktu sorta bat eskaini behar zuten online. Milioi asko irabazi behar zuten bi enpresek eta Emilioren aldeko apustua behar zuten komertzializazioan. Mateo inbertsio-talde baten ordezkaria zen eta Mercedes nagusien ordezkaria. Mercedes, nahi zuena egiten ohitutako enpresa-emakumea zen, argia eta erakargarria. Emiliori begiratu kitzikagarria egin zion. Eseri ziren bezain pronto hurbildu zitzaion lotsarik gabe Emilioren instinturik txarrenak piztuz. Jaki goxoak dastatu artean solas atsegin arinean, Mercedesek interes pertsonala erakutsi zion gizonari. Halakoetan, Emiliok, bakarka izaten zenean, gaixoarekin jolastu ondoren, aspertzen zenean sadikoki jokatzu hartzen zuen atsegina. Gazteekin sexualki gozatzen bazuen ere, bere misoginian bestelako emakumeekin min ematen aritzea gustatzen zitzaion.

Une batean, beste lankidea telefono dei bat egiteko urrutiratu zenean, emakume harekin hitz egiteko aukera izan zuen. Emiliok ez zuen ligatu nahi, besteak txantxetan zirikatzen zuen arren. Emakumea ez zen bere interesekoa.

–Emilio, egun batean elkartu behar dugu, guk biok bakar-bakarrik. Zer kirol eta zaletasun maite duzu? –esan zuen emakumeak “begiak” egiten zizkion bitartean.

–Ez dakit zer esan nahi duzun! –adierazi zuen Emiliok tontoarena eginez.

–Hara, arkumetxoa! Badakizu zertaz ari naizen! Nabari da martxa gustatzen zaizula! –estrategia aldatzea erabaki zuen Emiliok.

–Begira Mercedes, ezin dugu plazera eta lana nahasi. Ez jarraitu, mesedez! Agian gure elkarlana bukatzen denean... –hura esatean emakumearen etsipena ikusita, jakin izan zuen konbentzitu egin zuela.

–Tira! Mateo honantz dator. Lasaiago mintzatuko gara beste batean, eder hori! –Emiliori emakumeari min egiteko gogoia piztu bazitzaion ere, bazter utzi eta irribarrez erantzun zion.

–Egun batean gogoratuko dizut oraintxe esan duzuna.

Edonola ere, bere berdinekin, bera bere izen-abizenaz ezagutzen zutenekin, kontuz ibili behar zuenez, Emiliok Mercedesekiko harremana mugatu behar zuen. Bazkaria bukatzean, postreak hartzen ari zirela, hainbat gauza adostu zuten eta beste bilera batzuetan lankidetzaz ziurtatuko zuten. Azken batean hura negozio-bazkari garrantzitsua, baina arrunt bat zen. Horretarako egiten zuten, negozio handiak egin ahal izateko. Emiliori bere lanak ez zion gehigi axola. Gogorik gabe ere, enpresarako negozio onak eta dirutza egitea erraz suertatzen zitzaion.

Jatetxetik atera zirenean, haiek utzi eta “ehizera” atera zen Emilio. Emakumeari min egiteko gogoz geratu zenez norbait bilatu behar zuen frustrazioa gainditzeko. Antzeko emakume bat bilatuko zuen. Arazorik ez izateko masokista bat bilatuko zuen. Gizonak, beti dotore, baita oso informal jantzen zuenean ere, mozorrotu gabe, ile beltza motz eramaten zuen, bere buru, gorputz eskultural eta aurpegi ederra agerian utziz. Gainera, txukuntasunaren pertsonifikazioa zen. Nolanahi ere, Emiliok, espresio aukeratu batekin eta irribarrearekin laguntasuna adierazten zuen, baina bere begi beltz handiek eta bekainek beste zerbait adierazi zuten: hoztasuna.

GG-k ez zuen denbora luzez inor topatu aplikazioaren bidez eta bestela ere terrazetan bilatzea erabaki zuen. Iruñeko zabalguneko oinezkoentzako kale hartan ikuspegi zabaleko lekua bilatu zuen. Terraza baten barnealdean leku nahikoa aproposa topatu zuen. Ez zuen inguru guztia kontrolatzerik, baina erdi ezkutuan geratu zenez ziurtasun handiagoa izan zen. Eserita zeuden gehienak lagun-taldeak ziren. Nahikoa berandu izanda ere, burrunba handia egiten zuten solasaldi zaratsuekin. Kaletik zebiltzanak ere bikoteak eta kuadrillak animatuta zeuden “juebintxo” deiturikoa ospatuz. Gazteen artean ikasle asko zebiltzan ikasturtearen bukaera ospatzen.

GG-k ondoko komuna publikoan jantzi zuen ileorde gaztaintzara. Txano, betaurreko eta jarrerarekin adinertaineko intelektual edo profesional bat zirudien. Terrazako aurreko lekura itzuli zen. Disimulatzeko, berrogei bat urteko ondoko emakumezkoekin atseginarena eginez erdietsi zuen haien arretoa. Emilio, beraien bizimoduez eta sortzen ziren solasgaiez gauza interesgarriak asmatuz emakumeak entretenitzen zituen bitartean, harrapakina bilatzen ari zen. Handik hurbil mahai bat libre geratu zenean bi emakume gazte hurbildu ziren. Zaila zen beraien adina asmatzea, oso ederrak zirelako. Hogeita bost bat urte izan zen zituzten. Interesgarriak iruditu zitzaizkion gizonari, baina ezin zituen ondoko damak baztertu. Zeharka begiratu, haietako emakume bat beltzarana, altua eta erakargarria, pertsona interesgarria izan zen zela pentsatu zuen. Bestea, txikiagoa, ilegorri samarra eta mardulagoa zen eta susmo txarra izan ez balu gizonak haiekin bilatuko zuen harremana eta ez aurrean zituenekin. Pixka bat gehiago begiratu zuenean konturatu zen haiek inguruari begira zeudela, norbaiten bila. Adi egon zen ea zertaz ari ziren. Nabaritu zuen konfiantza zutela eta isilean solas bitxi baten esaldi zatiak eta hitz solteak heldu zitzaizkion. Euskaraz ari ziren.

Ainarak eta Lalak, paseoa zebiltzala, terraza batean gazte batzuk altxatzen ari zirela ikusi zutenean hurbildu eta galdetu zuten esertzeko bertze inor zain ote zegoen eta inolako eragozpenik ez zenez zebitzariak mahaia garbitu ondoren eseri ziren. Beren kontuez ari ziren, baina era berean begiradak botatzen zituzten norbait bilatuko balute bezala. Beraiek ere ez zekiten aisialdian, lanean ziren edota lana bitartean erlaxatzen ari ote ziren. Lalak tonika eskatu zuen eta Ainarak kola bat. Zerbitzatu zituztenean jarraitu egin zuten solasarekin, batzuetan egiten zuten nokan, gauza pertsonaletan ari ziren seinale.

–Lala, lasaiago hartu behar dun ikerketa –emakumeak zalantza adierazi zuen.

–Lasai nagon, baina kezkatzen nain gaixo horrek egiten ahal duenak.

–Alferrik ari haiz. Gozatu arratsaldeaz eta giroaz. Begira jendea nola dabilen.

–Horretan ari naun. Halere..., edonor erasotzen ahal dinate...

–Lala..., faborez!

GG-k ahal izan zuenean arreta gehiagoz begiratu zien emakume gazteei. Ez zuen dena aditu eta ez zuen euskara ulertzen baina susmatu zuen norbait bilatzen ari zirela. Hala ere, ez ziren berak bilatzen zituen gazte inuzenteak, emakume eginak eta argiak baizik. Ez zekien zergatik baina haiek begiratzeko moduak behingoz arrisku sensazioa sortu zion. Ahal izan zuenean ondoko emakumeei agur esan eta kanpora mugitu zen. Joaten ari zela, Ainarak zerbait aipatu zion Lalari.

–Lala, gizon dotore bat bilatzen ari gara eta ez da oso erraza izanen –Lalak ez zuen horrela pentsatzen.

–Begira, orain altxatu eta mugitzen ari den hori dotorea da eta nahiko gauza piloa erabiltzen du bere aurpegia ezkutatzeko...

–Eta zer egin behar dugu, gelditu eta galdekatu? –Ainara harrিতa zegoen.

–Zergatik ez –une hartan gizona lasterka atera eta jende artean ezkutatu zen bi lagunei altxatzeko eta atzetik ibiltzeko aukerarik aman gabe.

2021eko maiatzaren 21a, ortziralea.

Goiz loriotsuak agurtu zituen etxeokak. Kasualitatea izan zen denak, etxeok guztiak, ordu haietan elkartzea, baina Arantzak gaueko txanda eginda elkartu zitzairen eta Patxik sendagilearekin zuen hitzordua handik gutxira, tendinitis baten ondorioz tratamendua eta botika behar zituelako. Bi seme-alabek ere klaseak izanen zituzten: Saioak handik ordu batera eta Asierrek hamaikak aldera.

Isilik gosaltzen zuten bitartean, etxeokak irratiko berriak entzuten ari ziren. Esatariek aipatu zuten Ceutako migratzaileen krisia lasaitu zela. Gaia, berrehun “MENA”-ren laguntzara pasa zen. Euskal Herrira hamalau adin gutxiko helduko ziren, haietako 6 Nafarroan hartuko zituztenak. Bestalde, Ekialde Hurbilean Israel-Palestina gatazkan su-etena edo bonbardaketen gelditzea gauzatu zen. Joe Biden-ek, AEB-etako presidentek, su-etena Netanyahu eskatuta ere, honek ez zuen onartu nazioarteko eskaera, autodefentsaren aitzakian. Eraso militarrik gutxitu ondoren, hildakoak asko ziren; zauritu pilak aparte, ehunka palestinar eta hamar bat israeldar hilda gertatuz.

Etxeko guztiek deitoratu egiten zituzten adin gutxiko migratzaileen egoera eta palestinarren bizimodu tamalgarria. Ezintasunezko komentarioak egin ondoren eguneroko kontuetara lerratu ziren. Arantza neke eginda zegoen eta lo egiteko beharra zuen. Nolanahi ere, aulkitik altxatu zenean etxeko martxa zuzendu zuen.

–Ea! Nork egingen ditu erosketak? Erosgaiak hozkailuaren atean idatzita daude. Gauza batzuk amatxik eskatuak dira eta bertzeak behar ditugu igande-astelehenean guretzat. Nik neronek prestatuko dut bazkaria, baina laguntza behar dut –Saioa desenkusatu zen.

–Nik ez dut astirik eta ez naiz bazkaltzera etorriko, Paulekin zerbait bizkor bazkaldu eta oposizioko gaiak moldatu behar ditugulako. –Patxi berandu helduko zen eta denek zekiten ez zuela astirik. Asierrek kontatu zien egingen zuena.

–Nik goiz bukatuko ditut nire eginbeharrak, ahal izanez gero egingen dut goizean, bertzela arratsaldean – Arantzak argiago adierazi zien.

–Arratsaldean ez da arrainetan aukerarik onena izanen. Sunbillara postreak eta arrain freskoa dira eraman beharrekoak. Mesedez, Asier, ahal bada, egizu erosketa lehenbailehen –Asierrek onartu zuen.

–Ongi da!

Gauzak horrela, denak mugitu ziren nor berera. Erosketak egin ondoren Asier liburutegira joanen zen ikastera. Saioak klase pila zuen eta ez zuen astirik ezertarako. Lana bukatuta, Saioa arin mugitu zen Paulen pisura. Bertze inor ez zegoen eta pizza bat konpartitu zuten sukaldean lehenbailehen lanean aritu ahal izateko. Musukoa erabili zuten distantziak mantentzeko. Denbora galdu gabe, gaien testuak erreparatu zituzten ordenagailu batean. Pantailan Drive dokumentuan konparatu zituzten beraien bertsio eta iradokizunak. Paulek zuzentzen zituen testuak, Saioaren iradokizunak kontuan hartuz. Ordu haietan gai asko berrantolatu zituzten. Apunte onak eta eskema txukunak zituzten. Gai batzuk izan ezik, haiek bezala berrantolatu behar zituztenak, oposizioko lan gehienak eginak zituzten. Hilabete eskas batean azkeneko erreparatuak egingen zituzten.

Saioa, behin etxera helduta, nekatuegi zegoen ikasten jarraitzeko eta amatxi Margaritari bisita egitea pentsatu zuen. Aitaren ama aspaldian zen alarguntsa eta zaharren egoitzan pandemiagatik denbora luzez ezin izan zuten bisitatu. Azken aldiak etxekoek askotan egiten zizkieten bisitak. Aita arratsalde gehienetan pasatzen zen une batean eta Saioa denbora pixka bat zuenean. Laster batean hantxe izan zen eta neurriak hartuta paseo bat egin zuten barneko patioan. Asteburuan bisitatuko ez zutenez normalean baino denbora gehiagoz egon zen biloba amatxirekin. Adinetan aurrera, amatxi Margaritak nahikoa ongi zuen burua. Aspaldiko Tafallaz, familiaz eta bizitzaz gauza asko kontaktzen zion bilobari.

Saioa etxera mugitu zen afaltzera. Bidean zebilela, emakumeak aurrerantzean, ikasturteko azken hilabetean, aste eta egun gogorrek pasatuko zituela pentsatu zuen. Lanak aparte eta oposizioez gain egoera pertsonal beldurgarria bizi eta konpondu beharko zuela eta ez zekien hura gainditzeko gauza izanen zen. Afarian etxeko guztiak elkartu ziren. Dena den, gurasoak berehala oheratu ziren hurrengo egunean goiz mugitzeko eta Sunbillara abiatzeko. Saioa ere laster joan zen gelara, oposizioetako gaien prestatetekin nekatuta zegoelako. Oheratu baino lehen anaiarekin mintzatu zen.

–Asier, ez al zara aterako? Ikasi behar zenuela aipatu zenuen, baina ez zaitut oso animatuta ikusten –gizon gazteak baieztatu zuen buruaz.

–Ez. Erran nizuen bezala astelehenean lan garrantzitsu bat aurkeztu behar dugu. Larunbata ongi aprobetxatu behar dugu lan hori burutzeko eta azken azterketa prestatzeko. Bihar goizean goiz geratu naiz Xabirekin. Larri gabiltza ikasurteko azken txanpan. Zu ere... ez zabilta oso pozik. Zer duzu Saioa? Burumakur ikusten zaitut! –Saioak kostata eutsi zion malkotan ez hasteari.

–Bai. Zuri bezala gertatzen zait. Ez dut atsedetik izanen oposizioak egin artean. Hilabete bat barru lehen probetan ibiliko gara eta uztaila erdia pasako da alde praktikoaren proban aritzeko...

–Saioa, ezin duzu zure ezinegona disimulatu. Azken aldian ez duzu irribarrerik egiten... –neskak erretolika eten zion anaiari. Ez zuen solasean jarraitu nahi.

–Asier, utzi bakean. Orain oso gaizki nabil eta denbora behar dut. Egun batean kontatuko dizut gertatzen ari zaidana, baina orain joan behar dut ohera. Gabon –anaiak gaiarekin ez zuela jarraitu behar sentitu zuen.

–Ongi da. Ongi lo egin eta zaindu zeure burua!

–Berdin.

Bitartean, Ainarak eta Lalak koordinatu zuten gaizkilearen bilaketa. Udaltzain eta foruzain batzuk Ainararen aginduetan zeuden. Gorka eta Maite detektibe-zelatariak ere gazteen biltokietatik pasatuko ziren ea zerbait arraroa eta susmagarria topatuko ote zuten. Egin beharrekoa ez zen bat ere erraza: dotore eta hogeita hamar bat urteko gizona bilatu behar zuten gazteagoen artean. Harrapari edo susmagarri bat baino gehiago topatuko zuten. Kontua psikopata hura topatzea zen. Non eta terrazetan bilatu behar zuten. Terraza, garaiko paradisua. Gau hartan, Lala, Gorka eta Maite alde zaharraren inguruan ibiliko ziren bilaketan eta Ainara eta Garbiñe zabalgunean. Banatzean Ainarak zalantza bat adierazi zuen.

–Lala, atzoko gizon susmagarria izanen balitz, gaur ez litzateke ekinean ibiliko –Lalak ez zuen berdin pentsatzen.

–Ez dakigu, eta ostiral gaua momentu aproposa da bilaketarako.

–Baliteke.

## 8 - Ekaitzaren aurretiko barealdia

2021eko maiatzaren 22a, larunbata.

Goizeko hamarrak ziren Burlatetik abiatu zirenean. Autoko aurreko eserlekuetan Arantza eta Patxi “mozorrotuta” zeuden musuko eta betaurrekoekin. Atzealdekoetan, Saioa eta Miren aireztatze naturala eta hotza jaso behar zuten aurreko leihoak erdi irekita baitzituzten. Burlatetik atera berritan Arre ondotik pasa zirenean oihuka ari ziren kanpoko haizearen zaratak edozein solas zailtzen zuelako.

Berrogei minutu beranduago Sunbillan sartzen ari ziren. Zirimiria ari zuen eta egun ilun samarra izanda ere, bazirudien naturaren berdeak margotu berriak zirela eta herriek ia paisaia naif bat osatzen zutela. Aitona-amonen bi solairuko etxea ederra zen eta lorategi eta leihoetako landare loredunek are poetikoagoa egiten zuten ingurua. Aparkatu bezain pronto sartu ziren etxean, ez bustitzeko. Pellok eta Sarak harrera egin zieten jantoki-egongelako mahai gainean kafea, esnea eta bizkotxo egin berria eskainiz. Sara eta Pello adinekoak izanda ere, oso biziak ziren. Pandemia-neurriengatik distantzia mantendu eta besarkada eta musuak eman ezinik, umorez eta hitz goxoz agurtu zituzten familiakoak eta Miren. Guztiek zoriondu zuten aitaxi eta hamaiketako goxoa hartuta zeregin desberdinetara banatu ziren bazkaria bitartean. Pello eta Patxi baratzerara joan ziren, Sara eta Arantza sukaldera eta Miren eta Saioa, ateri zuela aprobetxatuta, badaezpada aterki bat harturik, zubia gurutzatu eta elizako plazara eta parkera hurbildu ziren paseo eginez. Eguraldia momentuz egonkortu zela pentsaturik Bidasoa ondoko ibilbidea jarraitu zuten gustura. Herritarrekin gurutzatzen zirenean agurtzen zituzten elkar. Inor oso ezagunik topatu ez zuten lasai aritu ziren inguruko zuhaitz, bertzelako landare eta loreei begira. Errekaren marmarraren laguntzaz lore ederren bilaketari ekin zioten. Maiatz lore sorta bana bildu zuten.

Handik gutxira, berriro zirimiria ari zuenez, aitaxi-amatxiren etxera itzuli ziren. Amatxi Sara berez herriko bertze etxe batekoa zen. Haiek ondoko herri batetik joan ziren amatxi txikia zenean. Etxea itxura txukun-polita izateaz aparte handia zen. Garai batean nekazal-etxea izandakoa, beheko solairuan jada ez zen ukuilu bezala erabiltzen eta tailer bat antolatu zuten. Bi lagunek bisitatu zuten etxabea. Aitaxiren aita zapataria zen, hondatutako zapata-konpontzaile eta egile. Hamarkada batzuk lehenago, aitaxik tailerra berrantolatu zuen, aspaldiko altzariak eta tresnak erakusteko moduan utziz. Han, aitaxik bitzta osoko bere zaletasuna landu zuen: espazio irekian, aspaldiko tresnak, liburuak eta argazkiak bilduz.

Bi gazteek familiaren eta herriko oroigarriak aztertu zituzten. Han ziren etxeko aspaldiko sukaldea berrantolatua, lanerako tresnak, egongela zaharraren altzariak eta logela bat, denak gitxienez ehun urte lehenagokoak. Etxekoek zekitenaren arabera aitaxiren familia-adarra bi mende lehenago inguruko borda batetik jaitsi ziren “Mieltoarena” etxe hartara. Familiakoak abeltzainak eta nekazariak izan ziren, argazkietan ageri zirenak. Azken mendean birraitona zapataria izan zen, haren oroimenez oinetakoak, tresnak eta lan-mahaia han zirelarik. Aitaxik, berriz, kanpoan egin zuen lan Lesakako Laminazioetan. Etxabetik atzealdeko baratz eta lorategira atera ziren bazkaria bitartean estalpeko besaulkietan esertzeko eta itxoiteko. Handik hurbil, aitaxi dorada batzuk parrilarako prestatzen ari zen.

Bazkaria gustura ospatu zuten. Amatxi Sara sukaldari ona zen. Amatxi amaren laguntzaz alberjiniak beteak labean prestatu zituen, Miren barazkizalearen ustez munduko onenak. Plater nahikoa arina eta goxoa hartuta, arrain xerrak dastatu zituzten. Ondoren, tarta banatu zuten. Aitaxi Pelloren urtebetetzea ospatu zuten kaba eta freskagarriekin. Guztiek betiko kanta abestu zioten eta zoriondu zuten. Asierrek zoriondu omen zuen goizean.

Arratsaldean, gizonak batetik, emakume helduagoak bertetik ibili eta bi emakume gazteak herriko beren lagunekin geratu ziren. Lagun batzuk kanpoan ziren eta bertan Agurtzane eta Pantxo zeuden. Pantxoren etxean geratu ziren. Pantxok Donezteben egiten zuen lan udalean bulegari eta Agurtzane denda bat zeukan herrian, bertako produktuak saltzen zituelarik. Gustura mintzatu ziren beren bizitzaz, "maria" erretzen eta zerbezak edaten zituzten bitartean. Merienda hartu zuten beranduago. Momentu batean lagunek gogoratu zuten amatxi Sara Zubieta, txikitan bi edo hiru urtetan beraien andereño izan zela eta oso gustura aritu zirela lehenengo gauzak ikasten, kantuan eta dantzan eta, nola ez, herri txikia izaki, Saioaren aitaxi Pello ere ezagutzen zuten lagunak.

Pello Osinaga jubilatuta ondok herriko museo-gela etnografiko eta antropologikoak antolatu zituen udalean, lagun batzuen laguntzaz. Herriko Etxeko gela batzuetan bisita azkarra egiteko moduan tresna txikiak eta argazki bildumak antolatu zituen, gehienak lanbideak, lanak, kirolak eta denbora-pasak, aurreko mendeko bizimodua adierazten zutenak. Erakusmahaietan idazkiak eta tresna txikiak zeuden antolatuta. Bestalde, itxuraz etxe bateko gelak antolatu zituen, bai bere etxean eta baita herriko etxeko biltegi batera eramanez zituen aspaldiko makinak eta tresnak. Objektu gehienak nekazaritzakoak ziren, baina baita garraiorako zalgurdi bat. Aparteko bilduma etxeko tresnena zen, ikusgarriena etxeko sukaldea. Interesgarriena Herriko Etxean zegoen, oihalgintza tradizionalako erakusketa. Lehenagokoa zen etxeko bilduma, urteetan poliki aitaxik hasi zuena.

Egun argitan eta ateri zuela aprobetxatuz paseatzera joan ziren gazteak. Errekako bidetik mendialdera jarraitu zuten tontor txiki bateraino eta bueltan. Tartean Agurtzane mintzatu zitzaizkien dendako martxari buruz. Astez lan gutxi zuen, gehiena elikagai ekologikoak laborariengandik jasotzen eta eskaeren arauera paketeak egiten pasatzen zuen eguna. Iruñean eta Donostian saltzen zituen produktu gehienak. Zoritxarrez asteburuan ere larunbat-igande goizetan ireki behar izaten zuen goiz erdian "turistei" saltzeko. Emakumea kexatzen zen, baina gustukoa zuen lana eta denbora zuen online ikasketa desberdinak egiteko. Naturzalea zen. Osasun eta garbitasunerako produktu batzuk lantzen eta saltzen zituen, xaboiak eta kremak gehien bat.

Aitaxi-amatxirenean afari arina egin behar izan zuten, bazkari oparoagoaren ondorioz. Dena den, ogi-xerrak tomate eta olioarekin hiru azpiletan banatuta zituzten mahai luzean ongi banatuta. Miren afari eskasa zela pentsatzen hasi zenean, ardo beltza, urdaiazpiko eta gazta plater handietan atera zituzten.

Gauean Agurtzane autoa gidatu zuen Donezteberaino lagunak eramanez eta herrian itzuli txiki bat egin ondoren kaña batzuk eskatu zituzten terraza batean. Han bizi zen bertze lagun bat: Zuberoa agertu egin zen eta ordu batzuk pasa zituzten haren etxean musika xuabea entzuten, hizketan eta edaten. Berriro Sunbillan, bi lagunek ez zuten logalerik eta Mirenek etxeaz eta aitaxiz galdetu zion Saioari. Birraitonak nekazal-lurrak saldu, etxea handitu eta tailerra hobeki hornitu zuen zapatari aritzeko. Pellok ez zuen aitaren lanbidean jarraitu. Haren anaia-arrebak ere joan ziren, bat Donostiara eta bertze biak Hondarribira eta Irunera. Pellok auto-tailerra utzi zuen eta Laminazioetara sartu zen ezkondukoan. Amatxi Sara andereño izan zen Sunbillan eta bertan ezkondu zen aitonarekin. Ama, Arantza, alaba bakarra zen. Pello jubilatuta zenean baratza lantzeaz gain artisautza eta aspaldiko ohiturekin interesatuta, hondatutako traste zaharrak konpontzen hasi zen. Esku trebeak zituen eta haren aitaren tailerra erabili eta osatu zuen denbora-pasa haietarako. Ez zen harritzeko, bizitza erdia Berako tailer batean mekanikari ibili zelako. Bestalde, aitaxik eta Laminazioetako bertze lankide ohiek amiantoarengatik gaixotutako lankideen eskubideen alde egiten zuten.

Larunbat arratsean Asierrek festa antolatu zuen pisuan, baina gehiegi ez zikintzeko Xabi eta bertze bi lagun baino ez zituen gonbidatu. Goizean eta arratsalde erdian Xabi eta biak ikasten aritu ziren jo eta ke. Beranduago,

edariak zituztenez, pizza eta janari txinatarra eskatu zituzten afaltzeko. Musika eta bideoak jarri zituzten festa lasaia eta dantza egiten zuten bitartean.

Bestalde, egun hartan, arratsean, Ainara eta Garbiñe lankideak Donibane eta Iturramara atera ziren patruilan eta Yamaguchi inguruko terrazetan miatzera hurbildu ziren. Itzulia egin zuten parke osoan zehar eta azkenean erdigunera begira mahai batean eseri ahal izan ziren zerbait hartzeko. Gazte kuadrillak elkartzen ari ziren multzoetan, poltsak zeramatzatela. Bi udaltzainek bertze bi bikote uniformedun ikusi zituzten ordu batean zehar pasatu zirenean. Bat-batean handik berrehun bat metrora algarra handia sortu zuten gazte batzuen arteko borroka zirudien batean. Bi lankideak altxatu eta arin hurbildu ziren lekura. Erasotzaileari heltzeko hurbildu ahala, “kabroia harrapatzeko” entzun zuten oihuen artean. Garbiñek uste izan zuen, imajinatu zuen, psikopata neska bat bahitzen ari zela. Ainarak ez zuen hainbestekoa pentsatu eta Garbiñeri ustezko erasotzailea harrapatzeko edota babesteko oihukatu zion, berak besteak geldiarazten saiatzen zen bitartean. Garbiñek gizon gazte bat geldiarazi zuenerako inspektoreordeak plaka erakutsiz lekuan gelditzeko agindu zien bertze neska eta mutil gazteei. Zer gertatu zen galdetuta guztiak batera oihukatzen hasi zirenez udaltzainak isiltzeko eta neska bati gertatua kontatzeko agindu zion. Bertzeak mutututa, negar imintzioen artean hark azaldu zien ihesean zebilen gizona bere mutil-lagun ohia zela eta hark bera festatik eraman nahi izan zuela. Laster, udaltzain batzuk agertu eta liskarrean nahasitako bi mutil, neska eta “bahitzailea” eraman zituzten komisariara.

Ez zen denbora gehiegirik pasa Lala eta Maite agertu zirenean. Istilua eta bahiketa ahaleginaren berri udaltzainen irrati bidez jakin zuten eta laguntzera hurbildu ziren. Elkar agurtuta Ainarak gertatua azaldu zien Lalari eta Maiteri. Detektibe pribatuak galdetu egin zion Ainarari eraso matxistei buruz.

–Orduan ez da dudarik, gizon hori ez da guk bilatzen duguna. Zenbat genero indarkeria kasu izaten duzue? – Ainararen lankideak erantzun zion.

–Ez dakizu zenbat! UEAZ/SMAM-ak, Udaltzaingoko Emakumeentzako Arreta Zerbitzuak, 60 bat salaketa bideratu ditu aurten ikertzeko edota laguntzeko –Maitek, harrituta, galdetu egin zion.

–Horrenbeste kasu salatu dute aurten? –Garbiñek erantzun zion datu gehiago eman.

–Horiek dira Iruñeko udal zerbitzuetan ikertzen eta laguntzen ari direnak. Nafarroako Berdintasunaren Institutuaren arabera Nafarroa osoan 2021. urtean apirila bitartean 500 bat eraso sexista zenbatu dira eta gezurra badirudi ere, 16 bat bortxaketa-salaketa jaso izan dira. Buruz gogoratzen dudanez 1500 baino gehiago izan ziren genero indarkeriagatik egindako salaketak 2020. urte osoan. Epaiak 140 izan ziren eta haietatik % 90etan zigor-epaia eman zuten. Askotan 30 urte baino gutxiagoko emakume gaixoak izaten dira biktimak. Hildako emakumeak..., beno gehiegi hitz egiten dut... –isildu zen, baina bertzeen jarreragatik informazio gehiago eskatzen ziotenez jarraitu zuen—. Mila emakume inguru daude arriskuan Nafarroan. 600ei nolabaiteko babesa ematen diegu eta haietatik 180 batek bortizkeria-arrisku handi samarra izanda segimendua behar du. Barkatu erretolika botatzeagatik, baina duela gutxi arte horrelako talde berezian ibili naiz eta gero eta gehiago dira kasuak. Egia da salaketa gehiago ere egiten direla, baina uste izaten da kasuen %33 baino ez dela salatzen. Edonola ere, EAIV-etan, “Equipos de Atención Integral Víctimas de Violencia de Género”-etan, laguntza sozial, psikologiko eta legala ematen dizkiete eta baita laguntza materiala bideratu behar bada –udaltzainak eten egin zuen kontaketa–. Barkatu, matrakagatik –Lalak zerbait adierazi zion.

–Lasai. Ulegarria da horrelako egoerak bizi izanez gero. Harrigarriena da horretaz informazio eta sentsibilizazio gehiago ez izatea. Gainera, gure bilaketarako ez da alferrik izanen gehiago jakitea. Kafe bat edo nahi duzuen har dezakegu eta kontatzen ahal diguzue gaiari buruz orain ari garen kasuan laguntzeko.

Lala eta Maite solasean aritu ziren momentu batez udaltzainekin. Beranduago alde zaharrea eta zabalgunetik ibiliko ziren susmagarriaren bila. Lala Ainarari zerbait aipatu zion bilaketan jarraitu baino lehen.

–Ainara, oso interesgarria izan da Garbiñek kontatu diguna eta uste dut bortizkeria arruntagoekin ez nahasteko psikopataren datuekin nolabaiteko profil fisikoa ere osatu behar dugula..., bertze gizonetatik desberdintzeko.

–Lala, guk ez genituen haren aurpegia eta begirada ikusi. Mozorrotuta zegoen gainera –esan egin zuen Ainarak harrituta.

–Baina..., badakigu itxura ona, txukuna eta dotoreaz aparte, 1,80ko garaiera duela, mehe-gihartsua dela, hogeita hamar bat urte izan ditzakeela, mozorrotu badaitekeela ere eta bi tik dituela, bata burua makurtzea arretaz begiratzen ari denean eta bertzea ezker oinarekin errenka joaten dela arin mugituz gero.

–Orain diozula, arrazoi duzu. Nik inkontzienteki banituen ezaugarriak buruan eta baita nolabaiteko itxura ere, baina mozorrotzearekin despistatu naiz. Bai, arrazoi duzu. Bilaketa taldeei ezaugarri horietaz ohartu behar diegu.

GGk Medialuna-ko parkean 16-20 urteko gazteak topatu zituen botiloi egiten. Ez zen haiengana hurbildu, haiek horda bezala jokatzeko baitzuten musika disko, erregeton edo hip-hop dantzatzeko. Dena den, hark inurritegia zirudien, jendea noraezean batetik bertzerara ibiltzen zelarik. Eskarmentuz inguru lasaigo eta jende helduago eta bakartuagoekin jokatzeko ohitura zuen. Medialunako tabernara hurbildu zen. Musika ez zen hain zaratsua eta hamarkada batzuetako musika ezaguna jartzen zuten. Han, terrazan adin desberdinetako helduak topatu zituen. Goi-maila sozioekonomikokoak ziren eta asko adin ertaineko eta unibertsitarioak izateko itxura zuten. Emakume eta gizonen kuadrillean gehiago aztertuta, zailagoa izanen zela pentsatuz, bi gizon gazteri begira geratu zen. Unibertsitarioak izanen ziren, itxuraz. Haiengana emakume gazte eta eder bat hurbildu zitzaion. Gizonek ez omen zioten kasurik egin eta orduan emakumea GG-ren ondora mugitu zen. Prostituta bat zen. Gizonak ez zion hasieran kasurik egin, baina hurbildu zenean panpina aurpegiko emakume hura torturatzen imajinatu zuen bere burua. Presarik gabe negoziatu zuen, azkenean konbentzitzeko. Bazuen nora joan. Bazekien txalet bat hutsik egongo zela.

2021eko maiatzaren 23a, igandea.

Berandu altxatu ziren etxeko guztiak. Zirudienez gurasoak eta aitatxi-amatxi berandu arte aritu ziren hizketan gustura. Bi gazteak gosaltzera agertu zirenean besteak itzuli baterako prestatzen ari ziren. Aurreko egunean ez bezala goizean denak Doneztebera joanen ziren amatxi Sararen ahizpa Pantxika bisitatzera Saioaren izeba-amatxi, senarra eta familia ez baitzituzten pandemia garaitik ikusi. Izeba Pantxikak, nola ez, harrera antolatu zien Doneztebeko etxerik ederrenetako belardi-lorategian, denak lasai egoteko. Harrera beroa, baina tamalez besarkadak eta musuak keinuzkoak baino ez ziren izan, pandemiako neurriek behartuta. Izeba-osabak eta haiek solas gurutzatuak izan zituzten. Pantxikaren torrijak eta ardo gozoa dastatu zituzten eserita, eguzkiaz gozatu eta familia kontuez mintzatzen ziren bitartean. Eguerdian Sunbillara itzuli ziren. Hiriko bisitariak joan baino lehen zerbait bazkaldu zuten, ez anitz, beteta zeudelako. Aurreko egunean sobratu ziren alberjiniak ahorratu ahal izan zituzten eta enpo zeudela liseriketari laguntzeko amatxiren alkoholik gabeko likorea hartuta abiatu ziren autoz Burlatara.

Egun hartan, goizean goiz, GG esnatu zenean loaren azkeneko lorratzak kendu ezinik gogoratu zen ordu batzuk lehenago gertatuaz. Atseginaren gainetik betebeharraren sentsazioa gailendu zen. Argitasuna nabari zen kanpoan eta pertsianak igo zituen egindakoaren arrastoak ezabatzeko. Lehen lehenik gorpua plastiko batean bildu zuen, garbikari batekin ADN arrastoak ezabatu ondoren. Gogoratu egin zuen gelan eta etxe osoan aztarnak garbitzeko. Bat-batean konturatu zen suposatzen zela bertakoak kanpoan zirela. Bizilagunek susmagarritzat hartuta polizia deitu ahal zieten, pertsianak erdiska irekitzeagatik norbait txaletan zebilela ikusiko zutelako. Ukitutako arropak poltsa batean sartuta, alkohol eta lejia bidez garbitu zituen altzari eta gelako gauza guztiak. Arin bere arrastoak ezabatu eta mozorrotu zen. Gorpua hantxe bertan utzi behar izan zuen. Beranduegi zen eramateko. Etxetik atzealdeko atetik atera zenean eskularruak kendu zituen eta lorategitik bide txar batera atera zen. Plastikozko poltsa urruneko edukiontzia batean botako zuen. Ez zituen berrehun metro egin udaltzainen eta foruzainen bi auto agertu zirenean. Justu libratu zen.

Igande goizean Jago Martin zen Udaltzaingoko Larrialdietarako Taldea-n guardian zegoena. Ordu pare bat pasa zen inolako arazorik gabe. Asteburuetan zerbitzua eskasa izaten zen. Hala ere, egun haietan Ainara Tartas inspektoreordeak errefortzua egin zuen arratsalde-gaueko ordu batzuetan eta ofizialak agindua zuen zerbait gertatuz gero nagusiar deitzeko. Goizeko 8:16an udaltzaingoko patruila batek Txantreako txalet batean gorpu bat topatu zutela abisatu zuen. Bizilagunek etxe huts batean mugimendu arraroak salatuta agertu ziren foruzain batzuk. Atea bortxatuta zegoenez, sartu egin ziren eta egongelan plastikozko bildutako gorpu torturatu bat topatu zuten. Jagok, Manu Elkano bere zerbitzuko inspektoreari deitu zion.

—Barkatu deitzeagatik Manu, baina larrialdietara deitu digute gorpu bat aurkitu dutelako. Torturatu omen dute eta dirudienez aztarnak ezabatu dituzte —Manuk, gosalduta, pentsatu zuen egiaztatu behar zutela.

–Lasai Jago, zuk aipatu duzun bezala aztarnarik ez bada forentsearen txostena izan bitartean gutxi egin dezakegu. Dena den, hartu larrialdiko telefono mugikorra eta argazki-makina eta zoaz lekuan argazkiak egitera. Lekukoei galdekatu behar diegu, dena ongi begiratu eta aztertu badaezpada. Ni orain mugituko naiz. Bidaliezadazu helbidea nire telefonora. Ados?

–Ados, Manu. Oraintxe egingen dut. Gero arte!

Handik ordu erdi batera Udaltzaingoko Larrialdi Zerbitzukoak heltzearekin batera anbulantzia agertu zen gorpua eramateko. Jagok kontuz frogarik ez ezabatzeko argazki batzuk egin zituen inguruan eta barnean. Bi udaltzainek aukera izan zuten gorpua ikusteko eta forentsearekin mintzatzeko. Honek azaldu zien lehen azterketaren ondorioa.

–Elkano inspektore, hogeita borts bat urteko emakumea, duela sei bat ordu itota hil omen dute buruko edo zapi batekin arnas bideak estaliz. Kolpeak eta zauriak ditu, baina horiek mina egiteko baino ez dizkiote egin. Uste dut bortxatu dutela... –Manuk xehetasun teknikoetan hasiko zelakoan garrantzitsuenaz galdetzea erabaki zuen.

–Ba al dago dokumentazio edo arroparik gehiago jakin ahal izateko?

–Ez. Erran behar nizun oraintxe bertan. Ez dut gehiago azaltzerik. Autopsia egindakoa, bi ordu barru, igorriko dizkizuet berehalako txostena. Ordura arte, aio.

–Barkatu eta eskerrik asko informazioagatik. Agur, bai.

Hasierako momentutik agertutako udaltzaina hurbildu zen gorpua anbulantzian eraman zezaketen ala ez jakiteko. Forentseak baimena eman ondoren alde egin zuen. Inspektoreak aztarnei buruz galdetu zion agenteari eta honek erantzun zion urduri.

–Inspektore, heldu garenean guk zaindu dugu lekua eta ingurua babestu dugu. Foruzain batek bilatu ditu aztarnak eta ADN laginak hartu ditu. Berehala agertu zarete forentsea eta zuek.

–Mila esker agente. Nola duzu izena?

–Pedro Akerreta. Zerbait nahi al duzu?

–Bai, Pedro. Segi ingurua zaintzen. Ba al dago lekukorik?

–Bai. Gure autoan dago Alfredo agentearen ondoan.

–Ongi da. Berehala joanen gara lekukoari galdekatzeko.

Txaletan itzuli bat egin zuten ezer berezirik topatu gabe. Txaleta gutxitan erabiliko zuten, latak, izoztuak, boteak eta jaki iraunkorrak baino ez baitzituzten topatu. Delitua egiteko erabilitako egongelan garbikariz eta alkoholez blaitutako plastikoa geratu zen. Han ez zuten ezer aurkituko, ezta sofa eta altzarietan ere.

Lekukoak aipatu zien goizean harritu zela txaletan pertsianetako zirrikituetatik argia ikustean. Haren lagunak ziren nagusiak orduan kanpoan ziren eta okupak sartu zirelakoan deitu zien foruzainei. Zerbait edo norbait ikusi ote zuten galdetuta erantzun zuen ikusi zuen bakarra eskale itxura zuen bat zela, plastikozko poltsa handi bat zuena. Inspektoreak, gehiago egiterik ez zutela ikusita, Jagori bulegora joateko eta parte osatzeko eskatu zion. Foruzainak ere joan ziren dena prezintatuta.

Emiliok mozorroa aldatuta urrutitik ikusi zuen gertatutako guztia. Justu-justu libratu zen. Pentsatu zuen poliziak hurbilegi izan zituela. Kontuz eta arinago jokatu izan ez balu harrapatuko zuten.

Asierrek goizean garbiketa sakona egin zuen egongelan eta komunean. Aurreko eguneko janari txinatarraren soberakin batzuk bazkaldu zituen eta alfertu baino lehen zaborra atera zuen arrastorik ez uzteko.

Gurasoak eta Saioa etxera heldu zirenean nekatuta zeuden eta nor bere txokora eta eginkizunetara mugitu zen. Saioa ikasketetan murgildu zen. Arantza lagunekin telefonoz mintzatzen izan zen denbora luzez. Patxik ere bere amarekin hitz egin zuen. Amatxi Margarita Burlatako zaharren egoitzan bizi zen, osasun eta mugitzeko arazoak zituelako eta astean hiruzpalau aldiz bisitatzen zuten familiako batek baino gehiagok. Patxik ez zuen denbora askorik pasa amarekin mintzatzen, dena den, gustura aritu zen kontu kontari Sunbillako egonaldiaz. Une batean alabari deitu zion amatxirekin mintzatzeko. Saioa eta Asier amatxiren begi-niniak ziren. Goiz afaldu zituzten soberakin batzuk, fruta eta jogurtak eta laster erretiratu ziren lotara.

## 9 - Nahiak eta ezinak

2021eko maiatzaren 24a, astelehena.

Eguna, ilun samar hasita ere, argituko zuela entzun zuen saioak irratian. Edozein modutan asteburuan lasaitu eta atsedean hartu ondoren Saioa prest sentitzen zen lan handia egiteko. Gogoz ekin zion bere eginkizunari: ikasgeletan ikasleak erdi lotan izaten ziren astelehenetan eta Saioa saiatu zen animatzen eta aktibitate-prozedura dinamikoagoak ezarri zizkien. Goiza arin joan zitzaion, baina klaseak bukatu zituenean etxeratu baino lehen hurrengo eguneko aktibitateak antolatu zituenean hasi zen urduritzen. Ulermen ariketak lotuko zituen mintza adierazpenarekin. Horretaz gain, oposizioko gaiak ikasi behar zituen ostiralean saio praktikoa egin ahal izateko. Dena den, zerbaitek kezkatzen zuen: bazekien afera ilun hura bideratu behar zuela.

Etxeratu zenean lehena izan zen eta ez zitzaion inporta bazkaria prestatzea. Ez zuen ezer konplikatu egin. Entsalada prest utzi zuen azkeneko maneatzearen faltan eta solomo xerratxo batzuk arin pasatu zituen zartaginetik etxeok berehala agertuko zirelako. Ama agertu bezain laster asteko garbiketako koadroa beteko zuten, beraien lana antolatu zuten, gizona koei beraien lana erabakitzeko utziz. Asier agertu eta bertz minutura Patxi sartu zen goretuta zegoela adieraziz.

Bazkaldutakoan, nor bere gelara mugitu zen, lasai egotera edota lo-kuluxka egitera. Arratsaldean Asier ikastera atera zenean Patxi kafea egin zuen eta ondoren sukaldea jaso eta garbitu zuen. Saioa ikasten nekatu zenean telefonoa piztu zuen. Lagunen Facebook-en begiratu bat bota, whatsapp-ak ere ikusi eta batzuei zerbaite erantsi zien. Hala ere, bertze igorle berri baten eskaera jaso zuen. GG hizki larritan ikusi zuenean haren grina gaiztoa zela pentsatu zuen. Gogo, beharra, baina era berean bere galbidea zela pentsatu zuen. GG-ri erantzun behar zion, hark telefonoz deitu baino lehen. Ikusi zuen adierazitako esaldia eta erantzun zion:

–“Noiz elkartuko gara? Nik behar zaitut. Mesedez, erantzun!”

–“Nik ez zaitut ikusi nahi. Moztu behar dugu!” –Ealdia bidalitakoan hamar minutu pasa ziren. Dena den, bazekien zerbaite jasoko zuela eta halaxe izan zen.

–“Zuk behar nauzu, nik zu bezainbeste. Elkar behar dugu” –emakumea haserretu zen. Nolanahi ere, bazekien ez zela libratuko besterik gabe.

–“Elkartu egingen gara, bai. Baina, betiko agurtzeko. Azken aldia izanen da... Azkena!”

–“Saioa, ezer ez da betiko eta ez da “azkena” esaten azkenekoa baizik” –falta zitzaiona. Ez zuen “erranahi-merranahi” hura jasan behar eta uztekotan egon zen. Bazekien, ordea, alferrik egingen zuela. Egun batzuk lortu behar zituen indarrak biltzeko eta hura bere bizitzatik erauzteko.

–“Begira GG, ortzirale gauean elkartuko gara, baina betiko uzteko”.

–“Ezzz. Ezin duzu egin!” –horrela, beltzez eta azpimarratua ikusi zuen. Saioak gorroto zuen. GG morroi hura grina gaiztoa zen berarentzat: behar eta gorroto zuena. –Ezin zen luzatu eta mezuak bidaltzeko ohitura moztu behar zion GG-ri.

–“Beno, “ortziraLEAN gauerdian betiko tokian egonen naiz” –idatzi zion azpimarratuz.

–“Saio...” –ez zuen gehiago irakurri nahi. Azkeneko ultimatuma idatzi behar zuen eta aplikaziotik atera.

–“Ortzirale gauerdian eta kitto!”.

Saioak erabaki irmoa hartu zuen. Lehenbailehen moztu behar zuen harremana edo sorginkeria, adierazi egin zion gainera. Itzali zuen telefonoa. Kosta zitzaion konturatzea, baina behin erabakia hartuta, lasaitu ederra hartu zuen.

Arantzak prestatu behar zuen afaria eta Saioak gustura lagundu zion.

GG haserre zegoen: polizia hurbil izan zuen eta gauza handirik jakin eta ikusi gabe ere, susmatzen zituen haien ibilerak. Aurreko batean Mikel askatu zuten eta orduan berehala agertu ziren txaletean, kasualitatea izanen zen asmatzea. Edozein modutan bere gogoia eta ezina anaia eta arreba haiekiko harremanak ziren. Asierrek sortzen zizkion inoiz sentitu ez zituen sentimenduak: nolabaiteko aitatasuna eta babesteko gogoia. Baina ez. Harengan gaztetasuna ikusten zuen, bere ikasle-afarak eta gogoak. Sentitu, antzekotasunez eta nolabaiteko identifikazioaz gain, estutzeko eta zapaltzeko gogoia baino ez zuen sentitzen. Saioak, aldiz, bere bikotekide ideala izan zitekeela uste zuen. Ederra, argia eta pertsonalitate handikoa. Amodioa egin zuenean, mozorrorik gabe bera benetan zen bezalakoa izan zen. Ez German eta ezta Gabriel; Emilio, benetako pertsonalitatea bizi zuela sentitu zuen. Bere izena, izaera eta bizimodua kontatzeko gogoia izan zuen.

Emaztearen ordezkio, emazte berria, bizitza berri batean kidea izan ahal zela pentsatu zuen. Maite, ez zuen maite, baina harekin erlaxatuta eta ongi sentitzen zen. Anaia-arrebak, bata zein bertzea, bere eremura erakarri nahi zituen: haiek betiko eguneroko bizitzatik eta premietatik ateratzen saiatu behar zuen.

2021eko maiatzaren 25a, asteartea.

Egun hodeitsua izan arren tarteka eguzkia ikusten zenez, Saioa arropa arina jantzita atera zen kalera autobusa hartzera. Haize hotza sentitu zuen eta damutu zen zerbait lodiago ez eramateagatik. Dena den, behin autobusean eta ondoren paseo azkarragatik ez zuen bat ere hotzik sentitu.

Ikastetxera heldutakoan kafe-makinan edaria hartu eta ingeles-mintegira abiatu zen. Ikasleentzat B1eko azterketen simulakroak klasean landuko zituzten. Edonola ere ulermen probaren simulazioa classroom-ean, online-ikasgelan ere prestatuta utzi zuen, beranduago aktibatzeke eta ikasleek errepikatu ahal izateko. Klaseak aspergarriagoak egiten zitzaizkion berari. Dena den, ikasleek simulazioak behar, eskatu eta eskertzen zituzten, praktikan gehienek egiten baitzituzten proba ofizialak ikastetxetik kanpo. Handik gutxira klaseetako zurrunbiloan sartu zen, lanerako izan ezik ezertarako astirik izan gabe, presaka aritu zen klase batetik bertzera. Arre eta so, klaseetan presaka sartu, simulakroan dena antolatu eta denborak markatzen zuena eternala egiten zitzaion, bukaeran berriro dena presaka jaso eta Internet itxita lasterrean hurrengo “basera”-klasera heldu behar zuen. Noizbait bukatu zituen lan haiek eta hurrengo egunerako lana bideratuta joan egin zen. Hurrengo egunean idazlanen zuzenketetan arituko ziren, akatsik ohikoenen adibideak aztertzeaz gain, idazlanen egitura eta eskakizunak azpimarratuz.

Etixeratu zenean, Asierrek prestatuta zuen entsalada eta azken momentuan eginen zituzten indioilar xerra batzuk. Mahaia antolatu zuen Saioak.

–Asier, eskerrak gehiago laguntzen duzun! –mutilak ez zuen sinetsi. Arrebak laudorioak botatzea arraroa zen. Edonola ere, “baina” bat espero zuen.

–Ta? Zer erran nahi duzu?

–Badakizu... ongi ari zarela, baina komunak garbitzen ere ikasi behar duzula.

–Banengoen ba! Arrebatxo, ez nazazu har haur txiki bat banintz bezala! –Saioak irri egin zuen.

–Asier, bromaz aparte, zoriondu nahi nizuke ume mimatuaren papera uzteagatik eta etxeko lanetan zure partea egiten hasteagatik.

–Mila esker. Aitortu behar dut ahal izan dudanean eskakeatu naizela. Baina, bai, etxe honetan denok egiten dugu lan eta banatu behar dugu etxeko lana. –Bat-batean, Saioak zerbait gogoratu zuen.

–Hara! Gogoratuz gero, galdetu behar dizut. Zer moduz azterketekin?

–Ongi. Gaur arratsaldean izanen dut azterketarik potoloena. Asko ikasi dut eta goizean azkeneko errepassoak egin ditut. Orain erlaxatuta nago eta gustura egin dut etxeko lana. –Arrebak irribarre handi bat eskaini zion.

–Suerte on. Ea ikasturtea ongi ateratzen duzun!

–Mila esker. Zu zer moduz zabilta?

–Lanean nekatuta, baina ongi. Oposizioekin oraindik larri azken hilabetean eta pertsonalki nahasirik...

–Zer duzu ba?

–Bizitzaren gorabeherak, bertzerik ez.

Arantza agertu zen momentuan Patxik deitu zien pixka bat beranduago agertuko zela eta bazkaltzen hasteko. Emakumeak erizain lana gustura egiten zuen, momentu txar batzuk gora-behera. Hala ere, bere bizitzan lagun batzuek gain, garrantzitsuena familia zen: gurasoak, amaginarreba, Patxi, Asier eta Saioa. Gainera, bere pentsamenduan seme-alabaren etorkizuna zen kezka nagusia. Asier ongi ari zen ikasketekin eta Saioa neska argia baina sentibera zen eta azken aldian noraezean eta zoritzarreko ikusten zuen. Bazkariaren erdian Asier dei bat egitera atera zenean garbi mintzatu zitzaion alabari.

–Saioa, oso gaizki ikusten haut. Ia ez dun nabari, baina itxurakeriak dunana larria dela erakusten din. Alaba, zaindu heure burua eta eskatu laguntza behar badun. Ez kontatu, baina erradan zerbait egiten ahal badugu –Saioak pentsatu zuen amari ez zitzaiola deus eskapatzen.

–Lasai, ama. Segituan pasako zait. Mila esker, baina aste honetan edo bertzean konpondu egingen dut.

Asier itzuli zenean normal jarraitu zuten bazkaria eta Patxi agertutakoan betiko moduan aritu ziren. Saioa pentsatzen geratu zen. GG lehenengoz ezagutu zuenetik bere bizitza iraulita geratu zen. Itxuraz betiko bizitza egiten zuen, baina zerbait aldatu zen. Gogoratzen zuen hilabete bat lehenago ohartu gabe ere zein zoriontsu sentitzen zen, baita GG ezagutu zuen eguna: lagunengandik aparte geratu zenean gizon erakargarria hurbildu zitzaion. Modu onak eta gehiegikerietan, gozokerietan aritu gabe, mintzatzeko erarik goxoenak zituen, ahots xuxurlaria harena!

Atsegintasunaren pertsonifikazioa zen. Ez zion bere izena erran. "GG" bezala aurkeztu zuen bere burua. Galdetu zion nola zegoen eta zerbait nahi zuen.

–Ez, mila esker. GG? "Gigoló" baten izena hartu duzu! Nongoa zara? –emakumeak, dibertigarria zelakoan, txantxetan hartu zuen. Gizona berdintsu jokatzeko ari zen.

–Nahi baduzu Gabriel deitu. Hemengoa. Gure aitona-amonak Madriletik etorri ziren eta amaren familia hemengoa da eta zu?

–Ni Saioa naiz, "hemengoa" ere bai. Aitaren familia Tafallakoa da, Amarena Sunbillakoa. Euskaldunak gara... Zer egiten duzu?

–Gaupasan, aspertuta zu agertu arte... –orduantxe, bere bizimoduaz galdetu ziola konturatu zen—. A! Ya! Enpresa batean gerentea naiz, baina lagunak ezkondu daude eta nik bizitzan abentura behar dut. Nahi al duzu estasi pilula bat? Ikusiko duzu ez dela arriskutsua.

Saioak onartu zuen eta horrela hasi zen, "GG"-rekin, Gabrielekin harreman berezi hura. Gizona zoragarria zen eta pilularekin inoizko gozamenik handiena sentitu zuen. Hotel batera joan ziren eta larrua jo zuten.

Asierrek primeran egin zuen azterketa. Pilula erdi batek lasaitzen lagundu zion eta uste zuen baino hobeki burutu zuen proba. Germanek, lagun berriak, eman egin zizkion lasaitzeko pilulak, baita ikasteko hain onak zirenak. Ez zuen uste kaltegarriak izanen zirenik, ez baitzuten askotan hartuko. Fakultatetik atera bezain pronto porro bat erre zuten lagunek. Nolanahi ere, Asierrek ez zuen ezer behar eta ura edanez entzun zituen lagunak komentarioak.

Emilio haiei begira zegoen. Ez zen hurbildu gaztearengana, lekukorik ez izateko.

Norbaitek bere lagunak etxatera gonbidatu zituen. Sei lagunak hiru autotan mugitu ziren. Asier eta Xabi, Iruñea ondoko industriagune batean sartu ziren hornitegi itxura zuen nabe batean. Aurre-partean paleetan kutxak eta paketeak ikusten ziren kale zabaletan. Bukaeran ate baten atzean 100 metro koadroetan egongela itxura zuen habia zuten antolatuta. Hamarna euro ordainduta nahi zuten alkohol kopuru guztia edaten ahal zuten, bukatu arte.

2021eko maiatzaren 26a, asteazkena.

Asierrek lasai hasi zuen eguna, azterketak bukatuta. Pixka bat erlaxatzea eta ikasketak aparte uztea erabaki zuen. Egun hartan lasterkan ibili zen denbora luzez eta itzuli zenean dutxatu eta komunak garbitu zituen. Erosketak

egin zituen eta itzulita, arroz baterako jakiak erdizka prestatuta utzi zituen. Oilasko puskak frijitu eta gatz-pipertu zituen eta ondoren barazkiak –azenario, piper eta tipula goxoak– txikitu eta frijituta, paella-ontzian utzi zituen. Haragiari, barazki puskei eta arrozari pare bat buelta eman zizkion zapore hartzeko. Dena den, bazkaria izan arte ordu bat falta zen eta ordu erdi eskasean burutuko zuen azken prestaketa. Bitartean, nobela bat irakurtzen egon zen.

Saioak egun ona pasa zuen lanean. Ikasgelan idaz-probak zuzentzen eta komentatzen aritu ziren. Idazlanetan ere eskakizunak nola bete zituzten aztertzen aritu ziren eta bukatzeko zerbait atsegina egin zuten: boluntario batzuek antzeztu zuten istoriotxo bat. Ikasle batek galdetu zion Saioari hain garrantzitsua ote zen ahoskera. Denen barre-algara gutxitu zenean erantzun zien.

–Zuk zer uste duzu? Zer pentsatzen duzu atzerritar batek gaizki egiten duenean?

Arratsaldean, bazkaldu ondoren, Saioak lana eta ikasketak etxean burutzen zituen bitartean Asier klaseetara joan zen.

Egun hartan berean, arratsaldeko seiak aldera, polizia foralaren kuarteleko eraikin nagusiaren ondoan forentse eta laborategiko lokaletan elkartu ziren Marta Peralta forentse nagusia, Jabier Lopez komisarioa eta Ainara Tartas udaltzaingoko inspektoreordea. Igande goizean topatu zuten emakumearen gorpuari autopsia burututa eta analisiaren emaitzak izan zituztenean egin zuten bilera. Marta Peraltak azaldu zien bi poliziei hildakoari buruzko informazioa.

Dokumenturik gabe, ezin izan zuen datu pertsonalik eman. Hogeita hamar bat urtekoa, aho-sudurra estaltzearen ondorioz itota hil zuten. Dena den, orduan torturatu zuten, imurtxiak, puntu batzuetan presioak, kolpeak eta zitzadak eginez. Odol gutxi galdu zuen hil artean. Bortxatu ere egin zuten eta ez zuten arrasto biologikorik utzi. Forentsearen irudikoz emakumea Europa ekialdekoa zen hortzeria-enpasteengatik. Gorpuak zitzadak zituen leku anitzetan, drogatzen zelako seinalea. Analisisetan heroina hartzen zuela eta GHB dosi handia eman ziotela ageri zen. Kolpeak jasotzeaz gain aspaldiko hezur hautsi batzuk zituen urte desberdinetan osatuak. Forenseak gaineratu zuen ama izandakoa zela eta sexu bidezko gaixotasunak izan zituenez, ondorioztatu zuen denbora luzez prostituta izan zela. Aipatu egin zuen gorpua xaboi-alkoholdun isurki batekin garbitu zutela, ADN arrastoak ezabatuz. Ahoan eta eztarrian top baten hariak aurkitu zituzten. Azkenik, Marta Peraltak galdera zuzena egin zien poliziei.

–Nik ez dut gehiago kontatzerik. Ba al dago bestelako froga edo arrastorik? Nik ez dakidan beste datu edo aztarnarik? –Lopez komisarioak erantzun zion.

–Zoritxarrez ez dugu bat ere aurkitu, ez gorpuan eta inguruan egin zuten garbiketagatik, ezta kanpoan ere, ezer utzi ez zutelako. Lekuko bakarrak aipatu zuen eskale batek poltsa handi bat zeramala. Uste dugu hura zela hiltzaile-torturatzaila.

–Orduan...? –izan zen emakumearen galdera.

–Orduan, ez dugu ezer! –izan zen komisarioaren erantzun etsia. Denek zekiten ez zutela arroparik topatu. Inguru zabalean bilatuko zuten edukiontzietan. Hiltzaile-torturatzailak kenduko zizkion arropak eta dokumentuak.

Forentsea joan zenean bi poliziek hitz egin zuten. Ez zuten munstroa harrapatzeko pistarik topatu eta harremanetan jarraituko zuten informazioa konpartitzeko. Dena den, Ainarak eskatu zion komisarioari bere nagusi inspektorearekin zuzenean hitz egiteko, eta horrela egin zuen honek. Azkeneko berriak eman ondoren Lopez komisarioak aholkurik zuen galdetu zion laguna zuen beste zerbitzuko buruari.

–Manu, bururatzen al zaizu zer egin dezakegun? –inspektoreak berehalako erantzuna eman zion.

–Jabier, badakizu zer egin behar dugun! Orain arte bezala jarraitu behar dugu, ikertzen eta bilatzen... – komisarioak ez zuen erantzun simple hura espero.

–Manu, mesedez! Zerbait, ideiaren bat espero nuen... Torturatua eta orain hildako bat topatu dugu. Eraiketa bat!! –inspektoreak ez zuen kritika besterik gabe onartu.

–Utzi bukatzen. Jarraitu behar dugu. Pistarik lortu ez badugu, ez da izan saiatu ez garelako. Oso argia da psikopata hori... Erran nahi dudana da saiatzen jarraitu behar dugula. Gure bilaketekin... eta sareak botatzen jarraituko dugu, noizbait zerbait lortu arte. Bide batez erran behar dizut gaizkilea psikopata integratua delako ideia Lalarena dela. Berak eta Jakerrek laguntza handia emanten ahal digute, Mikelen kasuan probatu duten bezala. Nik uste dut... –foruzainak berriro moztu zion.

–barkatu. Bai, arrazoi duzu. Jarraitu behar dugu... eta badakit zer proposatu behar duzun: nik ere detektibe pribatu horiek, Lala, Jaker eta laguntzaileak kontratatzeko proposatuko diot komisario nagusiari. Gazte horien

trebeziak eta berezitasunak ongi datozkio kasu honi. Manu, Hitz eginen al duzu beraiekin? –bi poliziek momentu batean hitz egin zuten ikerketa eta bilaketako ildoez eta agurtu zuten zortea elkarri opatuz.

Manu Elkano udaltzain-inspektorea Lalarekin mintzatu zen ikerketaz eta azkeneko berriaz. Harreman berezia zuten lan kontuaz gain. Emakumeak bere iritzia eman zion. Bilaketa intentsiboari ekin behar zioten.

–Ez obsesionatu, Lala! Zuek jarrai ezazue horrela, baina lasaitasunez.

–Uste dut zuk adierazi duzun jarrera izan behar dugula. Denok lasai jarraitu behar dugu bilaketan. Mila esker, Manu, lana proposatzeagatik.

–Zuei egin duzuen lan onagatik. Ea laster, presarik gabe elkartzen garen bertze gai atseginagoak partekatzeko!

–Horixe nahi nuke, manu. Ongi ibili!

Jende gutxi mugitzen ari zen kale-parkeetan, gaztetxo batzuk botilo bat ospatzen ez bazen. Ilargi betearen argipean gau-ibiltari batzuk abenturaren atzetik zebiltzan. Emiliok ez zuen inor gustukorik ikusi eta poliziengatik kezkatuta kaleak uztea erabaki zuen. Hala ere, GPSaren bidez Asier industriagunean zegoela jakin zuenean helburu zehatzik gabe harengana joatea erabaki zuen. Gazte harekin kontuz jokatu behar zuen, ez zion momentuz minik egin nahi eta ez uxatzeko, animalia eder eta delikatu bat balitz bezala jokatu behar zuen. Ikusi, miretsi eta laztandu baino ez zuen nahi, helburu zehatzik gabe.

## 10 - Asteburu buruhauste

2021eko maiatzaren 27a, ortzeguna.

Gauean Asierrek festa egiten jarraitu zuen berandu arte. Xabi eta biak ongi sentitu ziren azterketa behar bezala burutu ondoren eta nabe hartara joan ziren ordu batzuetan ongi pasatzeko. Musikaz eta dantzaz gozatu egin zuten. Nekatuta edo logalez etxeratzeko asmoa egin zutenean, hara non azken orduan German agertu zen pilula batzuekin. Goizaldean jende gutxiagorekin musika suabearen sorginpean solasean pasa zuten denbora. Azken unean etxeratzeko asmoz denak mugitu ziren Iruñeko erdialdera.

Egunsentiak zero zoragarria eskaini zien lurtarrei. Ilbeteak argitzen zuen zerua eta hodei gutxiak gorritz jantzi zuten ortzi-muga. Xabi joan zenean Asier billabesaren geltokira mugitu zen. Egun eguzkitsua eta beroa izanzen zuten, baina goizeko 6:40an zazpi gradu eskasek hoztasuna sentiarazi zioten gazteari. Ipar-haizeaz gehiago babesteko eraikin baten atzean geratu zen. Lehenengo billabesa 6:52an pasa zen Merindadeetatik, Burlatan 7etan sartuta, lehenengo geltokian jaitsi zen.

Etxean, sukaldera sartzean gosaltzen ari zen Saioarekin topatu zen. Arrebak otordua bukatu zuelarik katilu-platera eta mahai-tresnak harraskan utzi zituen. Astirik ez zuenez, ez zion ezer galdetuko; baina bai, galdetu egin zion:

–Egun on, gautxori! Zer moduz gauean? Zertan ibili zara? –mutilak zerbait erantzun behar ziola pentsatu zuen.

–Egun on. Ongi pasa dut lagun batzuekin, aspaldiko partez.

–Lagun batzuekin edo lagun batekin?

–Batzuekin eta batekin. Gaupasa egin dugu eta... duela aste pare bat lagun zoragarri bat ezagutu dut. Inor ez da bera bezalakorik!

–Nor da maitagarri hori? Gizonezkoa ala emakumezkoa?

–Gizonezkoa, baina ez da sexuagatik, nolakoa den baizik. Ez dugu sexurik izan, nik neskak nahiago ditut-eta. Berak bizitzaz hitz egin dit eta guztiaz disfrutatzeko ere bai. Neure burua ezagutzen lagundu dit eta lasaitu egin nau.

–Nor da gizon zoragarri hori?

–German du izena.

–Ziur al zaude ez dizula kalterik egingen?

–Ez. Ez dakit –izan zen mutilaren erantzuna. Saioak alde egin behar zuen eta horretaz mintzatzeko gogoz geratu zen.

Emakumea, trasteak hartuta lasterrean atera zen pisutik. Ezin zuen autobusa galdu. Ibilbidean anaiarekin izandako solasaz gogoratu zen. Berak ere bazuen bere German. Bere aingeru eta era berean bere deabrua. Gabrielelek ere lasaitasuna eta plazerra ekarri zizkion hasiera batean. Hala ere, ez zekien nola, gizon hark ezinegon berezia sortu eta bigarren aldian beldurtu egin zuen bere begirada bizigabearekin.

Ikastetxean, mintegira sartu zen une batez material batzuk hartzeko. Aurreko egunean atezainei eskatutako fotokopiak ongi antolatuta aurkitu zituen bere mahai-gainean. Mintza-ariketa bereziak oso egokiak ziren gai baten inguruan eraikitako trebetasun segida batean, ikasleak nekatzen zirenerako. Ikasturtea bukatzen ari zirenez, ikasleak nekatu samar zeuden eta azterketa eta errekupeazio probak ez zirenean motelxeago aritzen ziren.

Klaseen arteko ordu librean talde desberdinetako ikasleen notak Hezkuntzako Educa plataforman sartu zituen. Azterketa eta lanen ondorioz ezartzen ziren notak eta gainditu gabeko azterketak errekupeatzeko aukera zuten DBHko ikasleek. Saioa gustura aritzen zen ikasgaiarekin eta ikasleekin. Hamabortz-hamasei urteko ikasle nerabeak batzuetan konplikatuak ziren gobernatzeko, baina Saioak behintzat bere izaeraz edota bere didaktika eta jarrerarekin ez zuen arazo gehiegirik izaten. Saioak bideo batzuk bilatu zituen interneten, ikasten ari ziren topikoak lantzen zituztenak. Antzezlan labur batzuk, elkarrizketa erraz eta animatuak zituztenak ere inprimatu zituen aukeran egun hartan, hurrengo egunean edo astelehen neketsuetan lantzeko. Ziur ikasleek bideoak eta antzezlanak gustura hartuko zituztela.

Atsedenean, lankide batzuk agertu zirela aprobeixatuz kafea hartu eta Saioa solas arinetan aritu zen Eburne eta Txarlirekin. Eburne beti aieneka ibiltzen zen, nahiz eta gaizki ez egon. Gertatzen zitzaiona modu xelebrea kontatzen zuen. Txarli, berriz, serioa zen eta gauzak "serio" hartzen zituen. Hura antzezlan hura!

—Ez dakit ikasturtea bukatzeko gauza izanen naizen! Ai ene! Ikasle hauek pazientzia agortuko didate! —erran zuen Eburnek, aldi berean barre eginez. Txarlik serio hartuz animatu nahi zuen lankidea.

—Lasai, Eburne. Gauzak lasaiago hartu behar dituzu! Begira Saioak nola egiten duen: ikasturte bukaeraz gain oposizioak prestatu behar ditu. Berak bai behar duela laguntza! —Saioak, atsedena eta umore pixka bat behar zuenean, Txarliren aldarre iluna eta itsukeria jasan behar zuen!

—Txarli, utzi bakean! Eburnek ez du aholku merkerik behar ezta nik zure gupidarik. Animo, adore eta alaitasuna dira behar ditugunak!

—Horixe baietz! Ai ama! Zerbeza bat hartuko nuke eta ez ur zikin hau! —aipatu zuen handik pasa zen beste irakale batek.

—Txarlik ron botila bat dauka tiraderan giltzapean —aipatu zuen Saioak.

—Nik ez dut... alkoholik tiraderan.

—Lasai, badakit —erran zuen Eburnek barrezka. Saioak, zirikatzaile, gizonaren tiradera ireki eta pakete bat atera zuen.

—Alkoholik ez, baina txokolate goxoak lagunduko digu aurrera egiten.

Barrezka egon ziren bi emakumeak eta gizona tontakeriak egiten. Beste aldarte batekin itzuli ziren azkeneko lan-saioak egitera. Eguerdian Saioa pixka bat lehenago agertu zen etxean eta bazkaria prestatu behar izan zuen. Entsaladilla egiteko barazki izoztuak dadotan eta arrautzak egosten utzi zituen, ogia eta egunkaria eroatera jaitsi zen bitartean. Hamabortz minutuan puntuan ziren barazkiak maionesarekin nahasi, azpil batean jarri eta atun, olibak eta arrautza egosi zatiak jarri zituen gainean. Izozkailuan utzita, ordu erdian prest egonen zen egun bero hartan gustura bazkaltzeko. Tuper batean amatxik egindako albondigak atera eta desizoztu zituen mikrouhinean poliki. Ordu erdia falta zen denak agertzeko eta egunkaria ikuskatu zuen.

Saioak ez zituen egun osoan berriak entzun eta bertako egunkarian ez zuen orduko Palestinari buruzko informaziorik aurkitu. Zekienez, Palestinan su-etena oso ahula zen kazetari internazionalen arabera. Euskal Herriko kazetari batek elkarriketa egin omen zion Hamas-eko buruari eta honek aldarrikatu zuen palestinarren garaipena. Dena den, egunkarian beste berri garrantzitsu batzuk begiztatu zituen: ERTEak irailera arte luzatuko ziren. Euskal komunitateko eta Nafarroako ekonomiaren berri baikorrak irakurri zituen, bai industrian eta baita nekazaritza ekologikoan. Nafarroako CO2ko emisioak % 45 gutxitu nahi zituen gobernuak 2030erako. Oso berri pozgarria, baina baikorregia. 2022-2025 urteetan Belateko tunelak bikoizteko proiektua aurkeztu zuten. Bertzelakoa zen Casedako erailketen aspaldiko berria. Nolanahi ere, berri-nahasmendua ez zitzaion interesa. Pandemiari buruzko berriak onak ziren, baikorregiak aukeran. Pandemia edo sindemiako berria zen emakumeen soldatak % 15 jaitsi zirela eta erizaintzako teknikariak nazkatuta zeudela, bertze sanitario asko bezala. Distopian bizi eta jende asko ezikusiarrena egiten ari zen. Hurrengo ortziralean ostalaritzan eta kulturen jarduerak luzatu eta baimenduko ziren 23:00ak arte eta barnean zabalduko zen okupazioa % 60ra.

Beldurgarriagoa zen zer nolako jende pilaketa izaten zen eta zein kontu gutxirekin egiten ziren parrandak. Saioak pentsatu zuen hurrengo egunean berandu arte poteatzen aritu ahal izanen zela. Gazteak Mireni deitu behar zion harekin zerbait afaltzeko eta gero lagunekin elkarrekin zerbait hartzeko. Beldurtuta zegoen eta era berean ongi pasatzeko beharra zuen. Bertzelakoa zen GG-rekin topatzeko sentitzen zituen zirrara eta beldurra. Ia segidan agertu ziren etxeokak. Arantzak dutxa azkarra hartzen zuen bitartean, Asier eta Patxi sartu ziren. Esku garbiketarak eginda, gogoz bazkaldu zuten.

Arratsaldean Asier abiatu zen ikastera eta Patxi eta Arantza itzuli bat egitera atera ziren. Bide batez erosketak eginen zituzten. Saioak etxetik laneko kontuak arin burutu ondoren, oposizioko gaiak ikasten pasa zuen arratsalde osoa. Neka eginda, sagar bat meriendatuta eta freskatu zuela aprobetxatuz korrika egitera atera zen Arga ondotik Magdalenaraino eta itzuli. Berriro etxean, dutxa hartu zuen eta lagunekin mezuak bidaltzen aritu zen. Afari arina hartu ondoren irakurtzen eta etxeokoen solasean pasa zituen ordu lasai batzuk oheratu artean. Gurasoekin gustura egoten ziren seme-alabak elkar errespetatzen zutelako.

Une batean, Asierrek mintzagai bat atera zuen. Pandemiaren gaian negazionista samarra zen ideietan, nahiz eta etxeokoen zentzuduna izateko eta musukoa eramateko konbentzitu. Uste zuen botiken industriak txertaketa bultzatzen zuela dirua irabazteko, pandemiaren zabalpena esajeratu zela eta bereziki inork, ezta Estatuak ere, ezin zuela nahi ez zuen jendea txertatzera behartu. Etxeko guztiek bazekiten alferrik izanen zela eztabaidatzea behin baino gehiagotan eginga zutelako eta giroa makurragoa ez izateko bertze guztiek ez zioten erretolikarekin jarraitzen utzi. Bertze gai bat jorratu zuten. Arantza udarako planak kontatzen hasi zen.

–Guk abuzturako etxe edo apartamentu handi bat alokatu nahi dugu. Amaia eta Robertorekin geratu gara eta geuk bilatuko dugu Kantabrian edo gure kostaldean. Guk zuek etortzea espero dugu –Saioak laster erantzun zion.

–Nik uztailan oposizioetan ibili ondoren, abuztuaren hasieran behintzat Miren eta agian bertze batzuekin Mediterraneora edo Aragoiko mendialdera joango gara aste pare bat pasatzera. Bai, hilabetearen bukaeran gustatuko litzaidake zuekin egun batzuk pasatzea, bakarrik edo Mirenekin lekurik baduzue –Patxik ere animatu nahi zituen seme-alabak.

–Primeran. Zu ere Asier, ez al zinateke etorriko? Belauntzietan edota mendi-bizikletan ibiltzen ahal gara guztiok –gazteak baieztatu zuen.

–Bai, noski. Uztailan praktikak eginen ditut enpresa batean eta lagunekin egun batzuk nonbait pasatu ondoren gustura ibiliko nintzateke zuekin, Xabi gonbidatzen baduzue.

–Hiru gelako etxea bilatuko dugu. Bertzela ere, sofak erabili beharko genituzke. Baina, ez dut uste arazoa izanen dugunik.

Horrela, denak bertze aldarte batekin mugitu ziren logeletara.

2021eko maiatzaren 28a, ortziralea.

Egun tristea izanen zen, asteburuaren ataria izanen ez balitz. Ikasturtea bukatzen ari ziren. Langileak eta herritarrak orokorrean nekatuta zeuden pandemiagatik jarraitu eta behar zituzten neurriekin. Pixkana murrizketak laxatzen hasiko ziren: ikuskizunetan eta taberna barnean betetze maila % 60koa izanen zen eta terrazak irekita egonen ziren 23:00ak arte. Normaltasuna handiagoa izanen zen udaldia hurbildu ahala. Edonola ere, solasetan ez ezik, ikuste hutsez aurpegi kezkatuetan ere nabari zen nekea.

Saioak klaseetan prozedura eta ariketa arinak antolatu zituen eta ikasleek eskertu zioten. Irakasleak bazekien, orduan eta astelehenean izan ezik, ikasleek hurrengo astean zenbait egunetan lan handiagoa eginen zutela, hura lortzea ikasturteko bukaeran zailagoa izan arren. Gelditu gabe, ikasgela batetik bertzera presaka ibili zen lanean, beti bezala. Azkenean lanaldia bukatu zuen, astelehenerako klaseak prestatuta.

Aurreko astean bezala, ikastetxean bertan bazkaldu zuen. Egun hartan atun-tortilla bokata bat eta gerezi batzuk ahoratu zituen eta betekadarekin lotan ez geratzeko kafea hartuta Paulengana jo zuen. Ez zuten lan handia egiteko asmorik, baina konturatu gabe pasa zuten arratsaldea elkarri gaiei buruzko galde-erantzunak eginez. Aldiro osatzen zituzten erantzunak eta azpimarratzen zituzten puntu garrantzitsuak. Hurrengo asterako utzi zituzten azken gaien material bilketa eta osaketa. Ongi ari ziren eta hilabete bat geratzen zitzairen programazioak eta unitateen azalpen-adierazpenak lantzeko.

Goiz zen, baina Saioak Mirenekin afaldu ondoren lagunekin ibili eta GG-rekin topatu arte gau luzea izanen zuela aurreikusten zuenez, lo-kuluxka berantiarra egin zuen. Gogoratu zuen GG-rekin izandako telefono-elkarrizketa kezagarria:

–Saio, nire arnasa eta bizia zara. Behar zaitut. Ezin naiz zu gabe gehiago iraun. –Gazteak ez zekien nola erantzun. Ahotsaren bidez gizonaren erakarria gogoratu zuen eta esaldi xeble haiekin baita gezur lotsagabea ari zela ere. Hotz erantzuten saiatu zen.

–Gabriel, egonen gara gauean! Serio hitz egin behar dugu.

–Zure zain egongo naiz –ez zirudien bera bakean uzteko prest zegoenik.

Aurrean izan balitu bezala, gizonaren irudia eta begirada imajinatu zituen. Dudarik gabe, dotorea, liraina eta gihartsua izateaz gain benetan ederra zen, ia gehiegi. Mundu guztia urtzeko moduko irria gutxi balitz, ahoskera sorgintzailea eta saltzaile apartaren ahalmena zuen edozein konbentzitzeko. Kezkatuta zegoen, baina gehiago beldurtzen zuen haren begirada hotzak. Hura zen izutzen zuena. Begi-ninia eta irisak zabalak zituen eta dena begiratzen zuen emoziorik adierazi gabe. Emakumearen beldurra zen berari zer egin nahi izango zion.

Emiliok bazekien Saioak harremana edo menpekotasuna eten nahi zituela; dena den, harekin bere nahia zapuztuta geratzen ari zen, haren pertsonalitatearen zurrumbiloan. Aztoratzeko modukoa zen harekin ezer egin ahal ez izatea.

Bi lagunek Mirenen etxean afaldu zuten urdaila betetzeko: fruta eta urdaiazpiko goxoa. Lagun-kuadrillakoekin elkartu ziren. Haien artean Andoni zegoen eta Saioak konbentzitu zuen Abu Dhabi-rako gonbidapena eta proposamena abuztura arte berriro ez aipatzeko eta Mirenek eta Kepak adostu zuten bigarrenez ezkontza atzeratzea. Afera haietan larritasuna gaindituta, lasaiago geratu ziren bi emakumeak.

Lagunak alde zaharrean ibili ziren. San Nikolasen eta Sarasaten ez zuten lekurik topatu, ezta Gaztelu plazan edo Estafetan. Kaldereria eta Nabarrerria gainezka zeudela entzun zutenean bigarren zabalgunera mugitzea erabaki zuten. Zezen plaza ondoko terrazetan lortu zuten lekua. Txantxa artean broma eta zerbeza pare bat hartuta, bertzeak azkenekoa Donibanen hartzera mugitu zirenean, bi bikoteetako laurek hirugarrenez eskatu zuten, bertan lasai egon nahian. Hamaikak aldera Saioak mezu bat jaso zuen: GG Leyre kaleko hotelean izanen zuen zain. Gelaren zenbakia ikusi zuen, aurrekoaren berdina. Terraza uzteko eta harengana joateko eskatu zion gizonak. Korronte bat sentitu zuen bizkarrezurretik bururaino. Zelatatzen ari zitzaion. Ezin zuen aguantatu eta buruko min handi baten aitzakian etxera joateko beharra justifikatu zuen. Lagunen aurrean, ez zuen mezua itzuli, baina gaueko autobuserantz hurbildu zenean bertze mezu batean gizonak agurtu zuen eta adierazi zion buruko mina sendatzea espero zuela eta hurrengo gauean elkartzeko. Zorabio batek jo zuen eta ia ziplo erortzeko zorian egon zen.

Autobusa joan berritan, denda baten erakusleihoan eseri zen burua belauen gainean jarrita. Arnasaldi bizkor batzuk egin zituen eta segidan bi minutuz egon zen buruko lasaitasuna eta tentsioa berreskuratu arte. Jende gutxi zebilen handik eta inork ez zion lagundu edo galdetu zer zuen. Autobusa agertu arte jendea pilatzen zen bitartean lasaitu egin zen. Pentsatu zuen amorante hitzak definizioz ezkutuko erlazio eta pertsona ezezagun batekin lotura zuzena zuela. Horixe baitzen berea: ezkutuko erlazioa, amodiozkoa izatea zalantzazkoa izanda ere. Gainera bere inguruko inork ez zuen GG ezagutzen. Bi aste lehenago ezagutu zuenean lagun bat aurkitu zuela uste zuen, baina berehala, ajea, hitz larriz “Grina Gaizto” bihurtu zen. Amorantea izan zen, bai, baina zitala ere bai. 23:30ean etxean zen eta gurasoak agurtu ondoren buruko minaren aitzakian lotarako pilula bat hartuta oheratu zen.

Gabriel, Saioaren erreakzioa espero ez bazuen ere, ez zen gehiegi harritu ezta larritu ere. Edozein modutan ezustekoa eta amorrua desbideratu behar zituen.

2021eko maiatzaren 29a, larunbata.

Udaltzaingoko Larrialdietarako taldeko Fatima Olloki lanera bidean lan-jardunaldia nola pasatuko zuen ari zen pentsatzen. Zerua argitu gabe hodeitsu zegoela ikusten zuen. Hala ere, interneten irakurri zuen egun argitsua eta beroa izanen zutela, gaitz-erdi. Ipar haizeak joko zuen. Aurreko gauean goiz etxeratu zen, goiz altxatzeko. Seietatik egun osoa bakardadean pasatuko zuen zaintzan telefonoaren ondoan. Nolanahi ere, telefonoa, irratia, liburu bat eta internet zituen denbora arinago pasatzeko. Bertzela ere, ordu bietan lanetik atera eta bazkaltzeko geratu zen lagun batzuekin.

Bulegoetan sartzean, gaueko zaintzako Sanzol agentea ezer gertatu ez zela aipatzen ari zelarik, dei bat jaso zuten "larrialdikoa" deitzen zuten telefonoan. Esku librean jarri zuten. Udaltzain batek esan zien zezen plaza eta harresien artean gorpu bat topatu zutela. Fatimak etxera bidali zuen Patxi Sanzol eta nagusiari deitu zion. Hark egun librea zuen, baina gutxienez abisua pasatu behar zion. Elkano inspektoreak zaintzako telefonoa desbideratzeko eta berarekin gertalekuan elkartzeko erran zion.

Aralar kalean eta Fortin aldera, "Club Taurino"-aren bestaldean udaltzain eta foruzainen autoek inguratzen zuten lekua. Fatima heldu zenean Ramon Zudaire foruzain batzuekin zegoen ingurua segurtatzen. Laster, biak hurbildu ziren. Forentsearen esperoan gorpua estali zuten tapaki termiko batekin. Zudaire inspektore asaldatu batek azaldu zion Fatimari nola topatu zuten gorpu biluzia.

–Zezenketarako ezpata batekin hil dute. Gizonezko gaztea zen eta irribarrez ari zela zirudien.

Manu Elkano, Udaltzaingoko inspektorea, forentsea eta sanitarioak heldu ziren bateratsu. Inspektoreari orduantxe deitu zioten telefonoz. Foruzaingoko Lopez komisarioa omen zen eta hurrengo pausuak zehazten aritu ziren. Eraiketa gertatu zen inguruan zebiltzan ekukoei hartu zieten adierazpenetan ez zuten argitasunik lortu. Udaltzain batzuk berak ziren gorpua topatu zutenak. Eraildako mutilak, ez baitzuen hamazazpi urte izango, ez zuen dokumentaziorik eta ezpata kokotean 10 cm barneratuta hil omen zuten. Azterketa eta analisi batzuen esperoan, gorpua eraman eta denak beren eginkizunetara mugitu ziren. Dena den, komisarioak Zudairerekin telefonoz hitz egiten zuten bitartean, Elkano inspektorea Fatima Olloki inspektoreordearekin geratu zen hizketan.

–Lopez komisarioak, eraiketa izugarri hau psikopataren aurrerapauso bat dela dio eta ni ados nago. Harrapatuta gaude: ez genuke izugarrikeria hau zabaldu beharko eta ezin dugu isilik mantendu horrelako eraile makabroa dabilela. Foruzaingoak zabalduko du komunikabideetan hortik zer nolako hiltzaile arriskutsua dabilen. Alarma zabalduko da zentzu onean eta txarrean eta prest izan behar dugu zerbitzua jendearen informazio eskaerak direla-eta neurrian asetzeko edo lasaitzeko. Salaketak eta informazio faltsuak iragazita informazio onak ahalik eta azkarren baliatu behar ditugu –Fatima larritzen ari zen eta eten egin zion nagusiari.

–Manu..., nola egingen dugu lana? Asteburuan guardiako bakarrak ezin du guzti hori egin –inspektoreak ulertu zuten laguntzailearen larritasuna eta lasaitu zuen.

–Lasai, Fatima. Arratsaldean zabalduko da eraiketa eta psikopataren berria. Ordurako, gure zerbitzuko txandako guztiak eta beste udaltzain batzuk hor izanen dira. Zerbitzua indartu beharko dugu, baina garrantzitsuagoa da informazioa partekatzea eta udaltzainen eta foruzainen laguntza izatea. Guk ongi koordinatu egingen dugu informazioa eta bilaketa bideratu behar bada... –berrito eten zion emakumeak.

–Eta Lala detektibeari eskatu behar al diogu laguntza?

–Bai. Lasai, nik neronek eginen dut. Neuk kontatuko diot. Detektibe horiek asko laguntzen ahal digute... Orain, Fatima, hartu kafe bat eta itzuli bulegora. Ni lehenbailehen agertuko naiz laguntzera. Bertzela ere, Jago edo Ainara agertuko dira. Orain ez larritu eta izan burua hotz. Gero arte, orain joan beharra daukat.

–Gero arte, Manu. Mila esker.

–Ez horregatik.

Azken aldian gertaera arraroak izan ziren, pandemia aurretik baino gehiago. Manuk gogoratu zuen istripu kasu batzuk izan zituztela. Ezustean koman drogatutako jendea topatu zuten. Makurragoa izan zen egoera berezian hilzorian topatutakoa. Informazio guztietan denek aipatzen zuten gizon dotore eta eder bat, haren itxura desberdina izanda ere. Bitxiena zen bizirik zeuden biktima guztiak irribarrea egiten zutela eta era berean gizon edo bahitzaile hartaz galdetuta, bat-batean beldurra, izua sentitzen zutela zioten arrazoirik eman gabe eta errematatzeke erailketa krudel eta aldrebes haiek: ikaragarriak, “trukulentoak” zentzurik txarreanean.

Saioa goiz samar esnatu zen. Etxekoak ez ziren altxatu eta berak presarik gabe gosaldtu zuen. Oposizioko gaiak eta unitateak antolatu ondoren konturatu zen bera ez zegoela ikasteko moduan. Pentsatu zuen zer egin eta bururatu zitzaion egin zezakeen onena mugitzea zela. Txandala jantzi, gerriko poltsa eta kaskoak paratu eta korrika egitera atera zen. Goiz izateko bero ari zuen. Emakumeak giroaz aparte hezetasuna nabaritu zuen. Erritmo erregularrean egin zuen Belosoko malda eta Medialuna zeharkatuta Labriteko malda hartzera zihoala, polizia autoak ikusi zituen. Gotorleku txikia pasa eta malda jaitsita, Magdalenako zubian geldituena egin ondoren etxera zuzendu zen, itzulia osatuz. Ogia, kruasanak eta egunkaria erosita igo zen etxera. Patxi topatu zuen altxatu berritan.

–Egun on, Saioa. Zer moduz zaude? –Kezka aurpegia ikusi zion aitak.

–Egun on, aita. Ongi nago. Dena den, ezin naiz ikasteko kontzentratu eta uste dut Mirenekin eguna kanpoan pasako dudala. Inporta al zaizu autoa hartzen badut?

–Ez. Gaur Iruñera joango gara eta ez dugu behar izanen.

–Eskerrik asko. Deitu behar diot lagunari.

Horrela, Mireni deituko zion ea Donostian pasa nahi zuen eguna. Bazkaltzeko tokia lortzea zaila izanen zelakoan ogi gehiago erosi zuen bokatak egin ahal izateko. Hozkailu eramangarrian garagardo eta ura eramane zituzten. Goizeko bederatziak ziren eta lagunari deitu zion. Agurtu ondoren aurreko gaueko erailketa komentatu zuten, xehetasunak ezagutzen ez bazituzten ere. Biei arraroa eta izugarria iruditu zitzaizkien. Donostiara joateko plana proposatuta, Mirenek berehala onartu zuen gonbidapena, afari ordurako itzuliz gero. Hala ere, laguna kezkatzen zuenez galdetu zion.

–Zer gertatu zitzaizun atzo? Bazirudien buruko minak baino berri txar batek sortu zizula ondoeza edo aztoramena. –Egia zen GG-k aztoratu egiten zuela.

–Bai. Beranduago kontatuko dizut, lasaiago. Orain hobe arin mugitzen bagara. Aitak autoa utzi dit eta bazkaltzeko leku falta aurreikusten dudanez ogia erosi dut bokatak eramateko. Norberak eraman dezala zerbait eta konpartituko dugu. Hozkailu eramangarrian edariak sartu ditut. Nik orain ziazerba-tortilla egin ahal dut, ongi iruditzen bazaizu.

–Ongi. Agian, espinakarekin urdaiazpiko pixka bat jarriz gero hobeki egonen da. Nik etxean sobratutako ajoarrieroa ere eraman ahal dut ontzi batean.

Erran eta egin, autoa hartuta denbora gutxian heldu ziren Donostiara eta parking batean utzi zuten autoa. Kontxa pasealekua, Ondarreta hondartza eta Haizearen orrazia bisitatu zituzten paseo ederra eginez. Itsasoa ikusgarria zegoen olatuen balantza eta harrizarren kontra salto eginez. Itsas-organoa beti ikusgarria zen soinuaz gain ur-geiserren bizitasun eta naturaltasunagatik. Une batez eseri ziren pretilean burdinezko eskultura biziei begira. Gustura egon ziren, erlaxatuta eta sorginduta geratu ziren bizitasuez beteta mugitzeko beharra setitu arte. Donostiako zentrorra itzultzean gose zirela nabaritu zuten. Eguerdia zen eta parke batean itzalpeko banku bat topatu zuten. Arrautzopila eta ajoarriero atera zituzten. Mirenek bakailao goxoa jaten zuen bitartean, Saioak bokata erdia jateari ekin zion. Orduantxe egin zion Mirenek galdera.

–Saioa..., zerk aztoratzen zaitu? –emakumeak kontatzeko beharra ere bazuen. Saiatuko zen ahal zuen neurrian egiten.

–Begira, atzo saihestu nuen gizon batekin elkartzea, nire amorantea... Makurrena da gaur berriro elkarrekin egoteko saiaturiko dela eta nik... ez dut nahi –Miren aho bete hortz zegoen.

–Zergatik ez duzu gizona utzi?

–Hala nahi dut, baina saiaturik ere, ezin izan dudalako. Gehienez ihesean ateratzea lortu dut, berarekin ez egoteko. Beldurtu egiten nau. –Mirenek ezin zuen sinetsi. Hura ez zen betiko Saioa.

–Ez dut ulertzen. Zergatik diozu ez duzula berarekin egon nahi eta ez zara saiaturen gainetik kentzen?

–Berriro errepikatu behar dizut. Beraren ondoan ezin dut nahi dudana egin. Sorginduta nauka. Manipulatzaila da eta menperatu egiten nau fisikoki eta pertsonalitatearekin. Nik moztu nahi dudala erran diot, baina berak ez du onartu –Mirenek inoiz ez zuen laguna horrela ikusi. Hura ez zen neska tuntuna eta zerbait espero zuen haren partez.

–Saioa, zerbait egin behar duzu! –lagunak arrazoi zuen, baina beraren aurrean ez zen gai sentitzen. Hala ere, garbi zuen zirt edo zart egin behar zuela eta ez nolanhiko erdipurdiko erantzun epela.

–Indarrak biltzen ari naiz. Bera erauzteko, errefusatzeko gauza izan arte ez naiz beraren aurrean agertzera ausartuko. Orain, mesedez, nire “nemesi”a ahaztu nahi dut ordu batzuetan. Zer iruditzen zaizu itzultzea, atsedean hartzea eta gaur gauean Kepa eta Andonirekin elkartzea? –lagunak barre egin zuen.

–Zuk ihes egin nahi duzu!

–Bai, hala da.

Zirkulazio gutxi zebilen eta denbora gutxian itzuli ziren Burlatara. Gauean Iruñean geratzeko asmoa zuten. Saioa lasaiago zegoen. Nolanahi ere, ez zekien zer egingen zuten. Beldur zion bakarka topatzeari. Hurrengo egunean, igandean, goizean goiz geratuko zen.

Gautzen ari zuela, afaldu aurretik, irratiko berrietan jaso zuen Iruñean eraiketaren berri. Interneten bilatu zuen informazio gehiago. Izoztuta geratu zen. Izoztuta eta izututa. Hura ez zen kasualitatea eta hausnarrean geratu zen. Mezua bidali zion GG-ri. Garbi utzi zion harremana eten nahi zuela eta ikusi nahi izanez gero hurrengo goizean kalean izan behar zela.

Arin meriendatu ondoren bi lagunak elkartu eta Iruñera igo ziren. Miren, lekua eskatuta, bederatzi eta erdietan geratu zen Gurutze plazan Kepa eta Andonirekin eta falta zen ordu erdian Saioak hitz egiteko beharra sentitu zuen. Kaña bana eskatu zuten. Dena, garrantzitsuena behintzat, kontatzeak on egingen zion.

–Duela hiru aste ezagutu nuen Gabriel. Bai, alarma egoera bertan behera utzi zen gauean. Ez dakit nola sinistu nuen: momentu hartan gizon zoragarri bat ligatu nuen. Ezkonduta zegoela jakinda ere onartu eta ikusi nuen berriro hurrengo egunean. Nola lelotu nintzen hainbeste!? Erraz: estasi pilula bat hartu ondoren belarria jaten zidan, maite ninduela erranez eta sexu-makina zenez gero, ez nintzen gauza argiago pentsatzeko. –Miren harrিতuta zegoen.

–Zu zarenarekin! Zergatik onartu duzu erokeria hau?

–Beti leporatu didazu zentzudunegia, arrazionaleria naizela. Zergatik? Erran dizut: itsututa nengoelako, lelotuta!

–Eta orain zergatik utzi nahi duzu? –izan zen galdera logikoa.

–Alde iluna ikusi diodalako. Ez dakit nola erran: ez zidan orduan minik egin nahi. Baina..., are makurragoa zen: ni menperatzea zen bere helburua, ni borondaterik gabe uztea, deuseztatzea –Mirenek ezin zuen sinetsi.

–Orduan moztu ondoren dena bukatu da. –Saioak ezetz egin zuen buruarekin.

–Ez da hain erraza. Berarekin elkartu behar dut eta... gezurra badirudi ere, bere ondoan nagoenean sorgindu egiten nau. Harengandik urrun, badakit ez dela fidatzekoa eta edozer egiteko gauza dela, baita utziz gero ni akabatzeko. Haren aurrean konbentzitu behar dut ni bakean uzteko.

Kepa eta Andoni agertu zirenean, mutilek katxi bana eta hanburgesa handi batzuk eskatu zituzten. Emakumeek ere bertze hanburgesa bat eskatu zuten erdibanatzeko eta bertze bi kaña. Nolako hanburgesa erraldoiak haiek! Hanburgesa bikoitza, gazta eta entsalada ez eskapatzeko, metalezko pintxo luze batek zeharkatzen zuen. Mutilek gaueko erailketa atera zuten hizpidera. Kepak hark mendeku itxura zuela aipatu zuen, baina Mirenek, zabaldu zenaren arauera, zezenketarako ezpata bidez hiltzea antzezpena iruditzen zitzaiola adierazi zuen. Besteak ados zeuden. Beraien kontuez mintzatu ziren afaldu bitartean. Hala ere, hamaiketan, bat-batean, Saioa konturatu zen GG-ren deiak izan zituela eta mahaitik altxatuta urrutiratu zen telefonoz erantzuteko.

–Barkatu, GG. Lagunekin geratu naiz eta pasa zait gaur gauean geratu ginela.

–Zer? –Gabrielek ez zuen disimulatu, baina ez zion gezurti deitu—. Oraindik goiz da, geratzen ahal gara 20 minutu barru –erran zion ia aginduz. Eskerrak aurrez aurre ez zeuden! Saioa ez zen gauza sentitzen gizon harekin egoteko.

–Gaur ez. Sentitzen dut, baina egun luzea izan dut eta pot eginda nago. Berehala etxeratuko naiz –erantzuna berehalakoa izan zen.

–Donostiara joan zarete goizean Miren eta biok eta orain tar-tar aritu zarete mutilak agertu arte. Elkar gaitezen momentu batean, mesedez! –Saioa larritu egin zen. Zuzenean jarraitzen ote zituen pentsatu zuen eta are makurrago sentitu zen.

–Gaur ez. Bihar goizean nahi baduzu. Goizeko hamaiketan geratzen ahal gara hoteleko sarreran! Bihar arte – hain ziur bota zuen, ezen gizonak etsi egin zuen.

–Bai, bihar arte.

Emilio haserre zegoen. Zirt edo zart lortu behar zuen Saioa estu hartzea. Amorruren antzeko sentsazioa nabaritu zuen. Kontziente zen, emoziorik sentitu gabe ere, ez zuela bere nahia bete. Ordura arte nahi zuena lortzen zuen gutxi edo, batzuetan, gehiago kostata. Anaia-arreba haiekin, ordea, ez zuen erdietsi. Erresistitu egiten ziren. Frustrazioa gainditzea behintzat lortu behar zuen. Ezin zion bere harrapari senari muzin egin. Hala ere, kontuz ibili behar zuen udaltzain eta foruzainekin.

Ordu batzuk lehenago, Ainara Tartas, Josema Zunzunegi inspektoreorde, Sara Fernandez eta Patxi Sanzol agenteekin elkartu zen zerbitzuan. Larrialdiko zerbitzuko gaueko txandako guztiak arituko ziren lanean alerta egoera bitartean. Zunzunegi geratuko zen bulegoan, Sara eta Patxi patruilatzen ibiliko ziren bitartean. Ainarak kontatu zien guztxi ordura arte egindakoa eta adostu zuten bikoteak zabalgunetik erronda egingen zuela, foruzain batzuekin koordinazioan. Ramon Zudairek bi foruzain bikote jarri zituen lan berdinean Iruña inguruko industriaguneetan. Patruilak zibilez jantziko ziren auto arruntak erabiliz. Gainera, bazekiten detektibe pribatuak, Lurdes, Gorka, Maite eta Lontxo lan berdintsuan ibiliko zirela.

2021eko maiatzaren 30a, igandea.

Argia sartzen ari zen pertsianaren zirrikituetatik. Goizeko bederatziak ziren eta Saioa komunera bisita egitera joan ondoren gosaltzera mugitu zen. Handik minutura Patxi agertu zen eta justu agurtuta, automatak balira bezala, bien artean antolatu zuten kafea eta tostak prestatzeko. Gurina, marmelada eta esnea atera ondoren erdi lotan ahoratu zuten gosaria. Egun hartan inor ez zen animatu gosarirako kruasanak eta egunkaria eroatera. Beranduago egingen zuen haietako batek itzulia egin ondoren. Asier eta Arantza berandu altxatuko ziren goizaldean oheratu baitziren bata parrandan eta bertzea lanean aritu ondoren.

Une batean, erabat esnatu gabe, Patxik udan elkarrekin egun batzuk pasatzeko gogoia adierazi zion alabari. Honek, burua bertze kontu batzuetan, baietz erran zion, bertze batean zehaztuko zutela. Xuxurlatu zuelako edota Patxik, “belarrimotx” samarra izaki, ahoskatu azkarreko uskara korritua ulertu ez ziolako, errepikatzen aipatu zionean gazteak polikiagoa egin zuen. Normalean, ongi moldatzen zen aita euskaldun berria. Nolanahi ere, Patxik tristezia sakona nabaritu zion alabari.

–Zer duzu, Saioa? Erdi lotan izateaz aparte, azken egunetan urrutiago nabaritu zaitut, urduriago erranen nuke –gazteak irribarre egin zuen. Bazekien aitzak euskaraz egiteko zer ahalegin egiten zuen.

–Azkenean Sunbillako euskalkian ari zara mintzatzen!

–Zer erremedio! Arantzak ez du bertzerik egiten eta zuek tarteka... Baina ez desbideratu solasa. Bertze batean mintzatuko gara oporraldiaz. Zure aldarte ilunaz galdetu nahi nizun. Ongi erran dut ezta? Aldarte.

–Bai edo umore ilunaz nahi baduzu –nola eta zer erran pentsatu zuen ziztu bizian–. Lanaz eta oposizioaz gain, lagun baten jokaeraz eta ibileraz nago kezkatuta. Ezin dizut oraingoz deus kontatu...

–Ongi da. Baina badakizu laguntza behar izanez gero...

–Bai. Eskatu egingo nizueke zuri edo Arantzari. Ez apuratu! –Nolanahi ere, Saioak gai hura saihestu nahi zuen–. Ba al dakizu batzuetan ez dela nabaritzen euskaldun berria zarela?

–Nik nabaritzen dut bada! Ia hogeitun urte nituela hasi nintzen ikasten. Gure familia Tafallakoa izanda arrotza zitzaidan hizkuntza.

–Ba..., “bada” hori idatziz hobesten da, baina ahoz “ba...” erabiltzen dugu guk.

–Ba..., zure agindutara euskaltzain andrea!

–Kontseilari edo aholkulari? –horrelakoak ziren aita-alabaren arteko solasak.

Aita-alaba ez zeuden adi, baina une hartan berri lazgarri bat entzun zuten irratian. Gorpu bat topatu zuten goizaldean Gurutze plazan, zauriz josita eta odoleztatuta. Ziotenez, itxuraz hogeitun urteko neska ilea gatzainkara kizkurra zen. Aurpegi borobilekoa... Deskripzioa emateko arrazoia identifikatzea zen. Ez zuten hilketaz zehaztasun gehiago aipatu eta laguntza eskatzen zuten lekukotzarekin. Saioa jota geratu zen ordu batzuk lehenago han zegoelako eta Patxik alabari begira izu aurpegia jarri zuen.

–Bi egun jarraian gertatu dira erailketa hauek Iruñeko inguru berdinean... Hala ere, larriena izan da deskripzioa. Eman dutenean zure itxura ematen ari zirela iruditu zait. Harrituta nago!

–Ez erran lelokeriarik! Nik ez dut hogeitun urte!

–Ez, baina ematen dituzu eta bertze ezaugarriak zeureak dira, Saioa. Ez erran ez dela arraroa! –Gaztea orduantxe konturatu zen aitak arrazoi zuela. Zer pentsatu eman zion horrek, baina disimulatu nahian altxatu zen.

–Tira! Kasualitatea da! Banoa korrika egitera. Itzultzean erosiko ditut kruasanak, ogia eta egunkaria.

Egun beroa izanen zenez, Saioak pentsatu zuen goizaren freskura aprobetxatu behar zuela. Mugitzeak buruko ideiak ordenatzeko eta egiten zuena ongi hausnartzeko balio izanen zion. Korrikaldia burutu zuenean kruasan, ogi eta egunkariekin itzuli zen etxera. Ama eta Asier ez ziren orduko altxatu eta aita kanpoan zen. Dutzatu eta jantzi zenean hiltegiara joan balitz bezala mugitu zen emakumea kalera. Atea gurutzatu eta itxi baino lehen konturatu zen tontakeria bat egiten ari zela. Berrito etxean sartuta, ez ikustea eta mezu bidez betiko agurtzen saiatzea erabaki zuen. Pentsatu eta segidan egin zuen. Gaizki sentitzen zela eta ez zela berarekin elkartuko adierazi zion. Berehala jaso zuen erantzuna. Gabrieleak ez zion aitzakia sinetsi.

–“Gezurretan ari zara. Ez izan tuntu eta etorri berehala. Maite zaitut”. –emakumeak egia erratea bertze biderik ez zuela pentsatu zuen.

–“Tira, egia da. Ez zaitut ikusi nahi. Ez zaizkit zure jarrera eta jokaerak gustatzen. Agur” –, baina GG-k ez zuen ihes egiten utziko.

–“Saioa, ezin nauzu horrela utzi. Ez zaitut bakean utziko aurrez aurre izan arte”. –Jota geratu zen emakumea. Bazekien ez zela horretaz libratuko eta munduko beldurrik handiena izanda ere, aurre egingen zion gizonari; nola egingen zuen eta zer gertatuko zen ongi ez bazekie ere.

–“Beno, bihar eguerdiko hiruretan taberna batean geratzen ahal gara”.

–“Ez! Pribatutasuna behar dugu. Hotelean elkartuko gara”. –Saioak etsi egin zuen. Nola edo hala bukatu behar zuen istorio harekin.

Saioak ez zituen erailketak aipatu. Emakumeak ez zuen dudarik: Gabrielelek berak edo aginduta hil zituzten mutila eta emakume hura. Ez zekien nola egingen zuen gizon malapartatuaz libratzeko eta okerrago onik ateratzeko. Nola edo hala aurrera egin behar zuen eta babesa bilatu zuen lan eginez. Egun hartan, itxuraz Saioak aprobetxatuko zuen oposizioetako prestaketetan aurrerapen handia egiteko. Benetan behar handia zuen. Oposiziorako programazio didaktikoa maiatzak 29-30ean aurkeztu behar zuten pertsonalki eta aurretik abisatutakoaren arabera arazo teknikoak zirela medio aukera emanen zieten maiatzak 31n, hurrengo egunean aurkezteko. Emakumeak Programazioa goitik behetik birpasatu zuen unitate didaktikoekin zuten lotura zainduz. Goizeko 9etan aurkeztuko zuen arazorik gabe lanera joan aurretik. Gehiago kezkatzen zuen bera Gabrielekin elkartzeak. Izuak jota zegoen eta lan hura egiteak laguntzen zion gehiegi ez pentsatzen. Gaixoak guraso eta Asierrekin bazkaldu zuen eta lo-kuluxka arin baten ondoren jarraitu zuen lanean. Etxekoak atera ziren arratsaldean.

Labrit pilotalekuaren atzealdean ireki zuten terrazan Asier, Xabi eta lagunak kaña batzuk hartzen ari ziren lagun-giro ederrean. Denak ziren ikaskideak eta azken azterketa eta lan batzuen aurkezpenen faltan arnasa hartzen ari ziren. Hiru egunen buruan izanen zuten azterketarik garrantzitsuena eta urduri zeuden. Asier eta Xabier behintzat ongi ari ziren ikasten eta ospatu nahi zuten azken azterketan lortutako nota ona. Handik ehun metrora, gotorlekutik Emilio-Germanek begiratu zien Asierri eta lagunei. Ez zen hurbilduko, bere jokamoldea eta are gehiago bere burua babesteko, bere helburuak zirenen lagunak saihestea zuen arau. Kontuz ibiltzea komeni zitzaion. Panorama ikusita, bakarka harrapatu zain egon zen une batez eta azkenik beste helburu batengana mugitu zen. Frustrazio eta oztopoen aurrean ordainarazteko, masokista baten bila mugitu zen. Eskerrak Saioa “harrapatuta” zuen. Biharamunean “bere” egingen zuen.

Arratsalde hartan berean Ainara eta Lala elkartu ziren detektibe pribatuen bulegoan. Gaztelu plazako pisu hartan ez zuten kanpoaldeko bista gehiegirik, zeren barnealdeko patiora baitzituen pare bat leiho, komunekoa eta une hartan zeuden sukaldekoa. Mahai aurrean eseri ziren kafe beltz bana eskuetan. Oso egun mugitua izan ondoren komentatu zuten munstroaren bilaketa. Mutilaren eta neskaren erailketaz ez zuten bat ere pistarik ezta testigantzarik. Dena den, aurreko mutila zezenketarako ezpataz hiltzeak eta neska burnizko pintxo batekin egin izanak harritu egiten zituzten poliziak eta ikertzaile pribatuak. Tresna horiekin hiltzeak mezu bat zekarren, baina norentzat eta zergatik? Zeren eta erailketek eta torturek zentzugabeak baitziren, halabeharrez topatutako lehenengo pertsonari egin izan balizkieten bezala. Ainara ari zen beraiek egindakoa kontatzen.

–Gure zerbitzuan “landalan” aritu gara bilaketan. Manu ere gauean aritu zen, egun osoan bulegoan koordinazioan egon ondoren –Lalak galdetzeko beharra zuen.

–Nola dago Manu? Beti izan da nagusi ona, baita arazoez gainezka izan denean.

–Zuk diozuna. Gu bezain obsesionatuta dago odolzale horrekin, baina ez du etsi eta laguntzen digu buru hotz jokatzeko... Bide batez..., galdetu nahi nizun nolako zen Manu detektibe pribatu bezala? –Lalak ez zuen gehiegi pentsatu behar.

–Gurekin egin zuen azken aldian, nik ezagutu nuenean, oso nekatuta eta kezkatuta ibiltzen zen lanean, hiltzeko mehatxuarekin. Hala ere, kasuekin jarraitzen zuen. Etsaiez libratu zenean familia bizitza berreskuratu zuen eta zuen Larrialdi Zerbitzua antolatzen eskatu zioten. Hilabete gutxitan detektibe izaten erakutsi zidan eta bulegoa eramaten ere bai. Nola animatzen zaituzte zuek?

–Egin ahal dena egiten ari garela esanez. Erailketak direla eta beldurra zabaldu da. Jendea jakinaren gainean dago eta psikopatak zailago izanen du jendea harrapatzeko eta min egiteko. Manuk uste du zaila dela harrapatzea, baina era berean orain harrapatzeko aukera ere handitu dela ere. Alde guztietatik ikertzen jarraitu behar dugula dio –Lalak baietz egin zuen buruaz eta hala adierazi zuen.

–Bai. Arrazoi du. Bilaketekin jarraitu behar dugu. Zuek eta foruzainek lan handia egiten ari zarete. Jakerrek interneten jarraitzen du bilatzen eta gure behatzaileak lan handia egiten ari dira... –Ainarak lagunari begiratu zion interes handiz.

–Lala... eta zu nola zaude?

–Guztiok bezala eta zu bezalaxe. Larri ari gara bilaketan, baina jarraitu behar dugu... Naiara, goazen kalera kaña fresko bat hartzera eta aireratzera. Zerbait berezia bada deituko digute telefonoz.

–Goazen, bai!

## 11 - Segada

2021eko maiatzaren 31, astelehena.

Egun eguzkitsua eta beroa izanen zutela iragarri zuten irrartean, 30 gradutik gora eguzkitan. Eguerdian eta arratsaldean ekaitzak bota zezakeela zioten. Saiok gosalduta zuten eta Hezkuntzara joan zen programazioak erregistroan aurkeztera. Oso arin egin ahal izan zuen goiz heldu zelako eta jende gehiegirik ez zegoelako. Oinez egin zuen Biurdana instituturako Argaren ondoko bidea, gustura, goiz epel hartan natura zoragarri zegoelarik. Klaseetan ez zen gaizki ibili lan egin zuen bitartean, baina urduri sentitu zen, lanean ezin kontzentratuz.

Lanaldia bukatutakoan, Iruñea erdialdeko hotelera zuzendu zituen urratsak. Zer egingen zuen Gabriele? Zer egin nahi izanen zuen eta zein eskakizun egingen zion zeukan buruan, zurrumbilo zoroan. Azkenean hotelean galdetu

zuen Gomez jauna gelan ote zegoen eta bere zoritxarrerako bere zain zegoela erran zioten. Gelako atean jo zuenean gizonak berehala ireki zuen. Sartu bezain laster Saioa hasi zitzaion galdezka.

–Gabriel, etorri egin naiz behartu nauzulako. Gau zoragarria pasa genuen behin, baina ez dugu ezer gure artean. Ez dago luzatzerik. Lehenbailehen eta betiko eten behar dugu... obsesio hau.

–Lasai, Saio... Bidea eman behar diogu gure elkarrekiko behar honi!

–Ez deitu “Saio”. Ikusten!! Ez nauzu errespetatzen: ni Saioa naiz. Gabriel..., gureak ez du etorkizunik. Nik behintzat lasaitasuna behar dut. Momentu zoragarri batek ez du bizitza obsesibo bat konpentsatzen.

–Ez didazu “GG” deitu!! –emakumeak izutik haserrera pasa zen gizonaren jarrera losintxaria ikusita.

–Ez nago broma eta tontakerietarako. “je-je” edo “yi-yi”, ez dugu ezer sexu-gau ero bat edo bi baizik. Gabriel, jarraitzen baduzu poliziar deituko diot jazarpena leporatzeko... –orduantxe inoiz ikusi gabeko Gabriel bat gauzatu zen, beste pertsonalitate bat. Haren begirada zenbaitetan beldurgarria izaten zen, baina orduan hain zen bihozgabea, ezen Saioa beldurrak izoztuta geratu baitzen. Gizonak irribarre bortxatu bat egin zuen gozoago agertu nahian.

–Saio...a, ez izan kakati! Zuk... Guk biok elkarrekin egon behar dugu. Bizitza zoragarria bizi egingo dugu. Gurea ez da harreman normala, sinbiosia baizik. Ez engainatu zeure burua... Behar nauzu. Eseri zaitetz eta edan ezazu kopa bat... –jarrera aldatzen saiatu bazen ere, edonor izutzeko modukoa zen. Saioa atzera egiten saiatu zen, handik ateratzeko ikusten zuen modu bakarra baitzen.

–Barkatu, GG! Badirudi ez gaudela sintonia berean. Hobe haserretu baino lehen lagun bezala bertze baterako uztea. Hitz eginen dugu... beste egun batean –gizonak lehor moztu zion.

–Zu ez zara hemendik aterako. –Hurbiltzen hasi zen poltsiko batetik pilula bat ateratzen zuen bitartean–. Har ezazu pilula hau! Erlaxatu eta lasaituko zara.

Saioa oso urduri zegoen. Bizia jokutzen ari zela ez zuen dudarik. Bere asmoaz galdetu behar zion. Arnasa sakon hartuta, gizonari kontra egin eta argi eta garbi hitz egitea erabaki zuen, kosta ahala kosta.

–Zer egin nahi didazu? Kasurik egin ezean torturatu eginen nauzu? Hil egin nahi nauzu? –gizonak aldatu zuen keinua. Ordura arteko irribarre faltsua desagertu eta inoizko begiradarik hotzena bota zion emakume gazteari.

–Ez dizut ezer txarrik egin nahi. Maite zaitut eta nahi dudana bakarria zurekin egon eta gozatzea da. Zergatik aipatu dituzu torturak eta erailketak?

–Gabriel, asteburuan gazte batzuk torturatu eta hil dituzu kasurik egin ez dizudalako. Zuk... –isilik geratu zen. Ez zekien nola salatu edo leporatu halako ankerkeria–. Ez duzu sentimendurik. Deabru bat duzu barruan eta ez dut zurekin ezer nahi.

–Saioa, zuri ez dizut minik egin. Nirekin bizitza interesgarria izanen duzu! –Berriro hartu zuen sorgintzeko jarrera hura.

–Interesgarria? Jendea hiltzen eta torturatzen? Zein da zure izena? Gabriel Gomez ez da! –gizonari barre algara eskapatu zitzaion.

–Ez, ez da Gabriel. Emilio Gomez-Puente naiz, enpresa-gizona eta errekurtsuak eta harremanak dituen. Zaila izango da ni hilketekin lotzea.

–Zaila, baina ez ezinezkoa. Zergatik egin zenituen doilorkeria horiek?

–Zer inporta du horrek? Zuk pentsatu bizitza zoragarria izanen duzula.

–Zu nekatu egiten zaren arte! Lekuko bat naiz eta ni ere hilko nauzu.

–Begira Saio...a, haserretuta, torturatu eta hil nituen gazte inozo eta sinestu haiek. Maitea, zuk hartu pilula hau eta ikusiko duzu nola gozatuko dugun!

Emiliok aurpegi arraroa jarri zuen. Nahi zuena egin zezakeela pentsatuz, esku batean pilula eta bestean labana ireki gabe zituelarik hurbildu zitzaion emakume gazteari. Saioak heriotza ikusi zuen gizonaren begietan. Orduantxe gelako atea ireki zuten eta zurrunbilo batean sartu ziren polizia batzuk. Foruzain haiek geldiarazi zuten Emilio. Atxilotu eta eraman zuten “aitaren” batean. Ainara, Lala eta Ramon Zudaire agertu ziren segidan. Emakume udaltzaina hurbildu zen Saioarengana lagundu nahian.

–Ongi zaude? Zerbait egin dizu?

–Ongi nago. Zergatik ez zarete lehenago etorri? –Saioa larriak jota zegoen. Aurreko egunean udaltzainarekin lankidetzan ezagutu zuen bertze emakumeak, detektibe pribatuak, erantzun egin zion.

–Saioa, oraindik beldurtuta zaude. Atzo erran genizun aitortza erranarazteko, baina baita laguntza eskatzeko, premia ikusiz gero. Ez duzu horrelakorik egin!

–Arrazoi duzu. Barkatu, Ainara. Egia izanda ere, ez dut beldurrik pasa azken momentuan gainera etorri zaidan arte. Zuek sartu zaretenean ia. –Ainarak sorbaldan kolpetxo batzuk eman zizkion urduritutako emakumeari, ulertu zuela adieraziz. Hala ere, denbora galdu gabe mikrofono-petaka kendu, altxarazi eta kanpora eraman zuen zer eginen zuten adieraziz.

–Saioa, eskerrak zuk lagundu diguzun! Bestela, oraindik bilaketan arituko ginateke! Orain Foruzainoan eginen duzu adierazpena, sinatu eta hilabeteetan ez duzu kezkarik izan behar epaiketa ospatu arte.

Modu horretan bukatu zen psikopataren bilaketa. Aurreko egunean, Saioa berandu konturatu zen Gabriel hitzaile sadiko hura zela. Gau erdian, estu eta larri zegoelarik, argi eta garbi izan zuen harengandik libratu ahal izateko arriskuan jarri behar zuela bere burua eta foruzainei salatu ondoren. Hango komisario batek, udaltzaingoko Ainara eta Lala detektibearen laguntzaz hurrengo eguneko tranpa prestatu zuen zenbait ordutan.

## 12 - Udako gertaerak eta Saioaren ibilerak

2021eko ekainaren 1etik abuztuaren 16ra.

EvAU probak, aspaldiko Selektibitatekoak, ekainaren 2tik 4ra ospatu ziren. Bi egun desberdinetan ikasleak aurkeztu ziren aukeratutako ikasgaien arabera. Emaitzak ekainaren 10ean emanen ziren eta bitartean ikasle batzuk, milaka batzuk, Saloura eta Mallorcara joan ziren ikasturte gogorraren bukaera neurririk hartu gabe festa basatiak ospatzera. Bestalde, handik gutxira, ekainaren bukaeran, Donibane gauetako festetan eta ikasturte-bukaerako beste ikasleen ospakizunetan, botiloi-festak ospatu zituztenean Covid-19 Delta aldaeraz kutsatu ziren. Bat-batean, Mallorcan eman zen positiboen leherketa izugarria. Egun batzuetan berririk makurrena publiko egin zen: ehunka ikasle kutsatu ziren eta hoteletan berrogeialdia gordetzera behartu zituzten. Ikasle haiek, jende aurrean ikuskizuna eman zuten mozkortuta umekeriak eginez.

Pandemia zabaltzean zerikusi handia izan zuen ekainaren 26an musukoa kalean derrigorrezkoa ez izateak. Herri eta hirietako festa patronalak ez ziren ospatu. Kaleko festa informaletan ez zen inolako neurririk mantentzen. Gazteek pandemia amaitu izan balitz bezala jokatzeko zuten, baita populazioko bertze adin desberdinetako batzuek ere. Lagunen arteko eta familiako ospakizunetan, jan-edanak lasaitasun ederrean egiten ziren. Festa egiteko eta lagunekin egoteko beharrak ahaztu arazi zion jendeari birusa airetik kutsatzen zela. Edonon axolagabe egiten ziren festak.

Mallorcan ekainak 26 aldera penintsulako leku askotatik joandako ikasleen artean birusa kutsatu zen eta haietako askok susmatu gabe beren herrietara eraman eta kutsatu zuten gaixotasuna. Orduantxe komunikabideek jo zuten alarma. Salouko festa eta ospakizunen ondorioz ere uztailaren 5ean Iruñera Saloutik abiatutako autobusetan kutsatu pila agertu zen, PCR probek baieztatu zuten bezala.

Bi hilabete eta erdi pasata, abuztuaren 16an Saioak eta Asierrek ezuste galanta izan zuten.

2021eko abuztuaren 16a, astelehena.

Saioari kosta zitzaion esnatzea. Aurreko egunean berandu arte egon zen Mirenen etxean eta konturatzeko ordu txikietan etxeratu zen. Dena den, eguna aprobetxatzeko asmoz ia 8:30ean mugitu zen komunera eta sukaldara. Ogi egin berriko tosta batzuk txigortu eta marmelada goxoarekin busti zuen kafesnean. Bitartean, erdi lotan Euskalerrira Irratiko emisioak berriro etzun zitezkeela egiaztatu zuen. Beroaldiaren ondorengo eguraldi kaxkarra, Haitiko lurrikararen larritasuna adierazi eta uneko kutsatzeen jaitsiera iragarri ondoren Irrintzi dorreko instalazioen konponketak eginda, berriro emititzen arituko zirela adierazi zuten. Lokaletan obrak eta berrikuntza handiak ez ezik

teknologikoak ere izan zirenez, eragozpenengatik desenkusatzuz, bitarte haietaz pozik agertu ziren. Saioa poztu zen Iruñerriko irratia ren laguntasuna berriro izateaz. Oporretan eta beharrik ez zuela aprobetxatuz kalera atera zen korrika egitera. Beroketa txikiak egin ondoren Argako bidetik Magdalenara abiatu zen.

Saioak gogoratu zuen zein gaizki pasa zuen psikopata haren atzaparretan izan zenean. Larri ibili zen libratzeko eta baita salatu ondoren tranpan harrapatzen laguntzeko ere. Atxilotu zutenean lekukotza eman zuen eta orduan dena ahazteko prestatu zenean jakin izan zuen Emilio, beste izen batekin Asierrek ezagutu zuen lagun zoragarria zela: German bezala ezagutzen zuena. Emilio Gomez-Puenteri buruz jakin zuten psikopata hutsa zela. Bizitza osoan nahi zuena egin omen zuen bere bitarte sozialak eta inteligentzia aparta zela medio. Ingurukoek onartu behar izan zuten pertsonalitate berezia zuela eta haren nahia betetzen zutela nahitaez.

Atxilotu ondoren, itaunketak egin zizkiotenean Emilio Gomez-Puentek Saioa eta Asierren atzetik ibili zela eta estutu zituela baino ez zuen aitortu. Poliziek torturak eta hiru erailketa leporatu zizkiotenean ez zuen ezer ukatu, ezta onartu ere. Berak zioen ez zuela ezer gogoratzen eta galdetu egin zien galdetzaileei frogarik zuten. Bi egunetan egindako hainbat itaunketatan ez zioten ezer gehiagorik atera. Azkenean, atxilotzeko momentuan egindako grabazioaren arabera delituak leporatu zizkioten epaiketaren zain. Akusatuak eta haren abokatuak buru-gaixoa zela adierazita eroetxe batera eraman zezatela eskatu zuten. Edonola ere, auzipetu bitartean Iruñeko kartzelan sartu zuten.

Geroztik, Saioak oposizioak behar bezala egin ahal izan zituen. Maiatzaren 31n programazio didaktikoak aurkeztuta, ekainean ikasturteko azken klaseak eta ebaluazioak burutu zituen goizetan, baita animo handiz zuzeneko proba teorikoa arratsaldeetan prestatzeko. Ekainaren 20an NUPen proba idatzia egin zuten: zortziak baino lehen elkartu zen ingeles probetarako ezagun pila bat. Urduri agurtu eta konpartitu zuten Saioak eta Paulek ezinegona. Denen identitatea egiaztatu ondoren, goizeko 8:30etan areto batean distantzian banatuta, prest ziren. Hasteko, batetik, ingeleseko oposizio-gaiek bost gaitatik bat aukeratu eta garatu behar zuten. Bestetik, egoera praktikoa emanda nola landuko zuten eta horren didaktika ere adierazi behar zuten. Hamabietan bukatu zituzten probak. Saioak kontzentratuta eta ia konturatu gabe pasa zuen proba: lasai, azterketarako emandako paperetan eskema batzuk egin ondoren kontuz garatu zuen ingelesaren ahoskerari buruko gaia eta egoera praktikoa ia errealitatean egindakoa: hamasei urteko B2 mailako ikasleentzat gai bat interneten antolatzeke didaktika adierari behar zuen. Handik atera emaitzak jaso zituztenean, ingeles-euskaraz espezialitatean laurogeita bat aurketuetatik hemeretzi baino ez zuten proba gainditu. Saioak, Paulek bezala, oso nota ona lortu ondoren, 2. probarako birpasatzen eta praktikatzen hasi zen. Programazio orokorra eta unitate baten defentsa prestatu behar zituen. Saioari, Otano Osinaga abizenen arabera uztailaren 21ean tokatu zitzaion Askatasuna ikastetxean 8etan aurkeztea. Hilabetea luzea egin zitzaion emakumeari. Saiatu zen ikasketa eta denbora librea tartekatzen eta proba egunean neurri batean asmatu zuen oposizioaren alde praktikora nahikoa lasai aurkeztea, Paulekin praktika bat izan balitz

bezala. Azkenean, uztailaren 31n, ingeles-euskaraz 27 lanpostu ziren eta 16k eskuratu zuten lanpostua. Saioak, lanean esperientziagatik puntu gutxi edukita ere, emaitzetan 12.a izatea erdietsi zuen.

Azkenean, Saioa eta Miren joan ziren aste batez Kanarietara. Dena den, lehenago egun batzuk pasa zituzten lagun batzuekin Ozako oihanean. Eskerrak aldeztatik aurretik bungalow bat erreserbatu zuten. Gizonezko lagunak Kepa eta Andoni ez ziren haiekin joan, bizikletaz Donejakue bidearen zati bat egiten ari baitziren eta haiek lasaiago gozatu zuten mendi itzuliez. Gauetan orduak pasatzen zituzten solasaldi arinetan zerbait edaten zuten bitartean. Erlaxatu ziren, Saioa gehien bat eta etxean egun pare bat pasa ondoren Madrilera egin zuten bidaia, handik Tenerifera joateko. Irlako bazterrak bisitatu zituzten hiru egunetan eta gainerako denboran hegoaldeko hondartzetan izan ziren eguzkiaz eta bertako opor giroaz profitatzen.

Abuztuaren erdian etxean ziren berriro. Saioak eta Asierrek gurasoekin landetxe batean egun batzuk pasatzeko asmoa zuten 20tik 27ra. Emakumeak pentsatu behar zuten zer egingen zuten irailean. Andoniri erantzun behar zion. Pentsatu, ez zuten pentsatu behar. Aspaldian izan zuten argi Andoni laguna baino ez zela. Gainera, oposizioak gaindituta bazuen bitzita independentea egiteko aukera. Irailean irakasle-praktikako urtea hasiko zuten.

Bakarrik bazkaltzen ari zela, telefono dei bat izan zuten. Harritu zen Ainara Tartasek hitz egin behar zutela errantzionean. Asier ere agertzeko eskatu zionean orduan larritu zen. Galdetu ere egin zuten arrazoiaz. Kostata erantzun zion udaltzainak.

–Emilio Gomez-Puentek ihes egin du ospitaletik –gaztearen galdera automatikoa izan zen.

–Ospitaletik?

–Bai. Iruñeko kartzelan bizpahiru egun pasa ditu tripako minez eta apendizitisa ote zuten zalantzan, ospitalera eramanean aprobetxatu du ihes egiteko. Zuek biok arriskuan zaudete eta zenbait egunez “desagertzeko” eskatu behar dizuegu... –Saioak berria erabat barneratu ezinik logikoena adierazi zuen.

–Egun batzuk barru gurasoekin landetxe batera joanen gara. Aski izanen al da? –Ainara Tartasek argi eta garbi adierazi zion.

–Ez. Gomez-Puentek jakin dezake zuek erreserba egin duzuela. Gogoratu psikopata horrek teknologia ongi erabiltzen dituela eta zuen familiako batek erreserba egin duenez, hark zuen atzetik ibiltzeko pista jarraitzen ahal du. Nik zure anaiari eta bioi eskatu behar dizuet isolatuta leku ezezagun batera joateko eta momentuz

komunikazioak eteteko –kolpe latza izan zen hura, baina ez zuten denbora galtzeko astirik. Laster mugitu ziren anaia-arrebak.

Poliziekin elkartu ziren arratsaldean. Egoera argitu eta babesteko planak egin zituzten. Saioak pentsatu zuen arrazoi zutela: Emilio arriskutsua zen eta haiek harrapatu nahi izanen zituen. Bi anaia-arrebek ez zuten arazorik izan babestoki bat topatzeko. Haiek ezagun zituzten landetxe baten jabeak. Kasualitatez, beraien landetxean, moldatu berritan, gela eta komuna erabiltzeko moduan zituzten eta bi gazteek otorduak etxekoekin egin ahal izanen zituzten. Baserria Hondarribian zegoen, Arkoll eta Arkategi auzoen artean. Landetxeko nagusi haiek, poliziek ohartuta, inori gehiegi azaldu gabe anonimata gordeko zieten anai-arrebei. Hauek, gurasoei dena azaldu ondoren mailetak prestatu eta familiaren autoa hartu zuten gordelekura joateko.

Momentu hartan Emilio Iruñerriko txalet batean zegoen lasai, hurrengo egunetan egingen zuena pentsatzen. Oso erraza izan zitzaion ihes egitea. Lortu zuen ingurukoak eta sendagile bisitaria apendizitis zorrotza zuela konbentzitzea. Ospitalean, zeladoreak gurditxo batean eskaner bat egitera eramatean, polizia begiralea atzeratu zenean, zitsu bizian atera eta ihes egin zuen jende artean. Komuna batean gizon bati arropa aldarazi zion eta lasai atera zen. Autobusez inguruko udalerrri batera joan zen aurretik prestatutako zulo batera heltzeko. Herritik ez oso urrun, zulo batean, arropa, lata eta edari batzuk, dokumentu faltsuak, dirua, giltza batzuk eta pistola bat topatu zituen babestutako motxila baten barnean. Berrito beste autobus bat hartuta aspaldian antolatu zuen txalet frankora heldu zen. Han denetarik zeukan, baita auto bat garajejan. Bazekien noizbait kasualitatez edo akats batengatik harrapatuko zutela eta dokumentazio faltsu onak eta denetariko baliabideak zeuzkan aurrera egiteko. Dirua eta ahalmena ez zitzaizkion falta. Denbora batez ezkutatzeko asmoz, ez mugitzeko erosketa handi bat egin zuen supermerkatu batean eta prestatu zen mendekua gauzatzeko. Otordua egin ondoren, atsedean egin zuen une batez eta lanean jarri zen.

Emilio haserre zegoen Saioarekin. Haserre edo nahigabetuta. Bere autoestimua ukituta, gutxietsita sentitu zen eta gogoaz zuen ordainarazteko. Txaletean, eroso egoteaz aparte, ordenagailu eta telefono adimendunen bidez gauza asko egingen ahal zuen. Gainera, gela bat antolatu zuen ordenagailu eta aparatu desberdinekin teknologiak eroso erabiltzeko. Ordenagailu batean Saioaren telefonoaren kokapena bilatu zuen. Bazekien emakume gazteak ihes egingen zuela eta telefonoa ez erabiltzea gomendatuko ziotela, baina espero zuen topatzea. Une hartan telefonoa itzalita zegoen, baina Hondarribian topatu zuen azken kokapena. Asierren telefonoa piztuta zegoen eta leku berean aurkitu zuen. Entzun ere egin ahal izan zuen, baina momentu hartan ez zuen solasik aditu. Mikrofonoaren baliabidea itzali zuen baterien gastuaren bidez espioitza ez salatzen. Ziurtasunagatik ez zen egunetan Iruñerri mugituko, kontrolen arazorik ez izateko.

## 13 - Ihesa eta jazarpena

2021eko abuztuaren 17a, asteartea.

Euria ari zuen: xirimiria, langarra. Aurreko egunean arratsaldeko azken orduan heldu ziren baserrira. Beste mundu batera heldu zirela sentitu zuten anaia-arrebek. Betiko baserrian bizi ziren nagusiak, baratze, belaze eta animalien eskortez inguratuta. Handik hurbil turismorako moldatutako baserri itxurazko beste etxe bat zuten. Anaia-arrebak lasai egon ziren irakurtzen, internet eta telefonoa erabili gabe. Afaldu egin zuten bertako Maixa eta Xantirekin. Berrogei bat urteko bikotekideak oso atseginak ziren eta harreman ona sortu zuten hasieratik. Iruneko euskaldun berriak ziren eta batzuetan eten egiten zuten jarduna, gauzak kontatzen asmatzen ez zutenean. Afari arina, baina goxoa egin zuten, zeren arrain zopa, txanpiñoi-nahaskia eta yogurta baino ez zuten ahoratu: aski eta sobera, arratsaldean zizka-mizka batzuekin harrera egin zieten. Maixak, bertan zer egin zezaketen azaldu zien. Gaztandegian eta sukaldeetan lantzen zituzten produktuez mintzatu ondoren, Xantik azaldu zien inguruan praktikatzeko ahal zituzten kirolak: mendia, bizikleta edo zalditan ibilaldiak. Landetxeak baserriar eta hippy-ak ziren, hibridazioen zaleak. Ikuspuntu bereziak zituztenez, oso entretenigarria izan zen afalondoa. Berandu oheratu ziren whisky eta infusioak edaten zituzten bitartean.

Goizeko 8etan agertu zen Saioa sukaldean. Etxeko andrea, Maixa, bueltaka ari zen lan batzuk egiten, baina denbora izan zuen kafea prestatzeko. Mahaian bi gonbidatuentzako gosaria prest zegoen: fruta, laranja zuku, tostak, arrautzak eta kafe-esnea pitxerretan. Saioak laranja zuku naturala dastatu zuen tostetan gurin-marmelada jarri baino lehen. Tostak kafesne katiluan bustita jan zituen eta goserik izan gabe arrautza bat ere bai. Kanpora atera zen edalontzi bat bete zuku eta egunkaria eskuetan. Estalpean eserleku batean eseri zen irakurtzeko. Lasai zegoen eta interes handiz begiratu zuen munduan zer gertatzen ari zen, bere bizimodu eta bizitza konplikatu eta txikiak aparte. Hara non, ordura arte konturatu gabe etxeok Nafarroako Noticias egunkaria ekarri zuten. Dena den, pandemiako 5. olatuaren datuak baino gehiago interesatu zitzaion Afganistango biztanleen egoera. AEB eta kanpoko tropak erretiratuta, argazki nagusian afganiar andanak Kabuleko aireportuko harresiak gainditu eta ihes egiteko ahaleginetan ari ziren. Baina hura arazoaren azala baino ez zen. Ihes egitean izandako hildakoak gain, talibanen zabaltzeak eta orduko Afganistango bertako gobernu eta tropek hanka egitean sortu zen bertako biztanle askoren larria eta ihes egin nahia. Beste orri batean talibanen berragertzearen biktimak emakumeak eta neskak izango zirela adierazten zuten. Talibanak boterean izanda, eskubide eta askatasunen murrizketak espero ziren. Orriaren alde batean zerrendatzen ziren talibanek emakumezkoen debekatzen zizkieten hainbat jardura. Praktikan ez zieten uzten ezer publikorik egiten: hain zuzen ere ikastea, etxetik kanpo bakarrik ibiltzea, edo gizon batekin mintzatzea. Edozein modutan, talibanen ordezkariak deitu zieten “emakumeei” gobernuan parte hartzera, lanera eta ikastera joaten utziko zirela esanez.

Etxeko andrea beste etxera mugitu zen oheak eta garbiketa batzuk egitera. Hango familiak aparte aritzen ziren otorduetan. Alokairuaz aparte, garbiketak egitea baino ez zieten eskatu. Momentu hartan, Saioa askatasunik gabe sentitu zen eta ez obsesionatzeko gauza desberdinak egitea pentsatu zuen. Mendi buelta egiteaz gainera gustuko gauzak irakurtzeko aprobetxatzen ahal zuen eta baserrian laguntzen ahal zuen. Hondarribia, Irun edota Hendaiara joatea ekidin behar zuten, baina tentazioa zen. Asier agertu zenean komentatu zuten eta etxeko lanetan laguntzeko beren burua eskaini zutenean Maixak eskertu zien, baina egun hartan dena edo gauza asko antolatuta zituztenez etxeko bi zaldiekin ibilaldia egitea eskaini zieten gazteei, baita haiek onartu ere, itzultzean animalien eta ukuiluen garbiketak eginez gero. Zaldiak lehenagotik ezagutzen zituzten. Txuriko gazte samarra zen eta bere ama Lur oso lasaia. Ez ziren oso handiak. Azenario bana eman eta laztan batzuk egin ondoren lagun egin ziren. Gustura ibili ziren markatutako bide lasai eta ederretatik. Trosta gutxi egin zuten ibilbide gehiena maldetan egin zutelako. Nolanahi ere, oso gustura egin zituzten sei kilometro, tartean geldioneak eginez ikusmira politez gozatzeko.

Poliziek kontrolak jarri eta mantendu zituzten Iruñeko inguruetan, Emilio Gomez harrapatzeko edo bertzerik ez bazen ere, mugimenduak zailtzeko asmoz. Aurreko egunean Ainarak Saioari deitu ondoren nagusiarekin prestatu zuen zerbitzua larrialdi berriaren arabera lan egiteko. Koordinazioa eta informazioa segurtatzea zuten helburu nagusi; berehalako erreakzioa eta ekintza, psikopataren arrastoren bat topatuz gero. Lala detektibeari ere kontatu zioten dena eta hurrengo egunean berriro hitz egitea adostu zuten.

Egun bat pasata, gauzak ez ziren aldatu eta ez zuten inolako pistarik, baina guztiek bazuten zer esan. Hasteko, Lalak psikopatak ihes egin zuela jakin zuenean galdetu egin zion Manu Elkano udaltzaingoko inspektoreari beraiek parte hartu ahal izanen ote zuten. Gizonak ez zion berehalakoan erantzun, baina gauza batzuk zituen kontuan.

–Lala, ez larritu. Garrantzitsua da indarrak alferrik ez xahutzea. Ez dakigu zer egin dezakegun Emilio harrapatzeko, bere inguruko artean informazio berriak bilatzea ez bada. Foruzainak ari dira familiakoak, lankideak eta lagunak galdekatzen haren ohiturez eta baliabideez, non egon daitekeen asmatzeko. Etxekoekin ez dute gauza askorik lortu eta orain bere idazkariarekin ari dira. Uste dut atxilotu edo gelditu dutela. Beraz, espero dezagun zerbait lortzea. Bestela... –emakumezko detektibea ez zegoen oso konforme eta adierazi zuen.

–Bai. Hoztasunez jokatu behar dugu, baina aipatu duzunaz gain zerbait egin behar dugu... –udaltzainen inspektoreak berehala eman zuen bere iritzia.

–Lala, ez didazu bukatzen utzi. Bai, zerbait egin dezakegu: morroiaren gaixotasuna dela eta zer egin dezakeen eta lehenagotik zer egin zuen hausnartu, baina kontuz, pistarik ez galtzeko. Edonola ere, uste dut zuek, Jakerrek hain zuzen ere, interneten zerbait aurkitzen ahal duzuela –inspektorea momentu batez isilik geratu zen.

–Horixe da espero nuen iradokizun eta aholkua. Foruzainen lanetik zerbait lortuko dugu, informazioren bat. Erraguzue zerbait berri jakinez gero. Hala ere, ziur Jakerrek psikopataren ezkutalekua, edo besterik ez bada ibilerak topatzen ahal dituela. Mila esker Manu. Bestalde, hizketan ari garela, konturatu egin naiz Emilio horrek ere teknologia berriak erabiltzen dituela. Alde horretatik arrastoren bat topa dezakegu –Manuk ere berdintsu ikusi zuen afera.

–Lala, lan-lerro horiek jarraitu behar ditugu. Eskerrak geure buruek oraindik funtzionatzen duten! Dena den, nik bertze ideia bat izan dut: psikopataren obsesioa edo obsesioak Saioa eta Asier dira. Horiek dira... –emakumeak berriro eten zion adierazpena.

–Gazte horiek harrapatzea joanen da psikopata eta babestu behar ditugu. Baina, era berean morroiaren ahuldadeak dira. Anaia-arreben bidez lortuko dugu harrapatzea. Nola banatuko ditugu lan-ildo horiek? –inspektoreak jarraitu zuen.

–Lehen-lehenik Jakerrek bilatu behar du interneten pistaren bat. Hala ere, senideei guk ere egin behar dizkiegu galdeketak eta ikerketa eta bilaketekin jarraituko dugu erakunde desberdinetako poliziok. Nolanahi ere, bertze lan bat da kontraespioitza...

–Ongi da. Ados. Jakerrek berriro saiatuko da interneten eta zuek ezin duzuenez, guk egingen dugu kontraespioitza.

Emiliok bazekien kontrolak jarri zituztela eta berak ez zuela aski dokumentazio berri eta mozorro on batekin. Kalkulatu zuen egun bat edo bi pasata ordu punta batean 2. mailako bide batetik Iruñeritik atera ahal izanen zela. Bitartean tarteka pizten zuen ordenagailuko aplikazioa: Asierren telefonotik entzuten ahal zuen zer hitz egiten zuten. Baserri hartatik mugitzen ez zirenez Emiliok ez zuen presarik. Hala ere, badaezpada handik txaletatik atera eta bi senideengana hurbilduko zen hobeki kontrolatzeko.

2021eko abuztuaren 18a, asteazkena.

Hondarribiko ikusmirak zoragarriak ziren. Mendiaren tontorretik Saioak Txingudi, herria, Hendaiako populazioa eta Bidasoaren bokala eta badia osoa miretsi egin zituen. Eguraldi ona eta freskoa zuten goizean eta emakumeak probestu zuten mendixkaren azken aldapak igotzeko. Ordu batean nekatu ondoren ziztuan jaitsi, dutxatu eta gosaldtu zuten.

Berria egunkarian talibanen gaia zen nagusi. Gerrillari haien garaipenaren atzean errudun bat baino gehiago bilatzen zuten kazetari edo aditu batzuek. Bestalde, Ceutan migrante adingabeen kanporatzeaz ari ziren egunkarian. Gaiekin interesatuta egonda ere, Saioak ezin izan zuten ahaztu bere egoera pertsonala. Askatasunik gabe, ezkutatu behar bazuen ere, zerbait egin behar zuen. Ezin zen egun pasan ezer egin gabe egon. Etxekoekin eta lagunekin mintzatu nahi zuen arren, mezuak bidaltzea edo telefonoz aritzea debekatu zieten. Mendi buelta egin ondoren irakurtzen gelditzea ez zen aski eta gogoa zuen ateratzeko eta nonbaitera joateko. Edozein modutan jende aurrean ibiltzeko arriskuaz jakitun, bere burua eta anaia konbentzitu zituen baserri eta inguruko mendietatik ez ateratzeko.

Xanti zen animaliez arduratzen zena eta Asierrek aukera izan zuen zaldiez aparte, oiloak, astoak eta ardiak zaintzen laguntzeko. Egund hartan, goizean goiz makinekin ardiak jezten aritu ondoren, goiko larrera zuzendu zituzten eta baserrira itzulita gaztandegian egin zuten lan esnea mamitzeko. Aurreko eguneko gazta freskoak lehortzen utzi zituzten beste gela handi batean. Beranduago, eskortak eta ukuluak garbitu behar zituzten. Saioak Maixari lagundu zion baratzean tomateak jasotzen. Ia ordura arte negutegiko tomateak hartu eta dastatu zituzten, txarrak ez zirenak, baina ezin ziren inguruko bertako barietateekin konparatu. Bazen Tuterako itsusia bezalakoa eta bertze txikiago bat zapore biziagoa zuena. Kuiatxo, alberjina, letxu, eskarola, rukula, azenario eta tipulek osatzen zuten baratzearen uneko produkzioa.

Bazen baserriko biztanleen alderdi garrantzitsu samar bat: atseginak ziren, hippy samarrak, baina konfiantza pixka bat sortu zutenean naturazale militante bezala adierazi zuten beren burua. Maixak eta Xantik ez zuten sinisten pandemian. Negazionistak ziren neurri batean. Pentsatzen zuten botika-industrien mesedetan sortu zutela pandemiaren beldurra eta haren kontrako neurriak mundu osoan. Gaixotasuna bazela uste zuten arren, konbentzitututa zeuden jende guztia txertatu beharrean, guzti-guztiei jartzea ez zela nahitaezkoa. Beharbada, pertsona gaixo batzuei jarri ahalko zieten txertoa, baina ez zela beharrezkoa mundu osoan alarma jartzea. Beraiek errespetatzen zuten jendea. Edozein modutan, distantziak mantentzen eta higiene neurriak zaintzen zituzten, maiz garbiketarak eginez.

Jakerrek interneten ikertu zuen Emilioren inguruko jendea. Familia eta lagunak goi-mailakoak ziren, dirudunak eta postu garrantzitsuetan egiten zuten lan. Haien ikertzea zaila zen. Bazituzten harremanak eta komunikazio anitzak. Ramon Zudaire inspektoreak gidatzen zituen foruzainak banan banan galdekatzen eta ikertzen ari ziren. Hala ere, Jakerrek uste zuen momentuz informazio berezirik lortu ez bazuten ere, jarraituz gero Emilioren pistaren bat lortuko zutela.

2021eko abuztuaren 19a, ortzeguna.

Talibanen jokaerari buruz ari ziren irrati eta egunkari guztiak. Bestalde, Haitiko egoera kezkarria zen. Egun hartan izan zen zazpi gradu baino gehiagoko lurrikarak aurrekoan baino hildako gutxiago utzi zuen. Dena den, 2000 pasa izan ziren, eta desagertuaz aparte, Grace ekaitz tropikalak uholdeen ondorioz 12.000 pertsona zauritu baino gehiago utzi zituen. Okerrena, milioi erdi bat haur, janari, botika, ur eta estalperik gabe egotea zen eta NBEk eta Unicefek laguntza bidali nahi zieten.

Asier eta Xanti ari ziren atseden hartzen animaliak gobernatu eta gaztagintzan lan egin ondoren. Kafe bat hartzen ari zirela, pentsatu zuten bazkaria prestatu baino lehen beheko auzoraino itzuli bat eginen zutela. Xanti kezkatuta zegoen Haitiko egoerarekin eta hitz egin zion gazteari.

–Haitin berehalako laguntza behar dute. Gu Iruneko elkarte batekoak gara eta hainbat kanpainatan parte hartzen dugu Gipuzkoa osotik laguntzak biltzeko. Uste dut kontu bat ireki dutela hango kaltetuei laguntzeko... – Asierrek ez zekien oso ongi gizon hark esan nahi zuena eta galdetu zion.

–Xanti, zer erran nahi didazu? Guk ere dirua emateko?

–Ez nizuen dirurik eskatu nahi! Gertatzen ari dena kontatzen ari nintzaizun, besterik gabe. Guk diru pixka bat emanen diegu. Kontu korrontea zein den idatziko dut egongelako horma-kortxoan. Zuek ikusi zer egin nahi duzuen. –Gazteak pentsatu zuen bikotekide haiek apartekoak zirela, apalak eta elkartasunari emanak.

–Mila esker kontatzeagatik. Saioarekin hitz eginen dut... –bat batean gazteak zerbait galdetzeko gogoia izan zuen.

–Ez diot Saioari erran, baina dirua emateaz hitz egiteaz aparte, konbentzitu nahi dut herrira jaisteko. Jende artean despistatuago ibiltzeko non edo nondik gomendatuko zeniguke ibiltzea? –gizonak duda egin zuen.

–Baina poliziek esan ziguten zuek ezkutuan ibili behar duzuela! Ziur al zaude ez zaretela arriskuan jarriko?

–Lasai. Zuk erantzun nire galdera: noiz eta nondik ibili behar dugu ez nabarmentzeko?

–Ez dakit ba...! Txingudiko bisita naturalista oso interesgarria da eta talde txikietan egiten da. Bestalde, Irun eta Hondarribian goiz erdira arte ez da jende gehiegi ibiltzen. Nabarmendu gabe eta kontuz eginez gero, itzuli azkarra egin dezakezue. Baina, edozeren gainetik erabili itzazue txano eta betaurreko batzuk... eta ahal bada musukoa ere bai –gehitu zuen barre eginez.

Maixa eta Saioa bertze etxean ziren garbiketak egiten. Bertan astea pasatzen ari zirenak atera ziren turismo egitera eta orduan aprobeztatu behar zuten lan egiteko. Beraiek otorduak prestatzen eta egiten zituzten erosketak, baina entsaladarako produktuak, gaztak eta arrautzak eskatu zizkieten etxekoei.

Emiliok entzun egin zuen Xanti eta Asierren arteko solasa. Bazirudien hurrengo egunean anaia-arrebak, edo Asier behintzat, Hondarribiara jaitsiko zirela. Hura, aukera ezin hobea zen harrapatzeko. Gizonak orduantxe hartu zuen Iruñeritik ateratzeko eta bere harrapakinengana hurbiltzeko erabakia. Ziur zen, egunetan baserri ingurutik

atera gabe, gogoz mugituko zirela, herrira ez bazen badiara edo Txingudira bai. Emilio traste elektronikoak antolatzen eta maleta egiten hasi zen. Azkenean bere desiozko objektuak ikusi ahal izanen zituen.

Ramon Zudaire inspektorea gaizki eramaten ari zen psikopataren bilaketan egindako ahaleginetan emaitzen falta. Ordurako, gaizkilea harrapatzeko kontrolak alferrik zirela susmatzen zuen. Beste helburu bat zutelako, bestela aspaldian erretiratu egin beharko zituzten. Eskerrak Jakerrek zerbait jakin zuen. Emilio Gomez-Puentek bazituen dirua eta ondasunak. Bere eta ingurukoen lokal eta higiezinetan ikuskatzen ibili ziren foruzainak eta ez zuten inondik inora Emilioren arrastorik. Bestalde, Jakerrek berak interneten bidez jakin zuenez, urte batzuk lehenago psikopata hark diru pila bat atera zuen kontu korrante batzuetatik inon gastatu edo inbertitu ez zuena. Diru harekin zer egin zuen gehiago ikertu behar zuten.

2021eko abuztuaren 20a, ortziralea.

Goiz eta egun ederra iragarri zuten irratian. Saioak Maixari lagundu zion goizean goiz. Ondoren, bertze emakumea mandatu batzuetara atera zenean, ederki gosalduta zuen eta prestatu zuen mendiko buelta txikia egiteko. Ordu erdia eman zuen aldapan gora tontorreraino. Bidasoako bokalea eta badia ikusgarria ia eskura zeuzkan han behean. Ikuspegi ederrak hurbiltzera gonbidatzen zuen. Txingudi, Irun, Hondarribia eta hondartzak deigarriak egiten zitzaizkion emakume gazteari. Naturak, jendeak, kale eta plaza biziak erakarri egiten zuten Saioa. Bere buruari galdetu zion zergatik ez egin itzuli bat erreka ondoan, edota jende artean itzuli bizkor bat egin herrian. Telefonoa eta mezuak erabiltzea debekatu ziotenez, zerbait desberdina egin nahi zuen. Larunbatean edo igandean ezagun topatzen ahal zuten eta isolatzea eskatu zieten arriskua saihesteko. Ortziralea izanda, Saioak pentsatu zuen ibilaldi arin bat egitea posible izanen zela. Baserrira sartu zenean Asier topatu zuen gosaria bukatuta banku batean telefonoarekin zerbait egiten. Saioa haserretu zen hura ikustean.

–Asier, zer egiten ari zara? Debekatu ziguten komunikazioak egitea eta hor ari zara mezuak bidaltzen... –anaiak harrিতuta begiratu zion arreba nagusiari.

–Ez, amatxo! Ez naiz mezuak bidaltzen ari! Lagunon whatsapp-taldean begiratu bat bota diet mezuei, ezer bidali gabe. Orain egunkarien berri nagusiak bisitatu ditut. Berria egunkarian, pandemiak kutsatuen kopuruaz gain, adierazi dute Iruñean bertze aste batez luzatuko direla asteburuko gaueko murrizketak eta ba al dakizu Donostian gauean borrokak izan direla jendea eta ertzainen artean? –emakumeak barre egin zuen.

–Mezuetan begiratzea gutxi iruditu eta orain Donostiara joan nahi al duzu?

–Ez. Baina gogorra da buelta egin ahal ez izatea. Ba..., pentsatu dut polita litzatekeela itzuli bizkor bat egitea. Larunbatean edo igandean jende ezagunarekin topatzen ahal gara, baina gaur goizean Txingudira jaitsi eta herrian bultatxo bat egiten ahal dugu, pote bat hartu ere beharbada. Zer iruditzen? –emakumeari pasa zitzaion haserrea. Beren egoera hain zen berezia!!

–Primeran –erantzun zion Saioak–. Horretan ari nintzen ni ere pentsatzen.

Biak jaitsi ziren Plaiaundira. Irunen sartu baino lehen parke ekologikoan aparkatu eta Txingudi Ekoetxean 10etarako itzuli gidatua egiten ahal zutela erran zieten. Ezin ziren bisitaldia bukatu arte ekoetxera sartu eta ibilaldia hasi baino lehen jendea elkartzen ari zen hasteko gogoz. Parke hartan hezetasuna usaintzen zen eguneko giro eguzkitsuarekin orekan. Berrogei bat bisitariak gidaren atzetik zortedun sentitu ziren ordu batez padura bisitatzen

ahal zutelako. Prismatikoak alokatuta, hasi ziren bisita egiten. Inguruan, haltzak, makalak eta sahats baso txikiak ikusi zituzten. Txoritegian, apo lasterkariari buruzko informazioa irakurri zuten paneletan. Jarraitu zuten ibilaldiarekin. Tomabistak erabiliz basahateak, zisne zuriak eta kopetazuriak begiztatu zituzten. Itzaberrin, ubarroi handiak, lertxunak eta kaioak hondarretan, zizare, txirla eta karramarro bila zebiltzan. Txoririk trebeenak hanka eta moko luzeko kurlistak ziren txirlen maskorrak hausten. Urrunean arrano arrantzale bat begiztatu zuten. Itzuli osoa eginda, berriro eko-etxean, bideo-gela batean erreportajea entzun eta ikusi ahal izan zuten. Lezkadiak edo karrizoak suntsitzen zituen sarkin berria ezagutu zuten: uretako arratoiaren antzekoa zen koipu karraskariak lezkak suntsitzean txorien ekosistemak desegiten zituzten. Bisita egin eta bideo-erreportajea ikusita, gela didaktikoari egin zioten kasu. Maketa handiaren inguruan bideo-makinak eta ukipen pantailak erabili zituzten habitat eta ekosistemari buruzko azalpenak ulertzeko. Atera baino lehen urmaelera begira, behatokian geratu ziren azken bistadizoa emateko. Prismatikoak itzultzean dohaineko liburuxka bat eman zieten.

Hamaika eta erdiak aldera gero eta jende gehiago elkartzen ari zen bisita berria egin ahal izateko. Anaia-arrebak herrira hurbildu zirenean aparkatzeko tokirik topatzen ez zuten itzuli eta erdigunetik urrun aparkatu ahal izan zuten. Bidasoaren ibilbidean, pasealekuan eta zentroan jendetza zebilen alde guztietatik, baina sumatzen zen haietako asko hondartzara mugitzen ari zirela. Bidetik ere, kanpotarrek sortutako auto pilaketa gertatzen ari zen.

Bokalera eta Hendaiara begira, pixka batean paseatu ondoren, herrian jende gutxi zuen terraza batean eseri ziren txoko batean. Kañak eta oliba batzuk eskatuta, inguruko mugimenduari eta bisitariei begira pasa zuten denbora gustura. Ez zuten ezer arrarorik nabaritu eta bisitaldia gogoratzeari eman zioten.

Padura eta aintziretako paisaia eta animaliak zituzten buruan eta liburuxkako argazkiak begiratu komentatu zuten zein interesgarria izan zen bisita. Ez zuten espero animalien kopurua eta aniztasuna hainbertzekoak izanen zirela. Gezurra zirudien, lezkadi eta padura artean gizakien mundutik hurbil, halako bioaniztasun ikustea. Txoritegian, argibide-taula bidez, ongi azalduta zegoen dena, landarediak, urmaelak eta animaliek osatutako ekosistema.

Emilio haiei begira zegoen. Ondoko tabernan barneko mahai batean eserita, leiho batetik begiratu zien anaia-arrebei. Gizon zahar burusoil baten itxura hartu zuen, abuztua izateko nahikoa retro janzten zuena. Udako mahuka motzeko alkandora zuria eta kolore bereko praka zabalak zituen. Mahai gainean kapela zuria eta betaurreko beltzak utzi zituen. Freskagarria edan bitartean bere helburuei begira geratu zen. Ez zen ausartu bisitaldia haiekin egitera, baina jarraitu zituen pasealekuan eta erdialdetik itzuliko zirela pentsatuz haien zain geratu zen. Han aurrean zituen berrogei metrora. Ezin zuen ezer egin. Haiek harrapatzeko ezkutuko leku apropos bat behar zuen, jendearengandik aparte. Bi ziren gainera. Momentuz, haiengandik ez oso urrun geratu behar zuen.

Anaia-arrebak gustura geratu ziren egindako bisitaldi eta herriko egonaldiarekin. Baserrira itzuli ziren etxeko lanetan eta bazkaria prestatzen laguntzeko. Orduan gizonak ibili ziren bertze baserrian hondatutako sukaldeko txorrota konpontzen. Lehenagotik konpondu edo aldatu behar zuten eta familia haren etorrerarekin atzeratuta geratu zen. Pixka batean begiratuta, hoberena txorrota berria jartzea izango zela erabaki zuten. Han aritu ziren Xanti eta biak apopiloak agertu baino lehen. Asierrek lagundu zion iturgingin saiatuari. Bitartean, bisitaldia kontatu zion Xantiri, honek urte pila bat lehenago egin baitzuen bisita eta ez zuen azken berrikuntzen berririk.

Bazkaria prestatu zuten bi emakumeek. Entsalada goxoaz gain zerbait desberdin egiteagatik Maixak lehendik egin eta hozkailuan utzitako entsaladillaz gain, piperrada bat egin eta oilasko puskak erre zituzten barbakoan. Laster, eskuak garbitu eta bazkaltzen hasi ziren etxe ondoko itzalpean goxo. Bi emakumeek ere Txingudiko bisitaldiaz

mintzatu zirenez, bertze solasaldi bat izan zuten. Bikotekideek jakin-min handia zuten gazteek zuten gordetzeko beharraz. Ez zuten zehazki galdetu, baina Maixak adierazi zuen.

–Barkatu. Nahi baduzue ez erantzun, baina poliziek zuek babesteko oso arazo handian sartuta izan behar duzue. –Saioak begirada esanguratsua zuzendu zion anaiari baimena eskatuz. Oniritzia jasota, zer kontatu pentsatu zuen.

–Ongi portatu zaretenez kontatu eginen dizuegu. Dena den, gu biok oraindik larritasuna bizi dugunez ez dut zehaztasunik emanen. –Maixak ulertu zuelako keinua egin zuen.

–Bai, noski. Jakin nahi dugu, baina laguntzerik dugun jakiteko da... bereziki –Xantik barre egin zuen urduritasunaren seinale. Saioa azaltzen hasi zen.

–Begira, psikopata bat ibili zen gure atzetik. Entzunen zenuten maiatzean erailketa batzuk izan zirela Iruñean. Ba... Hark harrapatu nahi izan gintuen, atxilotu zuten arte. Duela egun batzuk ospitaletik ihes egin zuenean gu ezkutatzera behartu gintuen. Espero dugu berehala topatuko dutela... –isilik geratu zela ikusita, Xantik ulertu zuen emakume gaztearen urduritasuna. Dena den, bere harridura azaldu zien.

–Ongi da. Ikusten dut oraindik beldurrak jota zaudetela. Ulergarria da, hiltzaile odolgabe bat zuen bila badabil. Beste batean komentatuko dugu eta barkatu berriro, baina zuek bion atzetik ibili zen? –Asierrek garrantzia kendu zion egoerari, gaia saihestu nahian.

–Bai. Egoera penagarria da guretzat. Bertze batean kontatuko dizuegu lasaiago.

Gai hura aparte utzita, beste gai atseginago batzuetara pasa ziren.

Baserriko korreo-helbidean Saioak Ainarak bidalitako mezu bat jaso zuen. Horretan, ikerketak bide onetik ari zirela eta emaitzak espero zituztela aipatu ondoren, pazientzia eskatu zien, hurrengo egunetan komunikazio berria agindu zielarik.

Iluntzean, nor bere gauzetan aritu ondoren, kartetan ibili ziren laurak, musika onaren giroan garagardo batzuk edaten eta beraien bizitzaz eta asmoez mintzatzen ari ziren bitartean.

2021eko abuztuaren 21a, larunbata.

Eguraldiak kaskarrera egin zuen goizetik. Zerua hodeitsu zegoen eta paisaia malenkoniaz jantzi zela iruditu zitzaion Saioari. Goiz zen eta gosalduta gabe aterata zen gaztea itzulia egitera eta tristezia uxatzera. Igo eta igo, mugitzeak on egin zion, poliki animatu eta lainoen arteko edertasuna ikusteko gauza izan baitzen. Mendi tontorretik paisaia sorginduta zegoela iruditu zitzaion: urruneko ikusmira irrealak zen bai, baina oso ederra ere bai. Denborak geldituta zirudien, lokartua izan balitz bezala. Eguzkia gailendu zenean, bera ere esnatzen eta indartzen ari zela iruditu zitzaion eta gogoz eta gosez jaitsi zen bide zuzenetik baserrira. Han anaia topatu zuen gosaltzen eta gustura konpartitu zituzten tostak, marmelada eta kafesne goxoa. Zoritxarrez, ez ziren herrira edo zibilizaziora jaitsiko, aurreko egunean baino jende gehiago ibiliko zelako. Bestalde, baserrian bazuten zer eginik.

Foruzainak jo eta ke ibili ziren galdeketak egiten. Informazio gehigarririk gabe, zailtasunez asmatuko zuten non sartu zen Psikopata. Haren familiakoak eta lagunak galdekatu zituzten. Etxekoek, gurasoek, anaia-arrebek eta familia

zabaleko partaideek ez zuten ezer garbirik adierazi. Beraien ustez Emilio pertsona ona eta negozio-gizon onradua zen. Emazteak ez zuen ezer azaldu eta abokatu baten atzean ezkutatu zen. Lankideetako inork ez zuen pistarik eman. Haietako batzuek erran zuten oso zorrotza zela eta tratu lehorra izaten zuela. Diru-kontulari batek aipatu zuen diru-kontuak garbi zituela, baina hainbat kontu-korrante pribatutan diru kopuru politak jasotzen zituen, erabilera inondik argitu gabe. Kalkulu bat eginez azken hamar urteetan gutxienez milioi bat euro ezkutatu zituen. Menpekoek ez zuten aipatu, baina hark zapaldu egiten zituela agerian zegoen. Zerbait kontatu zuten bakarrak Jose Manuel anaia eta lagun batzuk ziren.

Aspaldiko lagunek onartu zuten Emilio oso argia, berezia eta manipulazalea zela, nahi zuena lortzeko edozer egiteko gai zena. Zerbait erratetik zehaztasunez eta informazio erabilgarria ematera alde handia zegoen eta halaxe gertatu zen gehienekin. Kostata, zerbait esanguratsua aipatu zuen pertsona bakarra, txikitatik ezagutzen zuen adin bereko emakumea izan zen. Mariterek txikitan gora-beherak izan zituztela kontatu zuen. Eztabaidak aipatu zituen. Behin eta berriz galdetuta azkenean negarrez hasi zen kontaktzen.

–Betidanik bortizki tratatzen ninduen, baina behin hamazazpi urte nituela, min egiten hasi zitzaidan eta hilko ninduela pentsatu nuen... –zotinka hasi zen. Lasaitu eta animatu zutenean zerbait gehiago erran zuen—. Nik ez nuen nahi, baina behartu ninduen bere begirada hilak izozten ninduen bitartean...

–Zerbait gehiago egin zizun? –galdetu zion kontu handiz emakumezko foruzain batek.

–Jada kontatu dizuet. Okerreana izan zen denbora luzez jarraitu zuela.

–Eta zuk ez zenuen ezer egin? Ez zenuke salatuko? –galdetu zion bertze foruzain batek kontu handiz.

–Ez. Ez nintzen ausartu eta ez naiz inoiz ausartuko. Torturatzeko eta hiltzeko mehatxua egin zidan eta badakit egingo lukeela. Deabrua ez bada, haren lagun mina bai, bada...!

Bakean utzi zuten, baina jendeak zion beldurraren adierazpen garbia izan zen.

Bestalde, bi urte gazteagoa zen anaiak zerbait kezagarria aipatu zuen: Emilio psikopata bat zen, inhibiziorik gabekoa eta konszientea, baina kontzientziarik ez zuena. Edonola ere, Jose Manuelek ez zuen Emiliok egindako gaiztakeriarik gogoratu nahi, beldurrak jota zegoelako. Haren psikologoak gizonaren isiltasunaz aipatu zuen Emiliorekin izandako harremanaren ondorioz traumatizatuta bizi izan zela. Hark bizimodu xumea eta lasaia baino ez zuen nahi.

Udaltzainak ere buru belarri ibili ziren. Ainarak zuzendu zituen bere taldekoak eta beste lankide batzuk Emilioren higiezinen ikerketan. Tamalez ez zuten ezer lortu. Inon ez zuten jabearen berri erabilgarririk lortu. Bat-batean, Jakerrek, kasualitatez edo, interneten topatu zituen Emilioren aztarnak. Iruñeko Ondasunen Erregistroan topatu zituen German Gomezen izenean txalet bat. Psikopata German izenarekin aurkeztu zen Mikelen aurrean eta Asierrengana hurbildu zenean. Saioaren aurrean Gabriel izena erabili zuenez, Jakerrek izen horiekin egin zuen bilaketa berria dokumentuetan, gida baimen eta NAN identifikazio-txarteletan. Eta ezustekoa izan zuen: bazen Gabriel Gomez izenpean identitatea zuen gizon bat. Emilioren argazkia ikusi zuen eta harrigarriena izan zen bi bankutan kontu korronteak topatzea, bata Gabrielen izenean eta bestea Germanenean. Dirutza zeukan gainera: milioi bat baino gehiago. Tamalez, azken egunetan diru gehiena atera zuen. Berdin gertatu zen txalet batekin; Gabriel Gomezen izenean aurkitu zuen.

Emiliok ez zuen espero harrapatuko zutenik. Seguru sentitzen zen, faltsututako identifikazio berezia erabiliz. Foruzainek topatutako txaletean egiaztatu zuten Emilio han egon zela, baina zoritxarrez txoriak hanka egin zuten. Ainarak eta Lalak etxea miatu zuten. Mahaiko ordenagailuan ezabatuta zuten memoria osoa eta zaila izanen zen zerbait berreskuratzea. Gauzak arin jaso zituela eta ahal zen neurrian aztarnak ezabatu nahi izan zituela nabari zen. Dena den, Emilioren ibileren frogak jaso zituzten. Eskerrak presaka joateagatik mahaitik sofa azpira eroritako orri batean idatzita agertu zen anaia-arreben egun bateko jarraipena.

Ainarak Saioari deitu zion baserriko telefonoaren bidez. Hasteko, Emilioren berri eman zieten. Pista nola lortu zuten eta pisuan topatutakoa kontatu zien. Berri txarrak ziren haiek. Esku-librean mintzatu ziren. Ikerketaren azken berriak eta pausoak kontatu zizkien bi anaia-arrebei zehaztasunez. Orduan, gizon hark opariren bat eman ote zien eta hura eraman zuten galdetzean, hara non Asierrek hark eskumuturreko bat oparitu ziola gogoratu zuten. Asierrri bi tatuaje txikiz aparte, lepoko, belarritako eta esku-mutur bana eramatea gustatzen zitzaion eta kriskitin bat zeukan esku-mutur bat erakutsi zien. Begiratzean kriskitinaren ondoko pieza GPS bat izan zitekeela iruditu zitzaion. Beldurrak akuituta, dena jaso eta Donostiara leku seguru batera eramanez zituztela aipatu zien Ainarak. Momentuz, itxoin behar izan zuten, Xanti eta Maixarekin azken orduak konpartituz.

Psikopatak espero zuten noizbait GPSa topatzea, baina momentuz telefonoen bidez kokapena eta beraien esanak jarraitzen ahal zituen. Autoa pasatzen ikusi zuenean atzetik jarraitu zuten presarik gabe. Motxilan beste gauzen artean ordenagailu eramangarriaren bidez jarraituko zuten kontrolatzen, baita telefonoaren bitartez ere. Handik gutxira Groseko kale batera mugitzen ari zirela ikusi zuenean entzun egin zituen kalearen izena, zenbakia eta pisua. Polizia haiek kaiku batzuk zirela pentsatu zuten.

2021eko abuztuaren 22a, igandea.

Goizean berriro zero goibela eta giro freskoa topatu zuten. Saioak loft haren egongela-jantokiko balkoitik kaleetan jende gutxi zebilela ikusi zuten. Gustura joanen zen paseatzera, baina lehenago konturatu gabe egoeraren urduritasuna sentitzen bazuen, ordurako ezinegon bihurtu zen. Uste edo sentitu zuten Emiliok jarraitzen zituela. Nola eginen zuten ez zekien, baina segurtasuna hobetu behar zuten. Laguntzen zien Lalarekin hitz eginen zuten gosaldia ondoren. Bitartean, Asier esnatzearen zain bukatu zuten gosaria eta ariketa batzuk egin zituen egongelaren erdian.

Lalarekin eta foruzainekin telefonoz hitz egin ondoren zain egoteko aholkatu zieten: badaezpada ere, Bilbora eramango zituzten. Handik ordu batera Ramon Zudaire foruzaina, Lala eta Jaker detektibe pribatuak furgoneta batean agertu ziren. Ikertzaile luze hark, Jakerrek, azaldu zien bezala Emiliok espioitza sofistikatua egiteko sistemak erabili zituen beraien kokapena jakiteko eta beraien komunikazio guztiak kontrolatzeko. Jakerrek erregistro elektronikoa egin zienean, aurretik eskumuturrean GPS bat zutela ziurtatzeaz aparte, autoan beste bat jarri ziela eta telefonoak klonatuta zituztela erran zien. Jakerrek eramangarri batean zeuzkan baliabideak erabiliz telefonoak garbitu zituen. Nolanahi ere, komunikazioekin kontuz ibili behar zuten beren lagunak eta familiakoen bidez berriro klonatuak ez izateko. Telefonoak larrialdiko mezuek bidaltzeko eta jasotzeko baino ez zituzten erabili beharko. Ikertzaileek utzitako telefono garbi baten bidez solasaldia izan zuten gurasoekin eta mezu batzuk bidali zituzten lagun minenei. Aholkatu bezala gurasoen autoa utzi eta Lala eta Jakerren autoan joan ziren Bilbora. Bidaian zirela, musukoa jantzita deseroso hitz egiten zuten.

–Zuen laguntza eskertu nahi dizuet –hasi zen Saioa–. Hori bihotzez esan ondoren, galdetu behar dizuet ea dakizuen nola eta noiz bukatuko den amesgaizto hau!? –Lalak galdera espero zuten eta argi azaltzen saiatu zen.

–Saioa, badakit eskertzen duzuela. Zoritxarrez ezin dugu ia ezer aurreratu Emilio Gomez harrapatzeko. Pazientzia aholkatu behar dizuegu. Zuek ongi gordeta eta arriskurik gabe izanez gero, guk ahaleginak eginen ditugu psikopata hori harrapatzeko. Gero eta hurbilago izanen gara eta azkenean foruzainek edo ertzainek atxilotuko dute.  
–Orduantxe hitz egin zuen Asierrek haserre.

–Tira, gu txintxoak izanen gara. Zuek zer eginen duzue, jakin badaiteke!?

–Asier, mesedez! –moztu zion arrebak. Lalak irribarrea erakutsiz erantzun zion.

–Lasai! Arrazoi du! Guk espioitza eta kontraespioitza eginen dugu. Poliziek oinarrizko lana burutzen duten bitartean, guk, Jakerrek hain zuzen ere, interneten ikertuko dugu. Berak aurkitu zuen pisu frankoa eta lortu zuen segimendu elektronikoa ekiditea. Hala ere, zin eginen dizuet guk hurbildik zainduko zaituztegu eta ahal duguna eginen dugula.

–Barkatu zakar mintzatzeagatik! –izan zen Asierren desenkusa. Nolanahi ere, handik aurrera lasaiago sentitu ziren.

GG-k barre egin zuen, eskaneatu eta telefono mugikorrek garbituko zituztela entzun zuenean. Birus-har sofistikatu bat sartu zien telefonoei. Garbitu eta ordu erdi bat beranduago ezkutuko klonazioa berrezartzea lortu zuen. Bilbo bidean atzetik ibili zen eta aparkalekuan sartu zirenean berrogei metrora ikusi zituen. Berak ere aparkatu zuen autoa handik hurbil. Emakume helduz mozorrotuta helbide berrira jarraitu zituen. Emilok burua, dirua eta bitartekoak zituen, jokoan jarraitzeko eta garaile ateratzeko.

Santutxuko metrotik hurbil, Zabalbide kalearen inguruan, mugimendu handia zegoen eta erraza zen jende artean ibiltzea eta nahastea. Anaia-arrebek hartu zuten pisutik hurbil Emiliok pentsio bat aurkitu zuen. Gizonak suertea izan zuen eta gehixeago ordainduta leihotik ikusten ahal zituen pisuaren ataria eta leihoak. Gainera, berpiztutako espioitza sistema bidez, Emiliok berriro kontrolatzen zuen GPS-a. Dena den, psikopatak bazekien kontuz ibili behar zuela, poliziek eta ikertzaile pribatuek Saioa eta Asier zaintzen zituztelako, baina ez zuen uste denbora guztian horrela arituko zirenik. Ez zekien noiz eta non harrapatuko zituen ziurtasunez mendekatzeko, baina aprobeztatu behar zuen eman zitekeen momentu egokian, libre sentitzen ari zirenean ekiteko. Edozein modutan, egun bat edo bi emanen zituen ziurtasunez leku seguru eta isolatu bat topatzeko. Psikopata, poliziarik edo inoren beldurrik gabe, biak drogatzen saiatuko zen. Han inguruan pisu bat alokatu behar izango zuen lasai aritzeko. Pentsioa utzi behar zuen, bera ere gertutik zelatatua sentitzen zelako. Pentsioko nagusiaren arreta behintzat erakarri izan zuen, denbora guztian gainean ibiltzen sentitu zuelako. Hartu zuen pertsonalitate eta mozorroa nahikoa sinesgarria egiten zuen. Hiru edo lau alditan probatuta, hirurogei bat urteko Gabriela Casasola itxura modernoko emakumea zen, sport eta praka zabalak janzten zituena. Dena den, melena eta makillajearen laguntzaz gazteago ematen bazuen ere, erren eta pixka bat makurtuta ibiltzeak erakusten zuen arazo bat zuela.

2021eko abuztuaren 23a, astelehena.

Emilio arin mugitu zen goiz hartan. Gosari azkarra egin ondoren gelara itzuli zen artritis-mina handia zuelako aitzakian. Beranduago, 10etan edo lehenago sendagile batengana joateko aterako zela adierazi zion pentsioko nagusiarri. Leihotik ikuskatu zituen bi gazteen joan-etorriak. Mugimendu zenbait nabaritu zuen 9:30ean eta susmatu

bezala kalera ateratzen ikusi zituen. Lasai mugitzen zirela pentsatu zuen. Kaikuek bizitza normala egin zezaketela uste zuten. Kontuz ibiliko ziren pare bat egunez eta laster, erlaxatzean, berak aukera izanen zuen. Telefonoko GPSaren seinalearen bidez jakin ahal izan zuen inguruko supermerkatuan erosketak egiten ari zirela.

Ez zegoen haiek ihes egiteko beldurrik. Momentuz, bera lekuz aldatuko zen. Pisu alokatu batean inoren kezkarik izan gabe egonen zela pentsatuz atera zen kalera. Telefonoz higiezin agentzietan galdetu zuen Santutxuko Zabalbide kaletik hurbil pisu txiki bat edo estudio bat zuten alokatzeko. Lau bat agentzietako helbideak izanda Bilbo erdialdean eta Santutxun bisitatu behar zituen bulegoak. Dena den, diru arazorik ez zuela kontuan izanda eta kontratua egiteak denbora eskatuko zionez, onlineko web-orrietan apartamentu turistikoetan begiratzea erabaki zuen. Izan ere, egun gutxi pasatuko zuen. Han, Zabalbideko pisutik hurbil apartamentu bat topatu zuen aste baterako epemuga zuena. Nagusiekin geratu zen, ikusi eta aste osorako ordaindu zuen.

Saioak lasaitu ederra hartu zuen inork jarraitzen ez zituela ziurtatu zuenean. Arazoa zen Emilio harrapatu ezean ez zirela erabat ziur egongo. Ertzainek bazuten haien berri eta noizean behin eginen zieten bisita. Foruzainak ikertzen ari ziren, ikertzaile pribatu haien laguntzaz eta espero zuten laster psikopataren pista izatea.

Asierrentzat German lagun berezi bat baino ez zen izan. Saioak, berriz, harekin abentura bat izan zuen, berehala harreman gatazkatsua eta arriskutsua zela konturatu zen arte. Inoizko liluratzeari izan zuen; hala ere, beldurra, izu sakona sentitu zuen gizon hark bera norbait bitxi bat izanen balitz bezala gurtzen zuela ikustean. Baina objektu bat bezala nahi izanen zuenez bazterrera botatzeko gauza izanen zen, gaizki tratatzeko eta hiltzeko ere bai.

Saioak aste bat edo zortzi egun opor zituen lanera itzuli baino lehen. Ez zekien gurasoekin egun batzuk pasatzeko aukerarik izanen zuen, baina irailaren 1ean institutu batean aurkeztu behar zuen bere burua praktika-ikasturtea egiteko. Kasualitatez, praktika-urtea Askatasuna ikastetxean eginen zuen, Burlatan bere gazte denborako institutuan. Ezagunak zituen hango irakasle batzuk eta etxe ondoan eginen zuen lan.

Jada, bazekien Andonirekin zuen harremana ez zela aldatuko edo gutxi aldatuko zela: bikotekide ofizialak baino lagun bereziak ziren. Gizona Abu Dhabi-ra, Arabiar Emirerri Batuetara joanen zen arkitekto-laguntzaile, eraikin berezi batean lan egiteko. Saioak ez zuen onartu harekin bikotekide bezala joateko gonbita. Andoni laguna bazen ere, ez zuen maite. Emakume gazteak bizitza edo bizimodua behintzat bideratua zuen, maite zuen lekuan eta gustukoa zuen lanean.

Pandemia egoera zela-eta agintariek 2021ko Aste Nagusia ez zutela ospatuko erabaki zuten. Asierrek kalera ateratzeko beharra zuen eta Saioak lagundu zion. Musukoak jantzi eta hiriko zentrora hurbildu ziren paseatuz. Biak "mozorrotuta" zeuden musuko, txano eta betaurrekoekin eta jende artean nahasian ibiliko ziren. Gainera, turistarena egin zuten, Ez-festetan hirian bizpahiru egun pasatzen arituko balira bezala. Planoarekin ibaiaren bidea aukeratu zuten Atxuri ondotik, itsasadarrera heltzeko eta Erriberako merkatua bisitatzeko. Libre sentitu ziren eta gustura egin zuten turismo.

Merkatua eraikin luze eta handia zen, marra gorriko itsasontzi zuri baten itxura zuena. Beirate-leihoek modernoagoa egiten zuten egitura: Art Decó nabaria zen. Eskailera mekanikoek eta erosotasunek praktikotasuna ematen zioten alde komertzialari. Lehenengo inpresioan, merkatua barnetik postu txukun eta modernoak beterik zegoen. Arrandegiak itxita zeuden astelehen guztietan bezala, baina beste produktuak ordenatuta eta ongi antolatuta ikusten ziren, kalitate handikoak dudarik gabe. Jende pila zebilen erosketetan eta beste asko bezala kuskuseatzen ibili ziren. Erriberakoa, Europako merkatu estalirik handiena omen zen eta hoberenetakoa. Bi anaia-arreba harrituta eta txundituta ibili ziren postuz postu batetik bertzera. Lastima arrain eta mariskorik ez ikustea, baina haragi,

enkurtido, fruta eta barazki ikusgarri, eder eta salneurri onekoak ikusi zituzten. Jaki goxoak ikusita, gosetuta edo, gastro-barretara hurbildu ziren.

Terraza itxurazko hura mahaiz osaturiko taberna modernoz beteta zegoen eremu zabala, jendez gainezka. Barrek pintxoz mukuru betetako erakusketa ziruditen eta irlak balira bezala, behin pintxoak aukeratu eta ordainduta, inguruko mahaietara pasatzen ziren bezeroak. Gastro-barrak, garagardotegiak, bokateriak eta enotekak ziren lokal haiek. Gastro batean, pintxo sorta bat aukeratu zuten, klasiko hotz eta lan handiko pintxo beroez osatua. Kaña berezi handiak ere eskatu zituzten eta ordainduta mahai batean eseri ziren pintxo beroen zain. Gustura dastatu zituzten pintxoak eta garagardo bereziak. Handik gutxira, gastronomiaren katedral hartatik Zazpi Kaleetan sartu ziren goiz-pasan.

Emilio apartamentura aldatu zen. Handik ez zituen bikotearen leihoak ikusten, baina bazuen zelatatzeko beste modu praktikoagoak. Saioak eta Asierrek uste zuten telefonoen birusak deuseztatu zizkietela, eta ez erabiltzen saiatu arren, piztuta zituzten informazioak edo dei garrantzitsuak jasotzeko. Berak Troyano berezia berpiztu zuen eguraldi mezu automatiko baten bidez mozarrotuta, agindua bidaliz. Anaia-arrebak ez ziren konturatuko, baina Emiliok tarteka GPSa eta mikrofonoak erabili ahal izanzen zituen aurreko egunetan egiten zuen bezala. Eskanerren aurrean troyanoa ezkutatzeko gauza zen, berpizte berrien esperoan. Gizonak anaia-arrebak Bilboko Zazpi Kaleetan zebiltzala jakin ahal izan zuen.

Asier eta Saioa bazkaltzen ari zirela entzun ahal izan zuen Emiliok. Honek une hartan sentitu ez, baina pentsatu zuen zoragarriak zirela. Gogo eta ilusioz beterik zeuden. Bere ikuspuntuan eta helburu izan ez balira bakean utziko zituen, baina menperatu behar zituen. Egin nahi zuena menperatu arte bahitu eta leku ezkutu batean izatea zen. Leku apropos bat bazuen, badaezpada urte batzuk lehenago erosi zuena: Nafarroako mendialdean, lursail zabal batean etxe isolatu batean, ez zituen inork topatuko.

Abuztuaren bukaeran Bilbo udatiarrez beteta zegoen. Ez-festetan izanda ere, kera-deirik gabe, iluntzean gazte kuadrillak eta taldeak elkartzen ziren dibertitzeko. Asier gustura aterako zen kalera, askatasun beharrak bultzatuta. Saioak, bizi zuten arriskuaz ohartuta, konbentzitu zuen momentuz gaueko girora ez ateratzeko. Gainera, taldeak eta jendearen bilkurak debekatuta zeuden eta are gehiago botila-festak. Hura zen koktel hura! Gauetan poliziarekin gatazkak sortuko ziren edo bestela giroaz probestu eta taldeen arteko bestelako istiluak izan zitezkeen.

Zaintzaile pribatuek zaintza sistema bat antolatu zuten ertzainek egin ezin zutena. Egun hartan, Gorka eta Maite agertu ziren Bilbon eta hotel batean hartu zuten gela bat. Bien artean, txandaka, zaindu behar zituzten bi gazteak beraiek jakin gabe. Lan zaila, aspergarria eta neketsua zen hura!

2021eko abuztuaren 24a, asteartea.

Eguraldi zoragarria izan zuten Bilbon. Eguerdian 24º zituzten, baina sentazioa 3º-4º gehiagokoa zen hezetasunagatik. Saioa goizean goiz atera zen kirol egitera. Itsadarrean gustura ibili zen korrika Arenal-hareatzatik eta itzuli zenean Asier topatu zuen egongelan abdominalak egiten. Elkarrekin gosalduta zuten. Asier urduri zegoen. Aurreko egunean ez zen kalera atera, kostata hala ere. Arreba konbentzitu zuen goizez, egun argiz ateratzeko. Txano eta betaurrekoak jantzi eta autobusez hurbildu ziren Bilboko Arte Ederretako museora.

Norman Foster arkitektoak berrikuntza handiak egingo zituen irailean, baina momentuz museoa bisitatu ahal zen. Ez zegoen jende gehiegirik eta gustura ikusi zituzten margo gela gehienak. Margolari famatuen obra batzuen bila ibili ziren, ea lan handiak eta egileak zein ziren asmatzen zituzten jolastuz. El Greko, Rivera, Murillo, Zurbaran, Zuloaga, Picasso eta Goya espainiarrenak eta Durero, Rembrandt eta Cezane handienak asmatu zituzten askotan. Zinemaren historia eta emakume zinegileei buruzko gela batzuk prestatzen ari ziren handik egun gutxitara irekitzeko.

Saioarentzako mezu batean Lala detektibeak aholkatu zien badaezpada kalean hain nabarmen ez ibiltzeko. Saioak gogoratu zuen emakume hark errandakoa.

–Lalak aholkatu zigun publikoki babesgabeko egoeran ez egoteko. Gaurko mezuan argi adierazi du ezin garela jende aurrean geldirik egon eta ez bazkaltzeko leku publikoetan –Asierrek ez zuen aholkua ongi hartu. Ez zuen ulertzen.

–Eta non bazkaltzen ahal dugu, jakin badaiteke? Nola egin behar dugu, ba?

–Ageriko lekuan behintzat ez eta beti ateei eta ihesbide bati begira.

–Ateak eta ihesbideak ez al dira berdinak?

–Lasai, Asier. Uste dut bertzerik gabe kontuz ibili behar dugula.

Berandu zen. Azkenean, pisuaren ondoko jatetxe txinatarrean eramateko aukeratu zituzten mokadu batzuk eta pasta plater bana. Arratsaldean, itzuli txiki bat eginen zuten inguruan, arratsean zerbait afaldu eta atera gabe irakurtzen eta musika entzuten pasatzeko.

Emiliok pentsatu zuen nola harrapatu ahal zituen bi gazteak. Pisuan sartzeko, errazena, mozorrotuta atean deitzea izango litzateke, poliziak joan berritan, emakumezko auzokide bat balitz bezala. Prest izan behar zituen pistola, drogak, bridak eta labana.

2021eko abuztuaren 25a, asteazkena.

Asierrek amets gozoak izan zituen gauean, tarte batean esnatu eta zerbait gogoratzeko moduan. Goxo-goxo loak hartu zuen berriro ametsetan jende alaiarekin eta leku zoragarrietan ibiltzeko, festa amaigabeetan izan, bat-batean foruzain batzuek atxilotzera agertu ziren arte. Covid-a kutsatzeaz salatu nahi zuten, musukorik eta distantziarik gabe jende artean ibiltzeagatik. Poliziek eraman zutenean auto batean sartu ondoren isilka erran zioten bera, German-Emiliok harrapatzeko arriskuan zegoenez, itxuraz atxilotu baina babestu nahi zutela. Orduantxe, hurbil baina ezkutuan psikopata ikusi zuen auto batean haiek jarraitzeko prest. Izerditan esnatu zen bihotza trosta bizian zuelarik. Erlojuari begiratu zionean zortziak izatekotan altxatu zen gosaltzeko asmoz. Arreba sukalde txikian topatu zuen gosaria bukatzen eta kontatu zion bere ametsen amaiera beldurgarria. Bere ohiko aldaratearen kontrara kezkatuta zegoen eta Saioari adierazi zion.

–Saioa, amets gaiztoa izan da! Horretan Emilioren agerpenak gogorarazi dit gure bila dabilela eta ez gaudela libre; alegia, arriskuan gaudela eta orain arte ez naiz gehiegi kezkatu. Hala ere, gure telefonoak klonatuta izan

dituenez, horrek hobeki pentsarazi dit bera gai dela..., baliabideak dituela eta edozer eginen duela gu harrapatzeko. Non egonen da? –Hotzikara sentitu bazuen ere, emakumea anaia lasaitzen saiatu zen.

–Asier, amets gaiztoa izan duzu eta badirudi horrek aldarazi dizula umorea... –honek ezetz egin zuen buruarekin arrebaren jarduna eteten zuen bitartean.

–Ez. Ez da amets hutsa. Ametsak gogorarazi dit dugun arriskua. Dena den, gizon horren mehatxua erreal da. Oso arin jokatu dugu kalera ateratzean. Ez dakit zergatik, baina hor kanpoan dagoela uste dut –Saioa anaiaren beldurra arrazionalizatzen saiatu zen.

–Agian arinegi hartu dugu arriskua, baina telefonoak eta gauza guztiak “garbitu” dizkigute. Poliziak eta detektibeak gu babesten dabilta eta haren bila ari dira.

–Hala izan dadila, baina susmoaren harra esnatu zait... Zer egiten ahal dugu babestuago izateko? –emakumeak segundo batzuetan pentsatu ondoren erantzun zion.

–Kontuz ibiliko gara. Ez gara paseatzera bertzerik gabe aterako eta... –piska batean isildu zen–. Lalari edo Ramon Zudaireri galdetu behar diegu zer gehiago egin dezakegun eta nola ari diren Emilioren bilatze lanetan.

Handik gutxira foruzainen zerbitzuetan adierazi zieten Zudaire inspektoreak laster deituko ziela, orduan bilera batean zegoela. Hori zela eta, bi senideek janaria erostera joatea erabaki zuten. Arin ibili ziren egun batzuetarako jakiak eta bestelako beharrezko gauzak erosteko. Ez zitzairen egunkaria erostea ahaztu. Dena den, biek bazuten denbora pasatzeko e-book-irakurle bana eta musika entzuteko modua. Nolanahi ere, faltan izanen zuten maite zituztenekin harremanetan izatea. Asierrek Xabi zeukan gogoan, Saioak Miren, eta biek guraso eta aitatxi-amatxiekin mintzatzeko beharra. Finean, berez zaila izaten den bizitzan normaltasunez aritu nahi zuten.

Zudaire inspektoreak eguerdi aldean deitu zien bi senideei. Anaia-arrebek beren beldurrak adierazi zizkioten. Zirudenez, Zudairek lehenago hitz egin zuen Elkano udaltzainen inspektorearekin eta bazuen zer kontatu. Gutxienez aholkuak eman zizkien. Zudairek kontatu zien Udaltzaingoko Ainara inspektoreordeak eta Elkano inspektoreak Emilio edo bere klanaren ondasunak, baita autoen matrikulak, kontrolatu egin zituztela, behintzat batzuen berri bazutela. Lalak eta Jakerrek denbora gutxian gaizkilea non zegoen jakinen zuten. Zudaire inspektoreak jarraitu zuen hartu beharreko jokabideaz.

–Arrazoi duzue. Hobe kontu handiz ibiltzea. Gu ikerketak jarraitzen ari gara ea non topatzen ahal dugun. Momentuz ezin dugu argiago esan zertan ari garen... –Asierrek ez zituen bertzerik gabe aitzakiak onartuko.

–Barkatu, baina gu ez gara hiritar arruntak, jakin-minez galdetzen ari garenak. Gu arriskuan gaude. Gure atzetik ari da psikopata hori!

–Egia da, baina une honetan dena aire batean dago. Egon daitekeen leku guztietan ari gara bila eta era berean zuen zaintzan ari gara zuek uste baino hurbilago... Ezin dizuet gehiago aipatu. Bertzetik, ongi eginen duzue gordeta zain egonez. Hemendik aurrera eskatu guri edo ertzainei kanpoan zerbait behar baduzue –Saioak lagundu nahian zerbait aipatu zuen.

–Beno..., ezin baduzue ezer gehiago aipatu... Hala ere, zuen ibilerez eta bereziki gure arrisku-egoeraz informatzea eskatu behar dizuegu. Ez gara guztiaren jakitun. –Emakumea saiatu zen bere burua kontrolatzen. Foruzaina, berriz, ahalegin horretaz jakitun, animoak ematen saiatu zen.

–Sentitzen dut ezin gehiago aipatu ahal ez izatea. Gure nagusiei adieraziko diet zuen egoera eta hitz ematen dizuet lehenbailehen konpontzen saiatuko garela. Ertzainei eskatuko diegu zuen pisutik agertzeko...

–Esaiezu, mesedez, uniformatuta ez agertzeko eta lehentxeago telefonoz deitzeko –esan egin zion Asierrek.

Anaia-arrebek ariketa fisikoak egin zituzten pisuan bertan eta eguerdia hurbil zelarik, bazkaria prestatu zuten. Emiliok dena entzun zuen eta pentsatu zuen berehala ekin behar ziola erasoari. Poliziak agertuko zirenez, txakurrak hurrengo aldian pasatu ondoren harrapatzeko momentu aproposa izango zen. Ez zegoen prestatuta, ordea. Elbarrientzako anbulantzia bat lortu behar zuen bi pertsonak garraiatzeko.

Arratsaldean Ainarak deitu zion Saioari lasaitu eta animoak eman nahian.

–Saioa, gure nagusiak kontatu dit zuen ezinegona eta deitu dizut errateko buru-belarri ari garela malapartatua harrapatzeko asmoz. Ezin dizuet gehiago kontatu badaezpadako neurria baita gehiegi ez esatea... –Asierrek ez zuen hainbesteko harremanik Ainararekin eta erantzun egin zion.

–Oso ongi. Animatu baino ez duzue egingen? Ez al zenuten aipatu baliabide bereziak zenituztela? –orduan, arrebak eten egin zion anaiari.

–Asier, ez dakigu zer ahalegin egiten ari diren! Nik sinesten diot Ainarari.

Ainarak susmatzen zuen detektibe pribatuak zer ikerketa eta ekintza motak burutzen ari ziren psikopata harrapatzeko eta arriskua ikaragarria zen. Lalak egin zutena kontatu zion eta harrituta zegoen zer nolako odol hotzez jokatzeko ari ziren. Era berean bazekien beste aukerarik ez zutela eta Emilio harrapatzeko amuan Saioa eta Asier jarri zituztela.

Uniformerik gabeko ertzain bikoteak egunean bi aldiz agertzen hasiko ziren. Mezu bidez abisatu zieten gazteei handik hamar minutura ertzainak agertuko zirela. Sartu eta gero, poliziek bi minutu eman zuten dena aztertzeko. Alde egin zutenean Emiliok pentsatu zuen momentu aproposa izanzen zela joateko eta drogatzeko. Zoritxarrez ez zuen azpiegitura prest eta biharamunerako utzi beharko zuen. Gainera, Saioa eta Asier ertzainekin ohituko ziren eta lasaiago harrapatuko zituen.

2021eko abuztuaren 26a, ortzeguna.

Egun ederra, benetan! Lastima! Saioa gogoz geratu zen itzuli bat egiteko. Emakume gaixoak mugitzeko beharra bazuen ere, beste aukerarik ez eta bertan geratu behar izan zuen ariketa fisikoak egiten. Berak ahal izanez gero gusturago eta naturalago eginen zuen korrika. Behin beroketa eginda mota guztietako flexioak errepikatu zituen eta karate kolpe eta mugimendu batzuk burutu zituen. Ordu erdia pasa ondoren Tai-Chi "forma" osoa egiten saiatu zenean, erdi ahaztuta zuenez, mugimendu guztiak egin ahal izateko saiakera batzuk egin behar izan zituen. Nekatu zenean dutxa hartu zuen. Gosaltzeko asmoz, tostak prestatzen ari zela, Asier agertu zen aharrausika eta makarrak kentzen. Beti izan zen esnatzeko alfer samarra, baina egun haietan triste egoten zen.

Goiz samar mezu batean ertzainak goizeko hamarretan agertuko zirela jaso zuten anaia-arrebek, pisuan dena ongi zegoela begiratu eta eskatutako erosketa eskaera eramateko. Dena ongi zegoela egiaztatuta bakean utziko zituzten arratsaldera arte. Poliziak pisutik atera zirenean Emiliok elbarrientzako furgoneta bat atariaren ondoan utzi zuen. Gurditxoa erabiliz garraiatuko zituen. Zailena sinesgarritasuna lortzeko zelador-jagole mozorroaren gainean emakume zaharrena ongi jartzea zen. Andre bat jaitsi zen elbarrientzako anbulantziatik gurditxoa bultzatuz eta atariko jende-mugimendua aprobetxatuz sartu zen eraikinean. Bost minutuan bi gazteak drogatuz eta banan-banan jaitsi behar izango zituen anbulantziara.

Pisuko ate ondoan utzi zuen gurdia eta deitu baino lehen areagotu zituen andrearen zahar ezaugarriak. Txirrina jo zuen. Saioak miratik begiratu zuen. Emakume zaharra auzoko bat izanen zen. Badaezpada, kisketa jarrita ireki zuen atea.

–Bai? Zer nahi duzu, andrea? –galdetu zuen bat-bateko mesfidantzaz. Emakumeak eskuetan olio-ontzia zeukan eta makurtuta ez zitzaion begirada ikusten.

–Barkatu, gazte, baina olioak bukatu zait... –emakumeak ahots marrantatua zuen. Bat-batean bultzada izugarria emanen atea ireki eta Saioa bota zuen lurrera –emakume zaharrek kolpez itxi zuen atea eta Asier heldu baino lehen saiatu zen Saioari musuko moduko zerbait muturrean jartzen.

Emiliok ezin izan zuen gehiago egin. Pisu barnetik bi gizon armatu agertu zitzaizkion. Ezertarako aukera eman gabe geldiarazi eta eskuburdinak jarri zizkioten. Atxilotuta zegoela eta lasai gelditzeko erran zioten. Barneko besaulki batean eserarazi zuten bezain laster atetik bertze bi ertzain eta bi emakume sartu ziren. Ainarak eta Lalak besarkatu egin zuten Saioa, arriskua bukatu zela esaten zioten bitartean.

## Z - Epilogo

Emiliok espioitza egiten zuen bitartean, ikertzaile pribatuak kontraespioitza burutzen ari ziren. Bazekiten psikopatak espioi-programa berriro berpiztu zuela eta beraiek, Jakerren lanari esker, momentu guztietan gaizkilea non zebilen ere. Maitek eta Gorkak kontu handiz jarraitu zuten psikopata eta aurreko egunean Lurdesek eta Lontxok txandakatu zituzten. Horretaz gainera, Ainara, Ramon Zudaire eta Lala agertu ziren ertzainekin azken momentuan zaintza eta ekintzak koordinatzeko. Bazekiten Emiliok elbarrientzako furgoneta bat lapurtu zuela eta goiz hartan ertzainak joandakoan bahitzen saiatuko zela. Poliziak agertu ondoren berriro atera zirenean beste bi geratu ziren ezkutuan gaizkilea harrapatzeko. Polizia haiek anaia-arrebari kontatu zieten minutu gutxitan gertatuko zena eta tranpa prestatu zuten.

Emilio buru-belarri ibili zen azkeneko ekintza burutzen. Itsututa eta despistatuta aritu zen, poliziek mesprezatu eta gutxietsi zutelako. Maiatzean, atxilotu zutenean, egunkari eta telebistetan psikopata buruz aritu ziren komunikabideetan, gertatutako torturatuak eta eraildakoak gehiegi aipatu gabe. Gaixo eta zorotzat hartu zuten gizona haserretu zen eta mendeku hartzeko planak egiten hasi zen. Abuztuan, Emiliok ihes egin zuenean, komunikabideek aurretik kontatua errepikatu zuten. Izan ere, Jose Manuel anaiaren aholkuz, Emilio gutxietsiz gero, itsutuko zen bere helburuan, ez baitzuen jasaten kontra egitea eta desio zuenarik gabe geratzea. Momentu hartan psikopata haserrarazi zuten harrapatu ahal izateko. Irrati eta telebistako elkarrizketa batzuetan, pistak zituztela aipatu ondoren polizia batek zirikatatu zuen zoro eta gaixoa deituz eta haren helburua lortu gabe harrapatuko zutela esanez. Ondorioz, obsesionatuta, psikopatak ez zuen segurtasunean behar bezalako arreta jarri. Berak ez zekien bere planaren berri zutela eta poliziak atzetik zituela.

Bestalde, Saioak azkeneko egunetan susmatu zuen zein zen ikertzaileen eta polizien plana eta Ainarari adierazi zion bere adostasuna. Bitartean, Emilio ziur zen bi harrapakinak eskura zituela eta bere helburua lortuko zuela, gehien bat Asierren adierazpenengatik.

Azkenean, Emilio engainatuta harrapatu zutenean, Ainarak eta Lalak dena kontatu zieten Saioari eta Asierri. Denek espero zuten handik aurrera psikopata betiko kartzela-zigorra ezarriko ziotela. Bi senideek egun batzuk pasatuko zituzten kostaldean gurasoekin eta lagunekin, betiko eta eguneroko bizi arruntera itzuli arte.